

“Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza Donostian: Iritziak eta hautemateak” Ikerketa kualitatiboa, 2013







1 MIGRATZAILE BERRIAK DIREN DONOSTIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK.....	17
1.1 MIGRATZAILE BERRIAK DIREN DONOSTIARREN BIZITZA PROIEKTUEN ZERTZELADA OROKORRAK	19
1.2 MIGRAZIO PROIEKTUEN IBILBIDEA	21
1.2.1 INTEGRAZIORA BIDEAN ABIAPUNTUA, INTEGRAZIO SOZIO-EKONOMIKOA	26
1.2.2 ATAL HONEN LABURPEN GISA	34
1.3 HARREMANAK ETA HARREMAN HORIEK ARGITZEN DITUZTEN ESTRATEGIAK	36
1.3.1 HASIERAN EZBERDINTASUN POZISIO BATEAN KOKATZEN DIRA	36
1.3.2 HARREMANAK BALDINTZATZEN DITUZTEN ALDAGAIK.....	37
1.3.3 HARREMANEN NONDIK NORAKOAK.....	39
1.3.4 HARREMANEN AURREAN DAUDEN POSIZIOAK.....	43
1.3.5 EUSKAL HIZTUN ETA ERDAL HIZTUNEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK	48
1.3.6 ATAL HONEN LABURPEN GISA	49
1.4 EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREKIKO HAUTEMATEAK.	50
1.4.1 HARREMAN SOZIALEN ETA OINARRIZKO DEFINIZIO POLITIKOEN BALDINTZAPENA HAUTEMATE HAUTETAN.....	50
1.4.2 EUSKARAREN FUNTZIONALITATEAREN HAUTEMATEAK	51
1.4.3 EUSKAL KULTURARI DAGOKIONEZ	54
1.4.4 POLITIKAREN INGURUKO HAUTEMATEAK.....	58
1.4.5 ATAL HONEN ONDORIO GISA	64
1.5 MIGRAZIO PROIEKTUEN HAUTEMATEAK ETA AURRERA BEGIRAKO ESPEKTATIBA	65
1.5.1 AURRERA BEGIRAKO ESPEKTATIBAK: AURKITZEN DIREN JARRERAK, DISKURTSOAK	67
2 ESPAINIAR ESTATUKO JATORRIA ETA EUSKAL JATORRIA DUTEN DONOSTIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK.....	70
2.1 KULTUR ERREFERENTZIA EUSKALDUNA EDOTA GAZTELANIADUNA DUTEN DONOSTIARREN ARTEKO ELKARBIZITZAREN BILAKAERA.	71
2.1.1 ELKARBIZITZAREN GORABEHERAK HIRU BELAUNALDIEN PERSPEKTIBAN.	71
2.1.2 EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN GAINEKO HAUTEMATEAK: BERE ESTATUSA ETA FUNTZIONALITATEAREN INGURUKO IKUSPEGIAK.....	76



2.1.3 ATAL HONETAKO ONDORIOAK.....	82
2.2 ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN DONOSTIARRAK BESTELAKO DONOSTIARREN BEGIETARA.....	85
2.2.1 MIGRATZAILE BERREI BURUZKO ERREPRESENTAZIO SOZIALAK.....	85
2.2.2 EGUNEROKOAN ERAIKITZEN DIREN HARREMANEN NONDIK NORAKOAK: EUSKAL NAHIZ ESPAINIAR JATORRIKO DONOSTIARREN IKUSPEGIA.....	93
2.2.3 HERRITARREN ESKUBIDE SOZIALAK.....	99
3 JATORRI ETA KULTUR ERREFERENTE EZBERDINETAKO DONOSTIARREN ARTEKO ELKAR EZAGUTZA, AITORTZA ETA BIZITZARAKO AUKERAK ETA OZTOPOAK.....	104
3.1 DISKURTSOTAN ATZEMAN DAITEZKEEN HARREMAN EREDUAK.	104
3.2 KULTUR ARTEKOTASUNAREN EREDURA GERTURATZEKO AUKERA ETA OZTOPOAK ...	107
4 AURRERA BEGIRA EGITEKO GOGOETAK.....	121
4.1 AUZO IDENTITATEA, EDOZEIN LANKETARAKO KONTUAN IZAN BEHARREKO ALDAGAIA	121
4.2 LABURTUZ ETA AURRERA BEGIRA	125



-SARRERA-

ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA DONOSTIAN:
DISKURTSOAK ETA HAUTEMATEAK, 2013

Orriotan, **“Aniztasuna eta elkarbizitza Donostian: diskurtsoak eta hautemateak 2013”** ikerketa kualitatiboaren emaitzak aurkezten ditugu. Aztikerrek egin duen lan honen helburua izan da jatorri, kultura eta identitate askotariko dituzten donostiarren hautemate eta diskurtsoak mahaigaineratu eta aztertzea. Hain zuzen ere, ezberdinekiko dituzten hautemate, estereotipo eta errepresentazio sozialen azterketan oinarrituta, kulturen arteko elkarbizitzarako bide eta oinarriak azalarazi nahi ditugu.

Ahalegin horretan, hainbat elkarrizketa ireki egin ditugu, 14 hain zuzen. Eta eztabaida talde bat. Erabilitako metodologiaren aurkezpena biltzen duen atalean ikus daitekeenez, besteak beste, jatorri, kultura, adin eta eremu askotako herritarrek parte hartu dute elkarrizketetan. Ondorioz, elkarrizketa kopuru polita egin dugulako batetik, eta topatu ditugun herritarrek askotarikoak izan direlako bestetik, informazio ugaria eta oparoa bildu dugu: asko, oso baliagarria eta aberatsa. Lan horren guztiaren emaitza da aurkezten ari garen txostena.

Txostena hiru zati nagusitan banatu dugu. Lehen atalean, migratzaile berrien hautemate eta errepresentazio sozialak aztertu ditugu. Dituzten bizitza proiektu eta migrazio proiektuen barnean ulertu nahi izan ditugu integrazio sozio-ekonomiko eta kulturalerako joerak eta bideak. Aztertu dugu balizko integrazio bide horien egunerokoa, hau da, nola ehuntzen diren pertsonen arteko harremanak integrazio bide horiei eta migrazio proiektuari eusteko. Bigarren atalean, Espainiako Estatuko jatorria eta bertako jatorria duten donostiarren hautemate eta errepresentazio sozialak aztertu ditugu. Eta hirugarren atalean, behin jatorri eta kultura horietako donostiarren hautemateak arakatu ondoren, diskurtsoak aztertu eta kulturen arteko harremanetarako nabarmentzen diren ereduak landu ditugu.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu elkarrizketatu ditugun herritarrei eta parte hartu duten guztiei. Guk proposatutako gaiet buruz hitz egiterakoan benetako ardura hartu dutelako eta eman diguten informazioa benetan oso baliagarria izan delako. Haiek dira lan honen benetako bihotza, haien ekarpenik gabe ezinezkoa litzateke horrelako lanak egitea. Beraz, eta bihotz-bihotzez, mila esker guztiei.



-METODOLOGIA OHARRAK-

ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA DONOSTIAN:
DISKURTSOAK ETA HAUTEMATEAK, 2013

LANDA-LANAREN LABURPEN TAULA

Unibertsoa: Hainbat jatorri, kultura eta identitatetako donostiarrak

Elkarrizketak: 14 elkarrizketa, 19 pertsona.

- Espainiako Estatuz kanpoko jatorria duten donostiarrak: 8.
- Espainiako Estatuko jatorria duten donostiarrak: 2.
- Gurasoak Espainiako Estatuko jatorrikoak dituzten donostiarrak: 2.
- Gurasoak euskal jatorrikoak dituzten donostiarrak: 5
- Jatorri *mistoko* gurasoak dituzten donostiarrak: 2.

Talde eztabaida: 6 pertsona


Ikerketan parte hartu duten pertsonak, guztira:

- 25 herritar.
- 14 gizon eta 11 emakume.

Data: landa-lana 2013. urteko martxoan zehar egin dugu.

Ikerketa kualitatibo hau egiteko, honako teknika hauek erabili ditugu:

- **Elkarrizketa sakonak: banaka eta binakako elkarrizketak**
- **Talde eztabaidak**



Orain, egindako elkarrizketen ezaugarri zehatzak zein izan diren aurkeztuko dugu, baina azal dezagun lehenago zer-nolako gogoeta egon den gure diseinuaren oinarrian.

HERRITARRAK SAILKATZEKO ERABILI DITUGUN LAU ARDATZ HAUEN ARABERA DISEINATU DUGU IKERKETA KUALITATIBO HAU.

- ✓ **Batetik, jatorri, kultura edota identitate aniztasunaren ardatza** legoke. Ardatz nagusia izan da lan honetan; azterketa gaiak finkatzen duen eremuan, ardatz honek baldintzatzen ditu diskurtso ildo nagusiak. Horrexegatik egin dugu elkarrizketa sakonen diseinua, nagusiki, ardatz honen arabera. Ardatz honen barruan, honako banaketa hau

egin dugu: Espainiako Estatz kanpoko jatorria duten donostiarrak, Espainiako Estatuako jatorria duten donostiarrak, gurasoak euskal jatorrikoak dituzten donostiarrak, Espainiako Estatuako gurasoak dituzten donostiarrak eta jatorri *mistoko* gurasoak dituzten donostiarrak.

- ✓ **Bigarrenik, elkarrizketatuaren generoaren ardatza** dugu. Generoak makina bat gauza baldintzatzen ditu: bizi izandako gertaerak eta bizipenak, bizitzari eta harremani begiratzeko moduak, gizarte egituraren txertatzeko modu bereziak. Hortaz, ikerketa hau ezin izan dugu egin aldagai hori kontuan hartu gabe.
- ✓ **Hirugarrenik, seme-alaben ardatza** dugu. Alegia, elkarrizketatuak semerik edo alabarik baduen edo ez. Izan ere, adin txikiko seme-alabak izatea zubia den neurrian hainbat eremutan beste donostiarrekin harremanak izateko, eta hizkuntza ereduaren gainean hautuak egitera behartzen duen neurrian, azterketa honetan aintzat hartu dugu.
- ✓ **Laugarrenik, elkarrizketatuaren ama hizkuntzaren ardatza eta elkartegintzaren ardatzak** erabili ditugu. Zehazki, migratzaile berriekin egindako elkarrizketetan erabili dugu ama hizkuntzaren ardatza. Hain zuzen ere, banaketa nagusia izan da ama hizkuntza gaztelania izan edo ez. Elkartegintzaren ardatza, Donostian jaio diren pertsonen artean erabili dugu, eta horien artean, elkarte bateko kide direnak eta ez direnak bereizi ditugu.

Beraz, ardatz nagusi hori -eta beste maila batean kokatu behar diren bestelako ardatz horiek-abiapuntu izanda, honela banatu ditugun egindako elkarrizketak eta talde eztabaida.

ELKARRIZKETEI DAGOKIONEZ, HONELA BANATZEN DIRA EGINDAKO 14 ELKARRIZKETAK (19 PERTSONA):

- ✓ **Espainiako Estatz kanpoko jatorria duten donostiarrak (7 elkarrizketa, 8 pertsonekin).**

Elkarrizketa horietan espainiar estatz kanpoko jatorri ezberdinetako pertsonak elkarrizketatu ditugu, **hainbat aldagai kontuan hartuta:**

- **Ama hizkuntza:** aintzat hartu dugun aldagai nagusia izan da. Hain zuzen ere, gaztelania izatea ama hizkuntza edo beste ama hizkuntza bat izatea, azterketa honen helburuei begira zaindu beharreko alderdia iruditu zaigu. Gauzak horrela, ama hizkuntza gaztelania dutenekin izan dira bi elkarrizketa, eta beste hirurak gaztelania ez beste ama hizkuntza bat dutenekin.
- **Adina:** Horretaz gain, adina neurri batean aintzat hartu dugu. Ikerketa kuantitatiboki ateratako ondorioen arabera adin taldeei erreparatu diegu.
- **Donostian igarotako urte kopurua.** Aldagai honen barruan, 7 urte baino gehiago daramatzatenak eta denbora gutxiago daramatenak bereizi ditugu: elkarrizketetan parte hartu duten bi lagunek 7 urte baino gutxiago daramatzate eta beste laurak gehiago.

- ✓ **Espainiako Estatuako jatorria duten donostiarrak (2 elkarrizketa, 2 pertsonekin.)**

60-70 hamarkadan bertaratu ziren migratzaileak dira kategoria honetan bilatu ditugunak.

✓ **Guraso euskaldunak dituzten donostiarrak (3 elkarrizketa, 5 pertsona).**

Adin ezberdinetako pertsonak izan dira, nerabeak, gazteak eta helduak.


✓ **Gurasoak Espainiako Estatuko jatorrikoak dituzten donostiarrak (elkarrizketa 1, 2 pertsona).**

Horiek ere 50 urte bitarteko pertsonak izan dira, eta aintzat hartuz elkartegintzan parte hartzen duten edo ez. Elkarrizketatu batek parte hartu du elkartegintzan.

✓ **Jatorri *mistoko* gurasoak dituzten donostiarrak (elkarrizketa 1, 2 pertsona).**

Jatorri mistoko gurasoez ari garenean, zera esan nahi dugu: gurasoetako bat euskal jatorrikoa izatea eta besteak Espainiako Estatuan izatea jatorria. Horretaz gain, 35 urte baino gutxiago izatea bilatu dugu, eta horietariko batek elkarteren batean parte hartzea.

Laburtuz, honela banatuko dira elkarrizketa sakonak:



EZTABAIDA TALDEARI DAGOKIONEZ, HONELA BANATU DIRA PARTE HARTU DUTEN HERRITARRAK (6 GUZTIRA)

Eztabaida taldea: Euskal Herritik kanpo jaiotakoak eta Euskal Herrian jaiotakoak

Taldearen barne-osaketa aldagaiz aldagai:

	Adina	Sexua	Maila sozio-ekonomikoa	Jatorri etniko-linguistikoa	Parte hartze soziala
1 TALDEA	30-65	Heterogeneoa	Heterogeneoa	Euskal Herritik kanpo jaiotakoak+ Euskal Herrian jaiotakoak	Heterogeneoa

LANDA-LANA

Landa-lana 2013ko urtarrilaren 24a eta martxoaren 7a bitartean egin da.

ELKARRIZKETA SAKONEN ETA EZTABAIDA TALDEEN EZAUGARRI ZEHATZAK BILTZEN DITUZTEN TAULAK

Ondoren ageri diren tauletan laburbildu ditugu elkarrizketatu ditugun herritarren ezaugarriak zein diren. Jarraitu aurretik, argi utzi nahi dugu honako hau:

- Ezaugarri horien zehaztasun maila parte hartu duten herritarren anonimotasuna ziurtatzeraino iristen da, ez gehiago.
- Bestalde, elkarrizketa sakonen erabilera, neurri batean, heterodoxoa izan da hainbat elkarrizketetan. Izan ere, elkarrizketa horietan bikote bat elkarrizketatu dugu, pertsona bakarra izan beharrean.

Txostenean, elkarrizketetan eta talde eztabaidan parte hartu dutenen hitzak erabili ditugu gure baieztapenen euskarri. Iritzi bakoitzaren alboan ipini dugu zein elkarrizketaturi dagozkion hitzak. Aipamen hori egiteko garaian, datu bat ematen dugu: elkarrizketaren zenbakia. Informazio hori osatzeko beharra izanez gero, taula honetara jo dezake irakurleak. Hortxe bilatu ahal izango ditu elkarrizketa bakoitzaren ezaugarriak.

Eztabaida taldeei dagokionez, taldeari egin zaio erreferentzia aipuetan, ez taldekide bakoitzari. Beraz, kasu horretan, ez dago partaide bakoitzak esan duena eta perfil konkretuaren arteko lotura egiteko aukerarik.


✓ Elkarrizketa sakonak

ZK.	HIZKUNTZA	SEXUA	IZAERA
ES0	Gaztelera	Gizonezkoa	Jatorri errumaniarra duen donostiarra
ES1	Gaztelera	Gizonezkoa	Jatorri pakistandarra duen donostiarra
ES2	Gaztelera	Emakumezkoa	Jatorri ekuatoriarra duen donostiarra
ES3	Gaztelera	Gizonezkoa	Jatorri marokoarra duen donostiarra
ES4	Gaztelera	Emakumezkoa	Jatorri alemaniarra eta mexikarra duten bi donostiar
ES5	Euskara	Gizonezkoa	Jatorri irlandarra duen donostiarra
ES6	Gaztelera	Gizonezkoa	Espainiar estatuko jatorria duen migratzailea eta haren seme donostiarrak
ES7	Euskara	Gizonezkoa	Irakaskuntzaren eremuan lan egiten duen donostiarra
ES8	Gaztelera	Emakumezkoa	Gizarte gaietan aditua den eta jatorri

			argentinarra duen donostiarra
ES9	Euskara	Emakumezkoa	Guraso mistoak dituzten bi donostiar gazte
ES10	Gaztelera	Gizonezkoa	Migratzaile espainiarren semea den donostiarra
ES11	Euskara	Gizonezkoa- emakumezkoa	Donostiar nerabeak
ES12	Gaztelera	Gizonezkoa	Ijitu etniakoak diren bi donostiar
ES13	Gaztelera	Emakumezkoa	Espainiar estatuko jatorria duen migratzaile donostiarra

✓ **Eztabaida taldeak**

ZK.	ADINA	SEXUA	IZAERA
ET1	30-45	Emakumezkoa	Donostian jaiotako langile donostiarra
ET2	45-65	Emakumezkoa	Etxeko andrea den espainiar migratzaile donostiarra
ET3	30-45	Emakumezkoa	Hego Amerikan jaiotako eta ardura postu batean dagoen donostiarra
ET4	30-45	Gizonezkoa	Shengen akordioaren barneko herrialde batean jaiotako donostiarra
ET5	45-65	Gizonezkoa	Donostian jaiotako langabetu donostiarra
ET6	45-65	Gizonezkoa	Euskal Herrian jaiotako funtzionario donostiarra





**-AZTERLANAREN TESTUINGURUA-
GLOBALIZAZIOA, MIGRAZIOA, ANIZTASUNA ETA
ESTATURIK GABEKO NAZIOAK**

ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA DONOSTIAN:
DISKURTSOAK ETA HAUTEMATEAK, 2013

Globalizazioa, mundializazioa eta gisako kontzeptuak hitzetik hortzera entzun eta erabiltzen dira azken bi hamarkadetan. Ez dira, ordea, hutsetik gabe sortu; izan ere, 60ko hamarkadarako jada informazioaren gizarteaz hausnartzen zenbiltzan teorikoak "herrixka globalaz" (Marshall McLuhan) hitz egiten hasiak ziren. Dena dela, 90eko hamarkadara arte ez da nabarmentzen izaera ekonomikoa, teknologikoa, sozial eta kulturala duen fenomeno hau.

Globalizazioa, beraz, komunikazioaren eta elkarrekiko mendekotasunaren hazkundean oinarritzen den prozesu ekonomiko, teknologiko, sozial eta kulturala da. Planeta osoko eskalan gertatzen da, eta merkatu, gizarte eta kulturen bateratze indartsu bat sustatzen du, zenbait eraldaketa sozial, ekonomiko eta politikoren eskutik.

Itzal eta eragin ekonomiko nabarmena izan duen globalizazio prozesu honek mugarri batzuk izan ditu. Batzuk aipatzearren, gogoan izan behar ditugu 80ko hamarkadan Thatcher eta Reaganek sustaturiko politika ekonomiko "berriak". Eta Berlingo harresia erorita, nagusitu den globalizazio eredu honek ez zuen oztopo askorik izan planeta osora prozesu horren ondorioak barreiatzeko.

Globalizazio prozesu honen barnean ulertu behar da herrien arteko ezberdintasun ekonomikoak handitu izana. Zehazki, hego eta ipar hemisferioen arteko ezberdintasunak handitu izana, baten aberastasuna eta bestearen pobrezia elkarri lotuta daude eta. Horrek guztiak ekarri du hego hemisferioko pertsonen migrazio mugimenduak kuantitatiboki handitzea eta denboran azkartzea. Horren emaitza da ekonomikoki garatuago dauden herrietara joan izana hego hemisferioko pertsonak, Europara, adibidez, eta Europan, Euskal Herrira.

Alabaina, globalizazio horrek ekarri ditu beste ondorio batzuk ere. Ondorio kulturalak, esate baterako, non asko indartu diren bateratze eta uniformizatze joerak. Korrante uniformizatzaile indartsu horri aurre eginez edo, modu paraleloan tokian tokiko identitate kolektiboak indartu egin dira, tartean identitate nazionalak. Euskal Herrian kokatuz, hor daude kultura estandar batek sor dezakeen uniformizazioaren arriskuak, eta hor daude, halaber, globalizazioak bultzaturik gurera etorri diren bizilagun berriak. Hainbat jatorri eta kulturatako bizilagunak izaki, erronka berri bat nabarmentzen da: aniztasun hori jendarte hausturarako tresna izan ordez, jendarte kohesiorako elementua bilakatzea.

Horrenbestez, globalizazio horrek ekarri dituen ondorioek erronka berrien aurrean jarri dituzte kolektibitateak eta herriak. Alabaina, ezin ukatu erronka horiek ez diela modu berean eta sakontasun berarekin eragiten estatu burujabea duten herri eta nazioei –bermatuta baitituzte gutxieneko kudeaketa-tresnak- eta estaturik gabeko herri eta nazioei. Hau da, tresna estrategiko hori ez duten herri eta nazioen aldean, estatua duten herriek egoera hobea dute prozesu horien bilakaeran, emaitzetan eta ondorio on nahiz txarretan eragiteko.

Bestela esanda, oraingo egoera historikoan, joan-etorriak, migrazioak eta, horien ondorioz, aniztasuna areagotzea erronka bat da elkarbizitzari dagokionez, baita gure gizartean ere. Gure herri eta auzoetako aniztasuna jendartean kohesio elementu bilakatzeko, aniztasun hori egoki kudeatu behar da. Aniztasun hori egoki kudeatzea ez da eragile bakar baten ardura edo erronka, are gehiago, hanka motz geratuko litzateke eragile guztiek (administrazioak, elkarteek, herritarrek...) antzeko norabidean indar egingo ez balute.

Aniztasuna egoki kudeatzeko, beraz, zera behar da: eragile guztiek oinarrizko adostasun bat izan dezatela aniztasunaren fenomenoak kokatzeko orduan. Baina horretaz haratago, behar da aniztasunaren elkar ezagutzan eta aitortzan oinarritutako politikak sustatzea ere. Aniztasuna balio positibo moduan sustatuko duten politikak, eta pertsona guztien -edozein jatorri duela ere- aukera berdintasuna eta desberdintasunerako eskubidea bermatuko dituztenak.


Azterketa honen helburuak zeregin horietan kokatzen dira. Izan ere, aniztasunaren fenomenoaren inguruko oinarrizko adostasun hori sustatze aldera, donostiarren diskurtsoak aztertuz, adostasun edo bat etortze horretarako aukerak eta oztopoak aztertu nahi ditugu. Eta, era berean, pertsonen eta kulturen elkar ezagutzan eta aitortzan oinarritutako politikak bultzatzeko heldulekuak ere arakatu nahi ditugu, besteak beste.

1

MIGRATZAILE BERRIAK¹ DIREN DONOSTIARRREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK

Donostiarren artean, datu orokorrak kontutan harturik, **hirian bertan jaiotako en kopurua nahiko altua** da. Herritarren ia hamarretik sei (% 57,5) Donostian bertan jaiotakoa da. Hego Euskal Herrian jaiotakoak dira donostiarren hiru laurdenak (% 75,6). Donostian erroldatutako gainerako % **24,4a Hego Euskal Herriko mugetatik kanpo jaiotakoa** da. Multzo honen barruan, jaioleku kopurutsuena, besteen erabat gaineratik, Espainiar Estatuko gainerako herrialdeek osatzen dute (%18). Estatu espainiarretik kanpoko herrialdeetako migratzaileek populazioaren %9,6a osatzen dute.

DONOSTIARRAK JAIOTZA LURRALDEAREN ARABERA



Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012

¹ *Migratzaile Berriarekin* azken urteetan Euskal Herrira etorri diren eta Espainiar Estatutik kanpoko jatorria duten pertsona migranteei egiten zaie erreferentzia. Kontzeptua bera eta honen inguruan egiten den eraikuntza soziala 2. atalean azaltzen da modu sakonean.

Espainiar estatutik kanpoko jatorria duten migratzaileen jatorriari erreparatuta **talde handiak** osatzen dituzte **hego eta ertamerikar jatorria** dutenak, eta kopuru handi batean ere **Frantziar estatua, Argentina, Maroko, Portugal eta Errumaniar** jatorria dutenak direla ikusten da. Ondorengo taulan 30 estatu esanguratsuenen hurrenkera azaltzen da.

1.Taula: Euskal Herritik kanpo jaiotakoak, estatuz estatu

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Espainiar Estatuko gainerako herrialdeak	27.793	60,7
Kolonia	1.409	3,1
Ekuador	1.362	3,0
Nikaragua	1.133	2,5
Honduras	1.100	2,4
Frantziar Estatua	1.039	2,3
Argentina	962	2,1
Maroko	775	1,7
Portugal	622	1,4
Errumania	601	1,3
Brasil	507	1,1
Bolivia	504	1,1
Ukraina	498	1,1
Txina	493	1,1
Dominikar Errepublika	463	1,0
Peru	447	1,0
Venezuela	412	0,9
Kuba	411	0,9
Erresuma Batua	406	0,9
Alemania	400	0,9
Italia	339	0,7
Mexiko	337	0,7
Errusia	329	0,7
Estatu Batuak	302	0,7
Txile	257	0,6
Paraguay	182	0,4
Argelia	176	0,4
Bulgaria	170	0,4
Mongolia	168	0,4
Uruguai	166	0,4
Guztira	45.755	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012

Azken hamarkadetan etorritako pertsonak dira batez ere, immigrazio "fluxu berriak". Eta datu demografikoei erreparatuta biztanleriaren adin egitura gaztetzeara eragiten dute, jende nahiko gaztea izan ohi baita (kasu askotan haur edo gaztetxoekin).

Halaber, **guztira 142 estatu ezberdinetan jaiotako herritarrak** daude errolatuta Donostian. Kultur aniztasuna beraz bermatua, jarraian migratzaile berri hauen hautemate eta diskurtsoak aztertzen direlarik.


1.1 MIGRATZAILE BERRIAK DIREN DONOSTIARREN BIZITZA PROIEKTUEN ZERTZELADA OROKORRAK

Espainiako Estatz kanpoko jatorria duten donostiarren hautemate eta errepresentazio sozialak kokatze aldera, interesgarria da pertsona horien oinarrizko bizitza proiektuaren zutabe batzuk aurkeztea. Izan ere, bizitza proiektuak eskaintzen duen kokapen orokor horretatik hobeto ulertzen dira pertsona horien hautemateak.

Bizi proiektua pertsona batek bere existentziarako markatzen duen norabidea da. Bere baloreen baitan, bere beharrak ase eta desioak betetzeko garatuko dituen ekintzek osatzen dute proiektu hau. Bizi proiektuak, aukera eta norabide batzuei heldu eta beste batzuk baztertzea suposatzen du.

Pertsona horien bizitza proiektua eraikitzeko orduan, pertsona gehienekin gertatzen den modura, oinarrizko zutabe batzuk antzematen dira:

- ✓ **Batetik, oinarri edo zutabe materiala**, hau da, bizimodu duin bat eramateko pertsona orok ase behar dituen behar materialak.
- ✓ Bestetik, oinarri materialaz haratago, **oinarri edo zutabe kulturala** dugu, hau da, behar materialak aseta, norbanakoaren bizitzari talde edo komunitate kokapen bat ematen laguntzen duten elementu kultural sinbolikoak. Horretan, talde/komunitatearen barruan, kode komunak daude bizitza indibidualak nahiz kolektiboak ulertzeko.
- ✓ Eta, azkenik, **harremanen zutabea**.



Hiru euskarri horiek garrantzi nabarmena dute bizitza proiektua eratzeko garaian. Ildo horretan, globalizazioaren testuinguruan eta mugikortasunaren aro berri honetan, pertsona horiek **migrazio proiektu bati ekin diote**, horretara **motibazio ezberdinek bultzatzen dituztelarik**. Motibazio hauen artean aurkitzen dira besteak beste: motibazio ekonomikoak; garapen pertsonalarekin loturikoak; esperientzia profesionalen hobekuntza bilatzea; arrazoi politiko, ideologiko, erlijioso edo genero eta sexualitatearen ondorioz jatorriko herrialdeetatik atera behar izana.

Elkarrizketatuen artean bi izan dira nagusiki aipatu dituzten motibazioak, ekonomikoak eta garapen pertsonalarekin lotuak.

✓ **Motibazio ekonomikoa:**

Gehiengo baten kasuan motibazio ekonomikoa erdigunean kokatzen da. Migrazio proiektua hasten dute jaioterrian bizitza proiektuari eusteko beharrezkoa den euskarri materiala lortu ezin dituztelako, edota beste herrialdeetan euskarri materialak lortzeko erraztasuna izango dutela uste dutelako.

✓ **Motibazio kulturala, garapen pertsonala:**

Motibazio ekonomikotik haratago, badira beste motibazio batzuk bultzatutako pertsonak, jatorrizko herrietan euskarri materialak lortzeko zailtasunik izan ezean, **migrazio proiektua norberaren garapenerako baliagarria izango zaion esperientzia bezala bizi dutenak**. Denbora bat hartzeko esperientzia bat bizi beste herrialde batean, mundua ezagutzeko edo eta hizkuntzak lantzeko.

Aipatzekoa da motibazioarekin bat familia eta harreman sareek daukaten garrantzia, motibazioan eta proiektu migratorioari ekiteko garaian eragin nabarmena baitu.

Edozein kasutan, eta motibazio moten gaiari berriro ere helduz, batzuen eta besteen abiapuntua ezberdina da. Migrazio proiektua, egiten diren hautuak, baloratzen diren aldagaiak eta honen inguruko bizipena erabat baldintzatuko duen aldagaia da.

1.2 MIGRAZIO PROIEKTUEN IBILBIDEA

Azken hamarkadetako migratzaile berrien migrazio proiektuen ibilbideetan arreta jarriko da azterlan honetan. Jarraian, ibilbide horien ezaugarriak aurrez zehaztutako migrazio proiektu horien testuinguruan azaltzen dira:

A. NORA EMIGRATU ETA ZERGATIK EUSKAL HERRIA/ESPAINIA

Aniztasunaren testuinguru honetan anitzak dira ere migrazio proiektuaren jomuga Euskal Herrian jarri izanaren arrazoiak. Bi taldeetan banatu ditzakegu, Euskal Herrira etortzea aukera kontzientea edo zorizkoa izan diren kasuak bereiziaz.

✓ **Euskal Herrira etortzea aukera kontziente bat** izan denen kasuan **bi azpitalde** bereizten dira, migrazio proiektuari hasiera emateko **motibazioaren arabera:**

- **Motibazio ekonomikoa oinarrian duten migratzaileen kasuan: Euskal Herria leku oparoa**, aberatsa dela irudikatzen da. Jatorriko norbaitek ala lagun batek hitz eginda, inoiz entzun dena edo dei efektuaren ondorioz, bizitza hobego baten bila etortzen dira.

"Entonces, yo en mi país ganaba alrededor de... 200 eur, 200 dólares mensuales y era un sueldo bien. Cuando yo vine acá y tenía compatriotas míos que trabajaban en casas, empleadas de hogar, de... o cuidando niños o lo que sea, y ganaban 500, 500 euros. Bueno era en pesetas en ese tiempo. Entonces era 500 dólares más o menos en mi moneda. Entonces yo decía, si yo de profesional gano 200 y ellos aquí ganan 500, entonces eh,... Hice mis cálculos y todo... Y..." ES_2

- **Motibazio ekonomikoa ardatz ez den kasuetan:** lan egiteko aukera suertatzeaz gain badira balorazio horretan kontuan hartzen diren beste aldagaiak ere. Euskal Herria giro atsegina, kultura eta hizkuntza berezi bat duena herri gisa ere irudikatzen da. Nolabait esateko, **herri oparo eta aberatsa bizi kalitateari dagokionez.**

"Bueno al principio yo solamente me quería relajar! jaja! Y hacer nada y buscarme la vida, disfrutar la vida en este entorno, con la playa... En esta ciudad tan preciosa. Cuanto antes... Los primeros tres meses casi no hice nada." ES_4

- **Hirugarren kasu bat badago.** Motibazio ekonomikoak bultzatuta lan egiteko herri oparo gisa irudikatzen da. Baina bestalde, literaturaren eremutik Euskal Herriaren inguruan jaso den informazioa frogatzeko desioarekin etorri da. Hau da, buruan egindako irudikapena errealia den ala ez frogatzeko motibatuta gerturatzen da Euskal Herrira.

"la razón es que yo soy Bereber, soy Bereber yo. Una vez ley un libro que se titulaba, aquel libro que se titulaba los Guanches, los Bereberes, los Egipcios y los Vascos.que ese libro se escribió en un idioma que parecía a la del euskera, o sea el Bereber antiguo y el euskera antiguo parecía. Hay una letra o dos diferentes. Pues, yo siempre he tenido la idea de venir no, cuando yo leo ese libro, me hago la idea, bueno voy a ver." ES_3

✓ **Euskal herrira etortzea zorizkoa izan denen kasuan:**

- Bikotekidearen jatorria izatearen ondorioz ezta pentsatu jomugan aukera konziente bezala: bikotekidearen jatorrizko herrialdea ala bikotekideak dagoeneko bertan lan egiten zuelako bertaratu dira, nolabait esanda, **bateratze familiarrak eta maitasunak horrela eramanda.**

"vine aquí realmente porque mi marido ya vivía aquí, y en 2005 yo llegue a San Sebastian en 2005. Entonces pues bueno... era la idea de vivir juntos y ver si el proyecto de vida que queríamos iniciar funcionaba." ES_4

B. ZER EZAGUTZEN DA EUSKAL HERRIAZ?

✓ **Euskal gatazka politikoaren inguruko ezagutza**

Migratzaile berrien kasuan erreferentzia estatu espainiarrarena da. Euskal Herrira iritsi aurretik, Espainiara edo asko jota 'Espainia iparraldera' mugitzen direnaren irudia dutela jaso da guztien hitzetan. **Askok onartzen dute aurrez zuten informazioa ia bakarra ETA erakundearen inguruko zerbait zela.** Ildo horretatik, oraindik orain, Euskal Herriko mugetatik kanpo ematen den irudia gatazkaz beteriko eta ziurtasun falta handi bat sentiarazten duen herrialde batena dela adierazi du gehiengoak.

Yo tengo una amiga que conocí en Inglaterra, que cuando yo le dije que venía a vivir al País Vasco-ella es de Granada-, o sea me dijo: "No te vayas!! Es que tú no sabes lo que está pasando allí!! Todo el problema político! O sea, se cobra el impuesto revolucionario, se cobra el!". O sea, fue como... Estaba aterrada de que me venía a vivir aquí. Hace dos años vino a pasar dos meses porque quería desconectar y este año ha vuelto a repetir otros tres! Y si pudiera me dice: "Me vengo a vivir aquí!". ES_4

✓ **Euskal Herriaren inguruko ezagutza maila motibazioaren arabera**

Euskal Herriaz dagoen aurretiko ezagutza maila ere motibazioarekin lotua dago.

- **Motibazio ekonomikoa eta lana aurkitzea ardatza** izan denen kasuan aipaturiko erreferentziaz gain, **aldez aurretiko ezagutza oso eskasa** da. Ez dago hizkuntza bat dagoenaren ezagupenik, eta zerbait jakitekotan familiarteko batek kontatutakoagatik izan ohi da.
- **Motibazio ekonomikoa ardatza ez den kasuetan** ezagutza maila handiagoa da. Beste interes batzuk izateak informazio gehiago bilatzera eramán dituzte. **Hizkuntza ezberdintasuna, klima eta kulturaren inguruan informazio franko** dute iritsi baino lehen.

"CONOCIAIS LA EXISTENCIA DE OTRO IDIOMA ANTES DE VENIR AQUI?"

R2: Si.

R1: Si, yo sí, sí, sí.

R2: Pero mucha gente... Claro yo ya sabía, pero mucha gente en Alemania también

pregunta: "Pero es un poco como español?". No, no es.

R1: Es como ruso!

R2: Si ellos piensan como un poco un dialecto. "Bueno si tu puedes hablar castellano puedes hablar vasco". No." ES_4

C. ZEREKIN AURKITZEN DIRA BEHIN EUSKAL HERRIAN

Iritsi berritan zerk inpaktatu dituen galdetxean erantzunak anitzak izan dira: klimak, itsasoak, hondartzak hiri erdian, hizkuntza berri bat entzuteak, ume gutxiko parkeak... Lehen inpresio horretaz gain, egun batzuk igaro ostean hartzaile den herrialde horretako elementu ezberdinak deskubritzen joaten dira, norberaren aurreikuspenaren arabera arlo ezberdinetan talkak sentituz:

- ✓ **Inpaktu bisuala:** paisaia ezberdina, menditsua, hondartza eta itsasoa, etxeak antolatze modua...
- ✓ **Inpaktu ambiental:** klima ezberdintasuna, hotza, hezetasuna, eguzkia ala argia...

"yo llegué en Octubre, Noviembre... aquí en San Sebastián, más o menos por Noviembre. Y hacía muchísimo frío y no... y en mi país no hace tanto frío. Entonces es un choque bien fuerte" ES_2

- ✓ **Talka kulturala:** ezberdintasunak hizkuntza aldetik, harremanak bizi eta sortzeko moduan, komunikazio estiloan, ohituretan, jokaeretan, etab.

"El idioma yyyy y un poco a la gente. La gente aquí, está acostumbrada a sus cuadrillas, todos... entre las cuadrillas. Y es difícil... es difícil romper ese, ese círculo ¿no? Entonces... Veía muchas cosas. Me llamo la atención ver tantos parques, es una ciudad muy bonita, tantos parque vacíos sin niños..." ES_2

- ✓ **Gauzak egiteko modu ezberdinak eta sistema instituzional eta administratibo berriak.** Gizarte segurantzaren funtzionamendua, mugikortasun aldetik aukera ezberdinak, informazioa bilatzeko modu ezberdinak, ordaintzeko sistemak, burokrazia...

Modu ezberdinetara bizi da eta inpaktu ezberdina du jatorrian dagoenarekin egiten den konparazioaren arabera. Edozein kasutan **erreferentzia den jatorriko herrialdearekiko konparaketan gauza ezberdinetan erreparatzen joaten dira**. Honen arabera gizarte honetan aurki ditzaketen baloreak eta ezaugarrien aurrean bizipena ezberdina da. Honen adibide garbia aurki genezake honako aipuan: Emakume latinoarentzat euskal gizartea hotza, disziplinatua, langilea eta metodikoa da. Europako emakumeari aldiz, horrek ez dio arreta deitzen.

"R1: A mi se me hicieron un poco herméticas. O sea, muy hermética, gente que le costaba mucho... obviamente también es cultural, en mi país también se expresan mucho los sentimientos. De repente también la gente es como muy disciplinada. Valga la redundancia me parecieron muy alemanes! Ja ja ja! Es de broma. Pero si me parecieron muy como... Muy metódicos. O sea, había venido a España antes y yo creo que ya había venido a vivir también... O sea, eso fue igual mis impresiones cuando venía, no? De vez en cuando, eso sí, como que eran muy metódicos. Se me hizo gente muy trabajadora. Desde el primer momento gente muy trabajadora. Eso sí, fue algo que note. O sea, las mujeres en... Porque siempre me gusta ir a los mercados a ver la gente local. Y veías a las mujeres cargando cajas y con sus puestos y... No se, se me hizo una sociedad trabajadora. Había cosas que... bueno..."

R2: Bueno, normal para mí, como la nuestra, ja ja ja!" ES_4

D. ZERK LAGUNTZEN DIE IRISTEAN: HARRERAREN GARRANTZIA

Iristean eta euskal gizartean kokatzeko unean harrera garrantzitsua da. Harreraren inguruan aurki daiteken kasuistika anitza da. Baina edozein kasutan, **harrera horretan funtsezkoa harreman sarea da.**

Harreman sarea osatzen dute lehenagotik egindako kontaktuak eta hasierako urratsetan eraiki direnak. Hortik aurrera sarea modu ezberdinetan eraikitzen da.

Lehen kontaktuak askotan migrazio proiektua hasi baino lehenago sortuak daude: badago oinarritzko kontaktu bat jatorrizko herrialdeko norbaitekin, familiarreko norbaitekin ala euskal herritarren batekin. Kasu horietan, harrera informal hori lagungarria zaie erabat, lehen iriste momentuaz gain, ondorengo egunetan beharrezkoa den informazioaren erreferentziak emateko aukera zabaltzen baitute (erregistroak non kokatzen diren, etxebizitza lortzeko informazioa, administrazioaren funtzionamenduaren inguruko informazioa ...)

"Pero sí que en ese momento eso, me facilito mucho el tema de ir entendiendo un poco como funcionaban las cosas, el hecho de que hubiese una persona de aquí que me dijese pues bueno "vete a" ES_8

✓ ELKARTEGINTZAREN GARRANTZIA

Harreman sare horietatik jasotzen den informazioaz hitz egiten denean **elkarteei egiten zaie batez ere erreferentzia. Administrazio lokalak eskaini ditzaken zerbitzuei ez zaie aipamen berezirik egiten** hasiera batean. Beste behin behar den informazioaren inguruan ezberdintasunak daude jatorriaren arabera. Askok, egoera erregularizatzea (erresidentzia eta lan baimenak eskuratzea) dute lehentasuna. Kasu horietan gehienek aipatzen dituzten elkarteak dira:

- SOS arrazakeria
- Caritas

Elkarte horietaz gain ere nolabait jatorri konkretu batzuekin loturiko elkarteak aurki daitezke. Orokorrean ondo baloratzen diren zerbitzuak dira, kokatzerako momentuan lagungarriak izan zaizkienak.

"Y entonces ahí fuimos a SOS, que nos habían comentado, mi colega también me dijo, yo tengo una amiga que hace voluntariado en SOS y tal, y allí ayudan a la gente a regularizar y tal, entonces fuimos ahí y en ese momento estaba xxx y ella nos atendió súper bien. Y bueno, llamando a extranjería y tal, no sé qué, y bueno nos facilito todo el tema..." ES_8

E. MIGRAZIO PROIEKTUAN ERAGIN GARBIA FAMILIAK

Migratzaile berrien artean askorentzat (batez ere komunitarioak diren kulturetatik datozen pertsonen kasuan eta motibazio ekonomikoak garrantzia handia izan duenean) **bizi proiektuan familia ardatza da**, garrantzia handia du.

Jatorrizko herrialdearekiko harremana eta lotura familiaren bitartez mantentzen da. Era berean familia Euskal Herrian izateak bizi proiektuan eta hortaz, migrazio proiektuan garbi eragiten du.

Askotan migrazio proiektuan familia zabalaren egoerak baldintzatzen du. Batzuen kasuan, familiaren egoera ekonomikoari aurre egiteko ideiarekin ekiten zaio migrazio proiektuari. Euskal herrira etortzean, hemen irabazten denaren kopuru bat ere bertara bidali behar izaten da. Horrek beraien bizi kalitatean eragina dauka, aurrezte ideia hori buruan uneoro presente baitute.

F. NOIZ ARTE EUSKAL HERRIAN?

Migratzaileen migrazio proiektuaren barruan nonbait **beti presente dagoen aldagaia da jaioterrira bueltatzeko hautua**, eta horrela balitz, zein epetan. Horrek guztiak garrantzia handia dauka, bai migrazio proiektua finkatzerakoan, bai euskal gizartearekin harremanak finkatzerakoan. Hautu horrek intentsitate gehiago hartzen du honako aldagaien arabera:

- Aldez aurretik egindako espektatiben asebetetze mailak: espektatibak ez badira betetzen, jatorriko herrialdera bueltatzeko desioa oso presente mantentzen da.
- Pertsonaren baldintza familiarrak: ezberdin baloratu daiteke egoera pertsonak bikotekidea badu, seme alabak baditu, seme alabak jatorriko herrialdean badaude.
- Jatorriko herrialdean dauden harremanak eta familiarekiko loturak.

Aipatzekoa da, sarritan proiektu migratorioari motibazio batzuk bultzatuta ekiten zaiola, ondoren erabat aldatzen direnak. Hau da, ezberdin beharko lirateke jatorriko herrialdetik ateratzea bultzatzen duten motibazioak eta herrialde konkretu batean geratzera bultzatzen dituztenak.

Horrela, gutxienez **2 multzotan sailka daitezke** proiektuak, betiere helburuaren arabera:

✓ BIZITZA PROIEKTUA JAIOTERRIAN KOKATZEN DUENA EPE ERTAIN-LUZEAN:

- Motibazio ekonomikoak bultzatutako kasuan, lorpen ekonomiko batzuekin bueltatu nahi duena jaioterrira, eta argi duena "abentura" hau baliatu nahi duela jaioterrian bizitza hobea izateko. Migrazio proiektua beraz inbertsio antzeko bat litzateke, etorkizun hobea bat bermatzera begira.
- Motibazio ekonomikoak bultzatu ez baditu ere, kasu batzutan adinez nagusitzen direnean etorkizuna beraien jatorriko herrialdeetan irudikatzen dute.

✓ BIZITZA PROIEKTUA HEMEN KOKATZEN DUENA ZALANTZARIK GABE:

- Oso loturik dago egoera familiarrekin. Familia ere hona iritsi izanarekin, seme-alabak hemen izan eta hazi izanarekin edo bikotekidea hemen osatu izanarekin.

1.2.1 INTEGRAZIOA BIDEAN ABIAPUNTUA, INTEGRAZIO SOZIO-EKONOMIKOA

Atal honen sarrera gisa, integrazioaren bideak zeintzuk diren azaltzen da. Hain zuzen ere, migratzailearen ikuspuntutik, hiru integrazio bide daude integrazioaren pertzepzio subjektiboa eratzeko:

1. **Integrazio sozio-ekonomikoa:** lan merkatuan eta gune urbanoan txertatzea.
2. **Integrazio kulturala:** kultura autoktonoaren ereduak jarraitzea, batez ere, hizkuntza autoktonoa.
3. **Integrazio politikoa:** euskal abertzaletasunaren helburu eta aldarriei atxikitzea.

Integrazio bidean halaber, eragin garbi bat dauka etortzeko motibazioak eta abiapuntuak. Aldagai honek, hasieran esan bezala, egiten diren hautuak, baloratzen diren aldagaiak eta honen inguruko bizipena erabat baldintzatzen baitu.

Abraham Maslow psikologoak pertsonen beharrezko piramidea eraiki egin zuen, non kategorien arabera beharrezko mota guztiak sailkatzen zituen.

Psikologo honen iritziz pertsona batek gizarteratze prozesua betetzen duen heinean, beste kide batzuekin harremanak ezarriko ditu eta bere mundua zabaltzen du, hau da, berarentzat ezezaguna den kanpo-errealitate batekin erlazio garrantzitsuak ezartzen ditu.

Autore honen teorian sakontzeko asmorik izan gabe, azpimarratu nahi dena da abiapuntua ezberdina dela migratzailearen egoeraren arabera:

- Motibazio ekonomikoak bultzatuta, lan gabe eta egonkortasunik gabe dagoen migratzaileak egingo dituen aukerak modu batekoak izango dira.

- Egonkortasun ekonomiko bat duen migratzaile batek egingo dituenak bestelakoak. Nolabait esateko, behar batzuk asetarik dauden garaitik aurrera integrazioa bidean beste aldagai batzuei erreparatzen zaie.

creo que también muchas veces tiene que ver con qué tipo, con la fase migratoria, en qué fase de tu... de cuáles son tus necesidades, yo misma las he pasado, claro yo ya tengo otras necesidades. Pero si me preguntases esto, no se once años atrás, igual cuando tenía la necesidad ya mas a empezar a entender un poco como funcionaban las cosas aquí, el tema de la vivienda, el tema de los papeles de mi marido o mis papeles, en el caso de que no los tuviera, quiero decir no, depende de la fase, el proceso migratorio tiene más o menos necesidades o puedes pasar a tener otros intereses... ES_8

Motibazio ekonomikoak dituzten migratzaileen kasuan behar materialak asetzea izaten da lehen erronka. **Erronka horiek** honelako bizi eremuetan multzoka daitezke:

- **Soldatapeko lana**
- **Etxebizitza**
- **Zerbitzu publikoa eta eskubide sozialak**



Motibazio ekonomikoak ardatz ez dituzten migratzaileen kasuan aldiz, eremu horietan ere beharrak asetzea behar bat izan daitekeen arren, bizipena bestelakoa da. Beraz, eremu hauetan posizionatzeko modua eta honekiko bizipena oso ezberdina da, egonkortasun ekonomiko batek ematen dituen aukerak ezberdinak baitira. Honela **harreman sozialak lantzeko aukerari heltzen zaio**.

- **Egoera legalak zehazten dituen ezberdintasunak jatorri ezberdinetako migratzaileen artean:**

Motibaziotik haratago ere badago beste aldagai garrantzitsu bat: egoera legalak zehazten duena. Honela, **lan mundura begira abiapuntu ezberdina daukate Schengen akordioaren parte diren herrialdeetatik datozenek**, edo eta akordio horretatik kanpo dauden europar batasuneko migratzaileek eta europar batasunetik kanpo datozen migratzaileek.

Halaber, europar batasuneko nazionalitatea izateak ez du bermatzen gauzak errazak izango direnik. Horretan ere zerbitzu ezberdinetan migratzaile berrien etorreraren aurrean aurki daitezkeen erresistentzien aurrean jartzen dira.

Eso también fue otra historia, cuando llegue en extranjería no me querían dar el N.I.E.. Y yo dije; "a ver si soy comunitaria", y me dice; "si pero eres extranjera". Y yo pero, a mi no me cabe la ley de extranjería, yo soy comunitaria y tal, pero me dice; "el N.I.E. te lo damos si tienes trabajo", y yo "pero para buscar trabajo necesito el N.I.E.". El cuento de... la pescadilla que se muerde la cola. Fíjate como conseguí el N.I.E., me fui a Bilbo, a la casa de la tía de xxxx, que vivía en Getxo, claro era Getxo, entonces me fui a extranjería y dije que quería el N.I.E., y cuando les dije que vivía en Getxo me lo dieron en un día. ES_8

Edozein kasutan, esanenez **puntu garrantzitsua dagoela migratzaile hauen migrazio proiektuan: Jatorriz honela ez denean, egoera legeztatzerako unean.** Egoera erregularizatua ez dagoen bitartean posizio subordinatu batean kokatzen dira integrazio sozioekonomikoari dagokionez.

- Ezin dute aldarrikapenik egin, beti beraien herrialdeetara bidali ditzaketaren mehatxupean bizi baitira.
- Etxebizitza eta lana lortzerako orduan inork baino zailtasun gehiago aurkitzen dituzte. Zerbait aurkitzekotan ere egoera oso prekarioetan.

Beste inflexio puntu garrantzitsua da seme alabak izan edo jatorriko herrialdeetan badaude, **EHra etortzeko momentua.** Inflexio puntua lan munduan suposatzen dituen aldaketak (disponibilitate gutxiago, ardua gehiago ...) eta etxebizitzan izan dezaken eraginengatik batik bat (familia biltzeko gune bat izatearen nahia, interna dauden kasuetan kanpoan beste espazio bat bilatzeko beharra sortzea ...).

A. SOLDATAPEKO LANA

✓ MOTIBAZIO EKONOMIKOA ARDATZ DENEAN

Motibazio ekonomikoa ardatza denean **soldatapeko lana da integrazio sozioekonomikoaren giltza. Baina** giltza bada ere, **ez da nahikoa.** Kasu askotan ez du segurtasuna bermatzen, baldintza duintasun batean bizitzeko aukera ematen. Izan ere, kasu askotan lanean ari dira, baina soldatarekin ezin dira ase oinarritzko beharrak.

Azken hamarkadetan izan diren lan erregulazio gehientsuenek aldatu egin dituzte langileen lan baldintzak. Aldaketa horiek sakondu egin dute lan harremanen botere asimetria eta lan baldintzen aldaketak modu berezian eragin dute batzuetan eta besteetan. Kaltetuenen multzoan, besteak beste, emakume eta migratzaile berrien multzo zabala dago.

Shengen akordioaren parte diren herrialdeetatik datozen migratzaileen kasuan, lan egiteko baimena bermatua dute. Horrela ez denean lehen erronka egoera erregularizatzea da, lan mundura sarbidea izatera begira. Eta horrek sekulako prozesua eta zailtasuna sortzen du gehiengo baten kasuan. Lehen inflexio puntua suposatzen du beraz.

Gauzak horrela, oztopoz beteriko lan ibilbidea bizi dute, lan jakin batzuetan eta baldintza okerretan, diskriminazioa eta egiten duten lanaren aitortza falta sentitzeraino.

▪ EDOZEIN LAN, EDOZEIN PREZIOTAN

Hasierako momentuetan **helburua lana egitea da, besterik ez**. Ez da lanaren kalitatean eta baldintzetan erreparatzen, batzuetan ez da horretarako eskubidea dagoenik ere pentsatzen.

Lan baten behar horrek, erregularizazio egoerak baldintzatuta edozein baldintzetan lan egitera behartu ditu; sarritan kontraturik gabe eta baldintza benetan prekarioetan.

Lan baldintzez gain, sarritan beraien kondizio horiek onartzea besterik ez zaie geratzen, jatorriko herrialdeetara bidaliko dituztenaren mehatxupean baitaude uneoro.

"hay mucha gente que está trabajando mucho por poquísimo sueldo y encima están amenazados por los jefes porque les dicen que ellos como no tienen papeles pues que no pueden hacer nada. Yo te puedo denunciar y que te regresen a tu país. Encima los tienen amenazados." ET

▪ O-TIK HASTEN DEN IBILBIDE PROFESIONALA

Lan gabe etortzen direnen kasuan, sarritan onartu beharreko **lehen urratsa birziklatze profesionaletan aurkituko dituzten zailtasunen onarpenetik**

dator. Nolabaiteko 'dolu' bat dago identitate profesionalaren esparruan. Etorkizun laboralaren proiektzioan mugak ikusten dituzte.

Aldagai batzuk (hizkuntza bat edo beste menperatzea, jatorrizko herrialdean ikasketak izatea ...) birziklatze horretan lagundu dezaketen arren, hainbat esparrutan sarbidea benetan zaila izango dela onartzen da ia hastapenetatik.

Ikasketak izan arren, titulazioen konbalidazioen zailtasunarekin ere aurkitzen dira sarritan. Tramitazio luzeak, ikasketen errekonozimendu falta. Migratzaileak Euskal Herrian etorkizuna proiektatzen badu esfortzu hori egitera animatuko dira. Etorkizun hurbila hemen proiektatzen ez den kasuetan ez dute esfortzua horretara bideratzen.

Zentzu honetan hainbat pertsonen kasuan iraganean egindakoak ez du isladarik. Ibilbide profesionalean EHra etortzeak apurketa suposatzen du beraz, eta ikasitakoa nolabait jatorriko herrialdean gelditzen da. Baina exigentziarik ez da jartzen lan eremuan eta onartutzat ematen da egoera hori. Ez hastapenetan behintzat.

▪ IDENTITATE PROFESIONALA ELKARTEGINTZARA BIDERATUA

Ez dira gutxi beraien **identitate profesionala denbora librean garatzen** jarraitzeko hautua egiten dutenak. Lan esparruan aurkitzen dituzten zailtasunak kontuan izanik, garapen profesionalaren bidea boluntario eta elkartegintza eremura trasladatzen dute. Honela, beraien lan arloarekin lotutako eremuetan etekina ateratzen diote besteak beste boluntario gisa elkarrekin lan egirik.

"Pero yo, sin embargo, lo quee, lo que yo sé... yo doy asesoría jurídica gratú, jeje, doy sólo asesoría, les asesoro aaa... legalmente, a mis compatriotas en la asociación donde estamos; les asesoro de manera gratuita, eso sí. Y yo les digo lo que tienen que hacer y a donde deben ir y allá les resuelvo. Es lo que hago. No practico miii, mi carrera, pero bueno, hago algo." ES_2

▪ SEXUAREN ARABERAKO LAN BANAKETA

Euskal Herrian, lanbide kualifikatuetan baino, beraien kondizio eta gaitasun fisikoekin lotutako lanetan aurkitzen dute sarritan sarbidea. Ez beti, noski. Administrazio publikoko lanpostuak migratzaile berrientzat itxita daudela irudikatzen dute. Sexuak ere markatzen du horretan diferentzia, batez ere hastapenetan:

Emakume batzuk ostalaritzan, baina gehienak eremu pribatuan aurkitzen dute sarbidea. Zaintza eremuan eta garbiketan. Latinoamerikarren kasuan, bi abantailaren eskutik:

- Batetik, gaztelania menperatzearen abantaila
- Bestetik, harreman sozialetarako euren kulturak ematen dien goxotasuna, ume eta helduen zaintzari begira.

Gizonezko gazteen kasuan indarrarekin lotutako lanetan: arrantzan, eraikuntzan eta lantegietan batik bat. Denbora bat pasatzen dela, zerbitzu sektoreari ere lotutako lanetan sarbide izaten dute.

Bizitza proiektuan epe luzera bere burua hemen kokatzen dutenen kasuan, gutxi batzuk ausartzen dira beraien kabuz lan egitera, negozio propioak jarritz, gehienetan ostalaritzarekin lotuak. Kasu hauetan batez ere gizonezkoak dira gehienak, nahiz eta emakume gutxi batzuk ere abentura horretan sartzen diren.

✓ MOTIBAZIO EKONOMIKOA ARDATZ EZ DENEN KASUAN

Motibazio ekonomikoa ardatz ez denean ibilbidea ezberdina da.

Batetik, egonkortasun eta ziurtasun ekonomiko batetatik, norberak izan dezakeen **ibilbide profesionalari beste puntu batetatik begiratzen zaio. Ez da aurrez egindakoarekin apurketa hain nabaria ematen.** Titulazioak dituztenen kasuan esaterako, Euskal Herrian hauen erabilera egiteko beharrezko tramitazioak burutzeko denbora hartzeko aukera izaten da.

Bestalde, kasu askotan, motibazio ekonomikoa ardatz ez duten pertsonak herrialde `aberatsetatik' etorri ohi dira. Eta hizkuntzek horretan beste sarbide bat ematen dute. Alemana, frantsesa edo ingelesa menperatzen den kasuetan hizkuntzen esparruan beti ere aukera bat zabaltzen da. Are gehiago azken urteetan hizkuntzen ezagutzak lan arloan aukerak zabaltzeko hartu duen garrantziaren ondorioz.

Ildo honetatik, beraiek ere kontziente dira migratzaile guztiak ez direla berdin begiratzen eta beraien kasuan pribilegiatuak direla lan mundura begira.

"...gero guk ere bai eta onartu egin behar dut, irlandar bezala edo inglesdun bezala pribilegioa da. Nik ez dut orain arte arazorik izan lanarekin, nahiz eta beste gauzak egiten. Eta ni naiz irakaslea eta ni naiz beste master bat, ikastaro bat egin nuen hemen UPVn para formación de profesores, eta horrelaxe, eta ez daukat arazorik lanarekin." ES_5

B. ETXEBIZITZAREN LORPENA

Etxebizitzaren lorpena egoera sozioekonomikoak eta lege egoerak baldintzatutako aldagaia da erabat. Motibazioarekin ere lotua dago, noski. Honela, etxebizitzaren aurrean ezberdin posizionatuko da diru babes batekin etorri den pertsona, ala kontratu bat egiteko aukera duena.

Edozein kasutan, atzerritarrei pisua errentan ematea kosta egiten da orokorrean, krisiarekin joera aldatzen ari den arren. Jabetza duen pertsonen aldetik konfiantza sentitzea hasiera batetatik ez da ohikoa izaten. Etxebizitza bat errentan hartzeko interesa azaltzen denean lehen galderetako bat "nongoa zara?" galdera burutzea da. Erraztasunik ez da jartzen beraz erantzuna kanpokoa zarela esatean.

Hortik aurrera jatorriaren arabera zailtasun gehiago jartzen zaizkie batzuei edo besteei, jabeak migratzailearen jatorriarekiko duen ikuspegiaren arabera. Jason diren diskurtsoetako adibideak berreskuratuz, alemaniar bati ala marokoar bati etxebizitzarako aukeretan jartzen zaizkien erraztasun edo zailtasunak oso ezberdinak direla hautematen da. Beraz, **oraindik orain, jabeen aldetik maizterrak duen egoera sozioekonomikoak baino jatorriari erreparatzen zaio.**

"bueno buscar la vivienda es muy complicau, muy complicau. Porque primero es caro, lo segundo es, si no conoces al chico que, o a la chica que te va a alquilar el piso o la habitación, si no te conoce no te puede alquilar si le dices que tú eres de Marruecos. Eso me ha pasau muchas veces, por ejemplo coges algún teléfono para llamar, y dices "oye que yo, me interesa esta habitación...", y decir "¿Cómo te llamas" y dices "xxx", suena un poco raro, "¿de dónde eres", "soy de Marruecos", "si es que he hablau con un chico... ya te llamare si no..."... Es un poco complicau." ES_3

Etxebizitzaren lorpena funtsezkoa da, behar hori aseta egon ezean ez dago beste ezertan pentsatzen jartzeko aukerarik. Honela, kalean denbora bat ematen duten migratzaileen kasuan, egun horretako lo lekua bilatzeak hartzen du garrantzia, lana aurkitu edo bestelako gaietarako denborarik izan gabe.

"uno se puede, éramos, descansar y al mismo tiempo pensar, como hacer para conseguir trabajo y para estudiar, para que uno tenga futuro no, tenga las cosas bien ordenadas. Porque uno cuando está en la calle no es lo mismo que uno está en un sitio y como y duerme. Tiene esas cosas seguras no, digamos. Uno cuando esta el la calle no puede pensar que va a hacer, solamente está buscando que va a comer y donde va a dormir. Luego cuando ya tiene la comida y donde dormir, luego ya piensa que va a hacer." ES_3

✓ EGOERA EKONOMIKOA ONA EZ DENEAN

▪ HASTAPENETAN EXIJENTZIA GUTXI

Egoera ekonomikoa ona ez denean edota egoera legala ez denean, etxearen lorpenera begira exigentzia oso gutxi jartzen dira. Kasu batzuetan jatorriko herrialdeetara dirua bidali behar izateak ere edozein baldintzetan egotearekin konformatzera eramaten ditu.

Ezberdina da, hori bai, etxebizitzaren lorpenera nola gerturatzen diren bikotean edo bakarrik, ala seme alabekin datozenen kasuan.

- Bakarrik edo bikotean datozen pertsonen kasuan:

Etxebizitzaren lorpenean funtsezkoa harreman sarea da, aldez aurretik familiako norbait ala ezagun bat izateak ematen duen aukera.

Ez da gehiegirik exijitzen, dagoenarekin konformatzen da: asko jota pisua konpartituta hasiera batean, gela bat alokatuz, eta kasu batzuetan lan lekuan bertan ahal den moduan.

"yo al principio dormía dentro, hay una oficina, y yo he limpiado bien y hecho la cama, dos años aquí. ¿Por qué? porque entonces aquí no le daba habitación y piso a un extranjero. Era muy duro, muy duro." ES_1

Zaintza eremuan lan egiten den pertsonen kasuan, eremu horretan sartzeari hautu bat bilakatzen da askotan. Modu honetara behar oinarrizko batzuk, horien artean etxebizitzarena aseturik izango da, nahiz eta trukean deserosotasuna eta lo leku batek "zure txokoa" izateko ematen dizun aukera zalantzan jarri.

"A la final, uno, uno cuando emigra seeee busca la manera de sobrevivir. Y bueno, yo me fui a trabajar interna en una casa, con una familia. Entonces, por lo menos así yo tenía... donde, donde vivir, eh, la alimentación y todo eso. Pero siempre uno, aunque esté en una casa, siempre es un extraño de fuera." ES_3

- Seme alabekin datozenen kasuan ala seme alabak dauden momentuan:

Lehen momentu batean edozer onartzen den arren, baldintza ekonomikoak hobetzen diren heinean etxebizitza arloan ere aldaketak ematen dira. Gero eta hobekuntza gehiago bilatuz, erosotasunera begira batez ere.

Después estamos trabajando los 2, en niño iba al cole... entonces, ya estábamos económica con un poco más estable y ya nos conseguimos un , un, una.. un pisito por Gros. Entonces, ya, ya, ya teníamos un piso; ya nuestra situación estaba más estable.ES_3

▪ EGOERA EGONKORTZEAN PLANTEAMENDU BERRIAK

Euskal Herrian egoera egonkortzen den heinean etxebizitza arloan ere aldaketak ematen dira, alokairuan egotetik etxebizitza erosteko planteamendua egiteraino.

Egoera ekonomikoarekin lotuta noski, baina etorkizuna hemen proiektatzen den heinean etxebizitza arloan ere beste egonkortasun bat bilatzen da. Honela, hasiera batean alokairuan egoteko joera dagoen arren, denborarekin babes ofizialeko etxebizitza baterako sarrera ala erosteko planteamendua izatera ere pasatzen dira (agian Euskal Herriko joera kulturala hori dela ikusita).

C. ESKUBIDE SOZIALAK

Eskubide sozialez, administrazio publiko ezberdinek eskaintzen dituzten hainbat zerbitzu publikoz (hezkuntza, osasuna ...), eta babes sozialeko neurriez gozatzeko eskubideaz ari gara.

Atal honetan migratzaile berriek dituzten hautemateak jasotzen dira:

- Herritarren eskubide sozialei buruz oro har
- Eta bereziki migratzaile berrien eskubideei buruz.

✓ ESKUBIDEAK UNIBERTSALAK DIRA ETA BERDINTASUN BATEAN KOKATZEN DUTE BERAIEI BURUA

Ikuspegi honen arabera norbanako gisa, eta jatorria edozein dela ere, beharrak aseturik izan behar ditugu. Horretarako aukerarik ez badago, estatuak eskaini behar dizkigu laguntzak. Laguntza horien aurrean pertsona guztien eskubide berdintasun bat aldarrikatzen da.

Herri batean bizi diren pertsonak, jatorriari garrantzia eman gabe, herrian ekarpena egiten dute, eta ez soilik lan egiten dutenean, baizik BEZa ordaintzean, erosketak egitean, etab. Nolabait esateko **ekonomia mugitzearen ardura ere badute. Beraz, beste edozein herritarrek bezala eskubide berdinak dituzte.**

yo creo que una persona si vive aquí, venga de donde venga, si vive aquí pues yo creo que tenemos los mismos derechos, porque yo pues contribuyo yo también, como contribuye uno de aquí, yo cuando voy a comprar un pan, yo contribuyo con ese pan que compro o patatas o tomates o café... yo pago. Pago el café, pero pago el I.V.A. del café. Pago patatas, pero pago el I.V.A. de patatas. Quien vive aquí, también cuando compra patatas paga, quien trabaja contribuye, yo también trabajo y contribuyo. Y los demás también, quiero decir que la gente que vive aquí, que han venido de fuera y

viven aquí, y la gente que son de aquí, bueno contribuyen lo mismo. Y bueno hay personas que son de fuera, necesitan porque las circunstancias no son fáciles para ellos para encontrar un trabajo, y hay la gente de aquí que no le sale un trabajo. Uno puede acudir a esa ayuda, cuando lo necesita. ES_3

Ikuspegi honetatik, migratzaileei eskubideen aurrean berdintasun batean kokatzeko baldintza batzuek eskatzea ez da onartzen. Esaterako, hemen biziko direla ziurtatzeko eskatzea zentzugabekeria hutsaltzat jotzen da. Mugikortasunaren aro honetan inork ezin du ziurtatu non biziko den bi hilabete barru. Aldagai batzuek

(seme alabak izateak, familia osatzeak ...) egonkortasun bat ematen badute ere, herri batetik bestera eta herrialde batetik bestera mugitzen diren familia eta pertsonak asko dira, jatorri guztietakoa. Euskal jatorria dutenak, eta beste herrialdeetakoak. Beraz, ez da zilegi migratzaileei hori exijitzea.

"esta demostrau, hay crisis aquí, ya no hay trabajo, la gente sigue estando aquí, es que no han cogido sus maletas y se van. Es que la gente se va deee, si cambia de su país o de su pueblo, sea de donde sea, si es de San Sebastian y se va a Tolosa, el que va a Tolosa ya se ha cambiau de pueblo. Uno, es que hace amigos, hace vida allí. Ya no es vivir hoy y volver mañana, igual te puedes casar allí, tener hijos..." ES_3

✓ ESKUBIDEAK BAINA BEHIN LANA IZANIK.

Diskurtso horren aurrean bada beste diskurtso bat. Ez da zalantzan jartzen **eskubide sozialak berdintasun batean** izateko aukera dutenik, **baldin eta**

lana-soldata-kotizazioa sistema horretan sartzen diren. Hortaz betebeharroriek asetzeak ematen du eskubide sozialetarako aukera.

"...Yo creo que sí, ¿no? normalmente como se dice... "Hombre, yo estoy cotizando yo puedo"... No, todos cotizamos, yo también puedo como los de aquí ¿no? No soy... favorecido que soy extranjero y pago menos, no. Pago igual, entonces... vivienda de protección también." ES_0

1.2.2 ATAL HONEN LABURPEN GISA

Arrazoi ezberdinak eraman dezakete pertsona batek migrazio proiektuari ekiteko erabaki kontzientea hartzera, baina beti dago ideia bat horren atzean: 'hobekuntzaren' ideia. Hobekuntza bilatzen da, arlo ekonomikoan, bizi kalitateari dagokionez, norberaren garapen pertsonalean aurrera egiteko ala besterik gabe askatasunean eta duintasun batekin bizi ahal izateko.

Ohikoenak halaber, motibazio ekonomiko eta garapen pertsonalarekin loturikoak direla aipatu dugu orriotan, nahiz beste motibazio motei erreferentzia egin. Argi dago, bizitzaren bidea gisa, migrazio proiektua bera ere dinamikoa dela, bidean zehar aldatzen doana, eraldatzen eta forma hartzen joaten dena. Proiektuari ekiteko arrazoi batzuk izan ditzakegu, eta herrialde batean geratzeko erabakia hartzerakoan beste batzuk, berdinak, antzekoak ala erabat

desberdinak. Aurreikuspenak, bizipenak nahasten doazen bide horretan erabaki batzuk ala besteak hartzen dira, hartzaile den herrian norberaren lekua egin eta sentitzen den heinean.

Integrazio sozioekonomikoaz, lanaren eremuaz, etxebizitzaz eta eskubide sozialez hitz egin dugu. Eremu garrantzitsuak dira, kontuan izanik euskal gizartean ere (beste askotan bezala) behar material batzuen asetzeak garrantzia duela norberaren bizi proiektua ardazterako orduan, finkatu eta gizarte sistema horretan leku bat aurkitzerako orduan.

Aukera berdintasun erreala gertu ez dagoen gizarte batean bizi gara, eta ezberdintasun horrek jatorri ezberdinetako pertsoneri eragiten badie (autoktonoei ere) migratzaileen kasuan distantzia areagotu egiten da. Migratzaile izateagatik lehenik, eta jatorriaren arabera ondoren. Batzuen eta besteen aukerak ez dira berdinak. Erregularizazio egoerak, egoera ekonomikoak etab. erabat baldintzatzen dute eremu hauetara pertsona ezberdinek gerturatzeko duten aukera, onartzen diren baldintzak, jasotzen diren erantzunak eta jarrerak, aurkitzen diren erraztasun edo zailtasunak.

1.3 HARREMANAK ETA HARREMAN HORIEK ARGITZEN DITUZTEN ESTRATEGIAK

Behin integrazio sozio-ekonomikoaren erronkei nola erantzuten saiatzen diren ikusita, migratzaile berriak dituzten harremanen ezaugarriei arreta jarriko dio azterlanak.

Migratzaile berriek egunerokoan dituzten harremanei bi dimentsioen arabera erreparatu zaie:

- ✓ Bertakoekin dituzten harremanei lotutakoak
- ✓ Bestelako migratzaile berriekin dituzten harremanei lotutakoak.

1.3.1 HASIERAN EZBERDINTASUN POZISIO BATEAN KOKATZEN DIRA

Migratzaile berriak iritsi berritan ez dira berdintasun batean kokatzen gainontzeko Donostiarrekiko. **'Kanpotik datorrena' gisara** bere burua ikusiz **modu ezberdinetan kokatzen dira hartzaile diren herritarren aurrean**. Irakurketa ezberdinak egin daitezke honi dagokionez.

- ✓ **Hartzaile den herriarekiko errespetu jarrera batean** kokatzen dira, bestea ikusiz, bestea bisible izanaz.

Herri berri batera doazela kontuan izanik, herri horretan izango duten harrera beraien jarreraren arabera ere badela ikusten dute. Beraien lekua egiten saiatzen dira jarrera umil batetik. Honela, besteen espazioa errespetatzen saiatzen dira, gehiegi sartu gabe, modu onean gauzak eskatuz, exigentziatik at.

- ✓ Errespetu horretatik haratago, **batzuetan subordinazio leku batean** kokatzen dute beraien burua, besteekiko menpetasun egoera batean kokatuz.

A priori, migratzaile izateagatik egoera deserosoak bizi ahalko dituztela pentsatzeko joera nabarmentzen da, hau da, onartua izango balute bezala 'gaizki' tratatuak izateko arriskua dagoela. Ildo honetatik ez da kasualitatea Euskal herrira iristean arreta deitzen dien lehen gauza bertan sentitzen duten errespetua dela adieraztea.

"yo creo que la gente de aquí son muy distintos al resto del estado. Por ejemplo aquí en Donosti, pues la gente son muy respetuosos, te respetan... eso me ha llamado mucho la atención." ES_3

- ✓ Subordinazio **jokaera horretan bidegabekerien onarpena ere** ematen da. Migratzailearekiko dagoen ideia desitxuratuaren kontziente izanda, hori horrela ez dela frogatu behar dutela uste da. Errespetua irabazi behar da, eta horretarako bidea arazorik ez ematea da bidegabekerien aurrean ere zenbaitetan burua makurtuz.

1.3.2 HARREMANAK BALDINTZATZEN DITUZTEN ALDAGAIK

Abiapuntu ezberdintasun hori kontuan izanda, **herritarrekiko harremanen aurrean hartzen duten jarrera honako aldagaiek baldintzatzen** dute, besteak beste:

- Etortzeko motibazioa eta egoera sozioekonomikoak
- Euskal herrian daraman denborak eta non proiektatzen den etorkizuna
- Egoera familiarrak
- Generoak eta pertsonaren izaerak

✓ ETORTZEKO MOTIBAZIOA ETA EGOERA SOZIOEKONOMIKOAK

Etortzeko motibazioa ekonomikoa den heinean lehen indarrak horretan jartzen dira, harremanak lantzeari beste denbora bat eskainiz. Egoera ekonomikoa egonkortzen doan heinean, joera hori ere aldatzeko aukera gehiago daude.

Motibazioa funtsezkoa ekonomikoa ez den kasuetan, harremanek beste garrantzia eta leku bat hartzen dute. Honela, harreman sareak donostiarren kulturaren duen garrantziaz jabetuta, horretan indarra jarri eta arlo hori lantzeko estrategietan pentsatzen jartzeko aukera ematen du hasiera batetatik.

"Un coro de cantar. Porque si es mas fácil conocer a gente a través de un grupo, no? soy del norte de Alemania. Entonces vivimos durante 6 años en Berlin pero a través de dos coros en los que cantaba en Berlin conocí un montón de gente. También por el trabajo. Pero como el trabajo me faltaba aquí, un coro es una manera de conocer a gente." ES_4

✓ EUSKAL HERRIAN DARAMAN DENBORA ETA NON PROIEKTATZEN DEN ETORKIZUNA

Argi dago denbora bat behar dela harremanei ere heltzeko. Denbora aurrera joan ahala harremanen sarea lantzeak ere garrantzia gehiago hartzen du. Era berean, Euskal Herrian etorkizuna irudikatzen dutenen kasuan arlo hau lantzeari energia gehiago dedikatzen zaio.

Entonces es cuando realmente tu te quieres empezar a sentir parte de esa sociedad. O sea, dices: "Ya vivo aquí. Ahora quiero formar parte de este sistema social". No? Que yo creo que también es lo que hace que tu como persona pues te motives, te integres y bueno... Vayas a la par del lugar donde estás viviendo, no? Y bueno... ES_4

✓ EGOERA FAMILIARRAK

Ezberdina da harremanetarako dagoen denbora eta aukera egoera familiarren arabera. Bakarrik dagoen pertsona, bikotean bizi den ala seme-alabak dituzten harremanetarako denbora, harreman motak eta besteekin erlazionatzeko inguruneak edo eskaintzen zaion denbora aldatzen da. Iritzi ezberdinak aurkitu dira gai honi dagokionez.

Bakarrik daudenen kasuan: Batzuen uste hiriek harreman gehiago izateko aukera eskaintzen diete bakarrik dauden pertsoneri. Tabernak, sozializazio aukera gehiago egoteak eta bakarrik egotean askatasun gehiago izateari lotuta, aukerak biderkatzen direla uste dutenak daude.

Es diferente a que tú llegues a una ciudad con hijos y casada a que llegues soltera, como cuando yo he llegado a otros países, a Inglaterra o donde yo he vivido antes. Es diferente. Estas como más libre estas como más abierta. Te vas a los bares... ES_4

Kontrako iritzian, hirietan bakarrik sentitzeko aukera ere areagotzen dela uste dutenak daude. Bakarrik egonda, hiri batean bakartasun horretan murgiltzeko aukerak areagotzen dira zenbaitzuen ustez.

Edozein kasutan, seme alabak dauden momentuan harremanei eskaini ahal zaien denbora murrizten joaten dela argi adierazten dute batzuk eta besteek.

✓ HARREMANETARAKO AUKERA EZBERDINA GENEROAREN ARABERA

Genero ikuspegitik begiratuta, emakume eta gizonezkoen artean harremanak sortzera begira ere aukerak eta joerak ezberdinak dira.

Gizonezkoak harremanak lan eremuan sortzen dituzte batez ere. Eremu honetan txertatzen dira bai ala bai, baldin eta langabezi egoeran ez dauden. Izaten dituzten lan motagatik beste pertsonekin harremanak izateko aukerak ere areagotu egiten dira.

Emakumezkoen kasuan aldiz, harremanak seme alaben eskutik ematea ohikoagoa da. Batetik, askok etxetik kanpoko soldatapeko lana egiten ez dutelako, eta edozein kasutan soldatapeko lana izan ala ez, normalean seme alaben zaintzaren ardura ere badutelako. Beraz, eskolarekin lotutako esparruetan edo umeak ibiltzen diren espazioetan aurkitu dezakete sozializatzeko aukera. Bestetik, lan egiten den kasuetan ere askotan zaintza eremura mugatzen delako, eremu pribatura, eta beraz sozializazio aukera gutxiago eskaintzen duelako.

▪ HARREMAN EREMUETAN ERE BADIRA EZBERDINTASUNAK GENEROAREN ARABERA

Harremanetarako eremuei dagokionez aukera ezberdinak izateaz gain, hainbat alorretan desabantaila egoera batetik abiatzen dira emakumezkoak. Latinoamerikatik ez datozen migratzaileen kasu askotan, 'reagrupazio' familiarra arrazoi izaten denean, emakumezkoek ez dute Euskal Herriko hizkuntza bat ere menperatzen. Kasu askotan etxean eta umeen zaintza eremura mugatzen direnez, harreman sareetatik at geratzeko arriskua areagotu egiten da.

Bestalde, erlijioari lotuta beste desabantaila bat agertarazi du elkarrizketatu batek. Donostian gurtze erlijiosoarekin loturiko espazio bat omen dago musulmanentzat (elkarrizketatuak *mezquita* hitza erabili arren datuek adierazten dute ez dagoela ofizialki mezkitarik gaur egun Donostian), eta bertan emakumezkoek ez dute sartzeko eskubiderik. Beraz, beste pertsonetikiko harremana ahalbidetu zezakeen esparru horretan ere desabantaila egoeran aurkitzen dira.

✓ **PERTSONAREN IZAERAK**

Ezin genuke harremanak baldintzatzen dituzten elementuen atala norberaren izaerak duen garrantziari erreferentziarik egin gabe amaitu. Izan ere, testuinguruak erabat baldintzatzen duen arren, pertsona bakoitzak bere jarrera, harremanetara eta pertsonengana gerturatzeko modua, disposizioa, motibazioa dauka, izateko moduarekin ere oso lotua dagoena. Harremanetarako izan gaitzke irekiak, iaioak, lotsatiak, beldurtiak, distantreak etab.

1.3.3 HARREMANEN NONDIK NORAKOAK

Harremanen artean bi kategoria ezberdintzen dira: **aukeratzen direnak, eta ez direnak.**

Harremanak eta interakzioa esparru ezberdinetan ematen da. **Helduen kasuan:**

- Eskolaren bueltan seme alaben bitartez
- Lanari lotuak
- Aisialdian garatu daitezkeenak.

Hauetako batzuk aukeratuak dira, eta beste batzuk zoriz tokatzen dira. **Eskolari lotutako harremanak eta lan esparruan sortzen direnak ezin dira ekidin, 'tokatu' egiten dira.** Eta hauekiko bizipena eta jarrera aisialdian ematen denarekin ezberdina da. Harremanekin loturiko esperientzia txarrak hain juxtu eremu hauetan ematen dira batez ere.

Honela, lehen lan eremuan onartzen diren egoeren inguruan hitz egin da. Eskolari dagokionez, jarrera diskriminatzaileak ere bizi izan dira. Honela, nerabeen artean ahozko erasoak izan direla jasotzen da kasuren batean. Baztertua izanik, eta bere identitate atzeritarrari erreferentzi eginaz hainbat ahozko eraso jaso ostean, eskolaz aldatzea erabakitzeraino iritsi direlarik.

"En el colegio en el que estuvo estudiando mi hija luego tuvo un acoso escolar entre las compañeras, o sea, y me toco cambiarla de colegio porque incluso luego me entere porque ella no me dijo, se deprimió tanto que luego quería pasar solo enferma, solo enferma y fuimos como mil veces al médico y siempre con dolor de tripa, de tripa, de tripa y me decía era increíble, como vienes tu cada semana... Y no quería ir a clase y era por eso. Incluso una profesora le dijo: "Por que no te largas a tu puto país?". ET

Aisiaren eremuan eta eremu informalean ez dago babesik eta hor beste elementu batzuk jokatzen dute: jatorrizko herrialdeko ohiturak, baloreek eta izaerak. **Lagunak, aukeratu egiten dira eta norbera den bezala adierazteko hautua norberarena da.**

Halaber, horretan ere eragiten du lehen esan bezala, bizitza estiloak eta familia egoerak Bakarrik dagoen pertsona askeagoa da aisialdian jarduerak aukeratzeko. Seme-alaben eragina zentzu horretan klabea da. Integraziorako eta harremanak sustatzera begira ohiturak aldatzea suposatzen duten bezala, aukera berriak ere sortzen eta zabaltzen dituzte.

"Y una vez fue muy triste porque me dijo una chica de aquí: "El día que vas a socializar es el día que tengas un hijo". Y yo me quede... Dije: "Esto no puede ser!". Y luego efectivamente fue un poco así, pero me lo he tenido que trabajar mucho también para poder socializar con un niño, no? Ja, ja, ja!" ES_4

✓ HARREMANEN INGURUAN EGITEN DEN BALORAZIOA

- Elkarbizitzaren osasuna nahiko ona da, errespetuzkoa oro har
- Halere interakzio gutxi dago autoktonoekin
- Euskal jatorria ez dutenekin elkartzeko joera handiagoa da kasu batzuetan
- Jarrera baztertzaille batzuk nabaritzen dira, jatorriaren arabera maila altuagoan
- Krisiarekin areagotzen ari den joera dela nabarmentzen da

▪ AZALEKO HARREMANAK

Harremanen inguruan balorazioa egitea eskatzen zaienean, salbuespenak salbuespen, elkarbizitzaren osasuna onargarria eta nahiko ona dela aipatzen dute batzuk eta besteek. Osasun ona bezala, diskriminazio eta jarrera baztertzaille gehiegirik ez dagoela hautematen da. Interakzioari buruz hitz egitean, elkarbizitzaren osasun maila beste modu batean ikusten da. Harremana badago, baina kasu gehienetan nahiko azalekoa da, esparru konkretuetan eta gai jakin batzuei loturik orokorrean. Harremanen esparruan muga bat badagoela sentitzen da, hortik pasatzea zaila dena.

"Al principio la verdad es que la gente es amable. La gente me refiero a que si tu vas a un lugar y entras pues la gente es cordial, es amable. Pero ya después de un cierto romper esa barrera de ir un poquito más allá de "Hola, que tal? Buenos días, como esta? Todo bien?"... Es como, no pasa mas." ES_4

▪ JARRERA BAZTERTZAILEAK

Halaber, jatorri ezberdinetako pertsonak jarrera xenofoboak sentitu eta pairatu izan dituzte, nahiz eta kasu isolatu bezala irudikatzen dituzten. Eta guztiek onartzen dute oraindik ere **migratzaileekiko aurreiritzi eta estereotipo asko** daudela. Askoren ustez ez-ezagutza batetatik ondoriozko joera dena.

▪ ESTEREOTIPO ETA AURREIRITZIAK JATORRI EZBERDINETAKO HERRITARREN AURREAN

Migratzaile guztiekiko begirada berdina ez denaren kontzientzia maila nahiko altua da migratzaile berrien artean. Pertsonaren arabera, baina oraindik orain, migratzaileei jatorriaren arabera ezberdin begiratzen zaiela salatzen da. Beraz, nolabait eraikitako aurreiritzi batzuk daudenaren pertzepzioa dago, askotan apurtzea zaila izaten dena.

"Quieras que no es diferente, la mayoría de gente inmigrante de fuera que viene aquí de Europa del norte -vamos a ponerlo así-, o incluso Suiza, vienen ya a trabajar a x puestos que normalmente son puestos de responsabilidad o de directivos o importantes. La gente siempre ha visto en España al de Europa del norte como el que trae dinero aquí. O sea, es el que viene a traer dinero. El del este lo viene a quitar y el latino..." ES_4

Estereotipo eta aurreiritzi hauek modu ezberdinean bizi dituzte jatorriaren arabera. Batzuk eta besteak kontziente dira oraindik orain beraien jatorriak, azalaren koloreak eta itxurak autoktonoekiko harremanen aurrean modu ezberdin batean kokatzen dituztela.

- **"Iparaldeko" hainbat herrialdeetatik datozenen kasuan** (alemaniarrek, Estatu Batuetako migratzaileak ...) **ez da jarrera baztertzailerik sentitzen**. Momentu puntualetan eta pertsonaren arabera izan ahal dituzte esperientzia desatsegin batzuk, baina jatorri euskalduneko herritar batek pairatu ahalko lituzken bezala, eta oso modu puntualean ematen dira.
- **Latinoamerikarren kasuan** beraiekiko irudi estereotipatu baten existentzia dagoela adierazten da. **Zaintza eremuan lan egitera etorri diren pertsona gisa** irudikatzen dira askotan, bestelako motibazioak eta arrazoiak etortzera bultzatu dituztela pentsatzen ez delarik. Horren adibide, emakume mexikar honek gizarte segurantzari bitzikako egoera

ya vas de entrada total con el estereotipo latino, no? Me acuerdo una vez que fui a la seguridad social y fui a pedir mi informe de vida laboral que lo necesitaba para x cosa y le doy a la chica pues mi tarjeta. Pero me dice: "Es que te estoy buscando aquí en servicio domestico y no te encuentro". O sea, así me lo suelta. Y me dije: "Control, control, contrólale por favor, respira profundo". Porque me doy... ya me canse, llego un momento que me canse, me entiendes? Y dije, bueno, da igual. Y le dije: "Mira si me buscas tal vez pues por nombre y tal...". Y entonces: "Ah, no, no, ya veo. Entonces UNICEF aquí en administrativo y profesora de ingles en no sé qué". ES_4

Horretaz gain, oraindik ere momenturen batean hitzezko eraso jarretan beraien identitate migratorioari egiten zaio erreferentzia.

"en un momento de conflicto, cuando me quieren agredir a mi identidad, ¿por dónde me la agreden? Por el tema de que soy sudaca, no?" ES_8

- **Estereotipoak eta aurreiritzien eragina gehiago sentitzen dute Afrika eta asiar jatorria duten pertsonak, batez ere magrebiarrek eta pakistandarrek.** Beraiekiko ikuspegia oso estigmatizatua dagoela nabarmentzen dute. Eguneroko harremanetan pairatzen dituzte besteak beste: begirada arrotzak, ondotik pasatzen direnean alboratzea edo gerturatzen direnean poltsari heltzeko jarrerak etab. Egunerokotasun horretan beti ere 'migratzaileak' direla gogoratzen dieten jarrera diskriminatzaileak dira.

"Pero aun con papeles, bueno ahora está trabajando pero, uff ha tenido unos problemas para conseguir trabajo, por el simple hecho de ser, el mismo lo dice, que entrar a un bar, cuando entra el coge el móvil la gente, como que le van a robar..."
ES_8

Kasu honetan ere erasoak haien jatorriari erreferentzia eginaz sentitzen dute, "puto moro" bezalako izendapenak sarritan entzun dituztelarik. Zentzu horretan, jatorriak ez du askorik axola, pakistandarra ala magrebiarra izan, guztiak modu berdin batean ikusten dira.

▪ KRISIAREKIN JARRERA BAZTERTZAILEAK AREAGOTZEN ARI DIRENAREN PERZEPZIOA DUTE

Denbora bat Euskal Herrian daramaten migratzaileek krisi egoerarekin jarrera baztertzaileak areagotzen ari direnaren pertzepzioa dute. Garai oparoetan migratzaileak egoteari garrantzia handia eman ez zitzaion arren, azken urteetan migratzailearekiko ikuspegia okertzen ari dela antzematen dela aipatzen da.

"Entonces pum! Viene el tema de la crisis y eso obviamente le da en la torre a todo. Y eso obviamente, los colectivos que sufren más son los colectivos más desfavorecidos. O sea, y en este caso el inmigrante que está en esa situación que se ve como... Pues como ahora ya se enfrenta. Ahora ya la gente ve a un inmigrante y hay un rechazo muy fuerte porque creen que vienen a quitar el poco trabajo que hay. Entonces ahora mismo es como una competencia. Yo creo que se ve al inmigrante como una competencia al local en el campo laboral, no? En el terreno laboral." ES_4

Nolabait, migratzailea ikuspegi utilitarista horretatik begiratze hutsa da salatzen dena. Aportatzen dutenari erreferentziarik egiten ez zaion bitartean jendeak beraiekiko ikuspegi hori izatea testuinguru horren barruan kokatzen da.

✓ EREMU INFORMALEAN ETA AISIALDIAN

Hasieran esan bezala eremu informalean eta aisialdian babes guztiak kenduta, norberaren hautua da gainontzeko herritarrekin erlazioak eraikitzeko modua. Lagunak aukeratu egiten dira.

Lagun taldeak sortze horretan, **hasieran ohikoa izaten da euskal jatorria ez dutenekin elkartzeko joera** (beste migratzaileekin alegia). Arrazoia argia da: migrazio proiektu bat hasten duen edonorekin identifikatua sentitzeko aukera handiagoa dago, egoera eta zailtasun berdinekin aurkitzen baitzara besteak beste.

Esperientzia hori konpartitzeak askotan empatia gehiago sentitzeko aukera ematen du, beraz eroso senti zaitezke egoera berdinean dagoen pertsona horrekin.

"el hecho de ser inmigrante te abre a que convivas con mucha gente de fuera también. Porque es la realidad. La gente de fuera tiende a buscarse un poco más porque te identificas, eres más a fin, estas en la misma situación, no?" ES_4

Halaber, askok **euskal jatorria duten herritarrekiko harremanak eraikitze**ko esfortzua ere egiten dute. Eta momentu horretan, gizarte honetan **klabea den fenomenoarekin egiten dute topo: koadrilaren fenomeno**a. Estereotipo hutsean erortzen ari garela pentsarazteko arriskua izan arren, elkarrizketatu ditugun guztiek

aipatzen duten gaia da. Euskal herrian lagun taldeak gehienetan koadrilaren inguruan sortuak daude. Pertenentzia esparru hori apurtzea edo bertan txertatzea ez da ezinezkoa, baina zaila da.

Aldagai batzuek halere horretan lagundu dezakete, besteak beste, dagoeneko koadrila batean txertatua dagoen pertsona batekin harremana izatea, bikotekidea euskal jatorrikoa izatea etab. Baina edozein kasutan lanketa bat suposatzen du eta harremanak eta lagun taldeak egiteko orduan estilo ezberdin bat markatzen duen zerbait da.

"cuadrillas, que es una cosa bonita, pero por el otro lado también es muy hermética no, entonces como que si no tienes cuadrilla no... o sea, sales pero bueno, no sé, como que, la gente a la noche y así..." ES_8

1.3.4 HARREMANEN AURREAN DAUDEN POSIZIOAK

Harremanen inguruan jarrera oso ezberdinak aurkitzen dira. "Continuum" batean jarriko bagenu bi muturretan genituzke:

- Harremanak jatorri berdinekoekin soilik bilatzen dituztenak
- Harremanak euskal jatorria duten herritarrekin bilatzen dituztenak.

Erdian, mila aukera. Elkarrizketatu ditugun pertsonen artean honakoak dira harremanen inguruan aurkitu ditugun diskurtso eta hautemateak:

✓ **HARREMAN SAKONAK JATORRI BERTINEKOEKIN SOILIK DESIO DITUZTENAK**

Posizio honetan kokatzen den pertsonaren perfila honakoa da: etorkizun luzea bere jaioterrian kokatzen da. Eskuak eta hankak hemen ditu, baina burua eta bihotza erdibituta hemen eta jaioterriaren artean. Funtsezko baldintza horretaz gain, bada beste bat garrantzitsua dena bere harremanak hemen nola antolatzen dituen ulertzeko: bere nazionalitate bereberekoen immigrazio dentsitatea Donostian. Eta horri guztiari gehitu behar zaio jarrera baztertzailak bere azalean bakar batzuk eta ingurukoengan nahi baino gehiago bizi izan dituztela.

- HARREMANEN BALORAZIO ONA EGITEN DA, BAINA BATEZ ERE JATORRI BERDINEKOEKIN DITUZTE

Egungo harremanen inguruko balorazioa ona da. Harreman sarearekin gustora aurkitzen dira, baina batez ere jatorri berdinekiko pertsonetikiko mantentzen den harremanari buruz hitz egiten denean. Euskal jatorria duten herritarrekin duen

harremana justukoa da, azalekoa, baina ez da gehiago desio. Interakzio ezarekin eta koexistentzia horretan gustura eta ondo moldatzen dira.

"Yo no tengo ningún problema. Yo con la gente de aquí me llevo y me dicen agur y yo les digo agur, si me dicen kaixo yo les digo kaixo..." ES_ET

- EUSKAL HERRITARRAK HOTZAK ETA 'BEREAK' DIRELA HAUTEMATEN DA

Oro har euskaldunen partetik hoztasuna nabaritzen da harremanei dagokionez. Euskaldunak "oso bereak" diren pertsonak moduan hautematen dira, harreman sakonak sortzeko zailtasunak jartzen dituzten pertsonak bezala.

"No, intimar no. Cada cual... Es que yo digo, estas, aquí la sociedad vasca es como muyyyy, muy suya. Ellos y los suyos. O sea para intimar es muy complicado. Que te... yo tengo que...como..." ES_4

Errespetuarekin baina gertutasun gutxi adieraziz, eta kasu okerreanean migratzailea errezelearekin begiraten dutela hautematen da. Eta horrek bere jarreran mantentzeko argudio gehiago ematen dizkio. Hau da, askorik jasotzen ez duen heinean emateko gogo gutxi sortzen zaio, eta korapilo horretan sartuta azaleko harremanak soilik mantentzen dira, joera gero eta gehiago egonkortzen delarik.

"Es que, lo que pasa es que... vuelvo y repito, hay mucho recelo. Entonces, interés poco. Y a la vez siente... ese poco interés nosotros también... a la final damos lo que recibimos. Si recibimos, recibo... nosotros también damos... nos mostramos con recelo. Nooo, en, en, en que no hay una relación estrecha. Es que siempre nos ven... nos mantenemos ellos aquí, nosotros acá y eso." ES_2

- LAGUNAK ETA EZAGUNEN ARTEAN BEREIZKETA BAT EGITEN DA

Ezberdintasun argi bat egiten da lagun eta ezagun kategorien artean. Ezagunak asko izan daitezke eta jatorri anitzekoak, arrazoi ezberdinengatik interakzio puntuala mantentzen duten pertsonak. Baina laguntasun harremana balore, harreman patroi eta estiloak, eta aisi joerak elkarbanatzea dituen pertsonarengan bakarrik aurkituko du.

O sea es difícil eehhh como integrarse en la sociedad vasca; complicado al comienzo, pero bueno... poco a poco. Nosotros tenemos amigos, los jefes de mi marido, son sus amigos deeee... bueno sus conocidos, no amigos; para nosotros amigos es otra cosa. Conocidos. Conocidos muchos, amigos pocos. Y eso... ET

Halaber, lehen esan bezala jatorri euskalduneko donostiarrekin interakzioa badago, lana eta haurren eskolako gurasoekin konpartitzen diren momentuetan batik bat (urtebetetze festak...). Baina ez da beste pausurik ematen.

"Sí, son relaciones normales, por... cuando les invitan a mis hijos les invitan al, a las fiestas de cumpleaños de sus hijos; van, mi hija va al a fiesta de cumpleaños de sus compañeritos, ella les invita a su fiesta... Pero hasta ahí. O sea son relaciones, hasta ahí." ES_2

Posizio honetan kokatzen diren eta zaintzaren eremuan lan egiten denen kasuetan, zaintzen diren pertsonetako harremana estua izan ohi da, atxikimendu handia sortzen da bi pertsonen artean, sarritan beraiekiko leialtasun sentimendu oso handiak izateraino.

▪ **AISIALDIAN JATORRI BERDINEKOEKIN MANTENTZEN DIRA HARREMANAK**

Aisialdian, batez ere jatorri berdina edo inguruko herrialdeetako pertsonekin harremanak izateko joera mantentzen da. Denbora libre, dagoen gutxia, familiarekin eta lagunekin pasatzen da. Babesa bertan aurkitu da, pertenez sentimendua ematen dion lagun talde horretan gustura sentituz ez da harreman gehiagorik desio.

"Si, nosotros hacemos, nos reunimos entre latinos o... Eso, nos reunimos mas o menos asi y hacemos programas de... que hacemos en nuestros países o... O hacemos alguna comida que se hace en nuestros países... O sea..." ES_2

Topaleku garrantzitsuak dira zentzu honetan kalea bera, paseatzen elkar topatzen dutenen kasuan. Lokutorioak eta jatorrizko produktuak saltzen diren lekuak batez ere.

✓ **DENBORA FALTAK MUGAK JARTZEN DITUEN ARREN, BERTAKO NAHIZ JATORRI EZBERDINETAKO BESTE PERTSONEKIN HARREMANAK BILATZEN DITUEN PERTSONA**

Posizio honetatik harreman sarea garatzeari garrantzia ematen zaio, baina sare egonkor bat izan arren denbora falta da horretan muga jartzen duena. Harremanak jatorri ezberdinetako pertsonekin mantentzen dira, pisu-kidearekin, ikaskideekin, etab. Sakontasun maila egoeraren arabera dela sumatzen da, baina ez zaio bere jatorriari egozten.

"porque no se, nooo, yo en mi caso creo que ¿por qué no relaciono con los del cole?, bueno pues yo creo que como yo ocupau no, cuando sale de un sitio, va a otro sitio...y se ve que, cuando sales del cole por ejemplo, ya no tienes nada que hacer, un compañero dices "¿Qué tomamos un café?", pero yo cuando salgo me voy directamente a otra tarea. O sea no hay, si sales del cole y no tienes nada que hacer, te vas a, "¿oye tomamos un café?", pues vas, charlas...creo que es por eso." ES_3

Lagunen aukeraketa hori pertsonaren arabera da, ez jatorriaren arabera. Besteekiko harremanean pertsona da inporta dena, jatorriari ez zaio begiratzen. Afinitate gehiago sentitzen da pertsona batzuekin edo besteekin, ez jatorri batzuetako pertsonekin edo besteekin, nahiz eta onartzen den euskal herritarrekin sentitzen duen afinitate maila altua dela.

"no, es la misma con uno o con otro. Con algunos hablas mas y con otros menos, porque la relación con uno no es como con el otro, pero no es porque uno es de América Latina y otro es de Gana, si no es porque cada persona como es. Valoro su forma de pensar. Como piensa, como ve las cosas de la vida no, eso yo creo que es, pues no sé, una persona que piensa, bueno cuando hablas con una persona, hay unas conversaciones que son muy interesantes y a veces hay conversación que es sin más, el tiempo, la lluvia y el frío, ni más ni menos." ES_3

Harremanetan lehen urratsak emateak duen zailtasunaren aurrean ezagutzatik eta jarrera enpatiko batekin funtzionatzen da. Migratzaileak hartzaile den herrian abiapuntu ezberdin batean kokatzen direla nabarmentzen da. Harremanak sortzea guztien ardua dela adierazi arren, autoktonoak duen ziurtasunetik lehen erlazio horiek sortzean pausuak ematea errazagoa zaiela aipatzen da.

"bueno yo creo que les corresponde a los de aquí, los de fuera, también les corresponde, pero claro como están en un país que no es el suyo, no estás igual a respecto de uno de aquí, que está seguro no, habla naturalmente y tal... Pero uno de aquí, pues no, esta... no tiene la seguridad de hablar y tal...Igual le va a decir "oye vete", igual le va a decir alguna cosa... entonces nada, pero una persona cuando es de aquí empieza a dar el paso, el otro ya, le encantaría hablar, participar...no sé." ES_3

Edozein kasutan, dagoeneko egonkortasun bat izan arren, eta jarrera enpatikotik, elkar-ezagutza sustatzeko martxan jartzen diren proiektuetan esku hartzen da dinamizatzaile bezala.

✓ **BERE JATORRIZKO KULTURA EZ DU EZABATZEN ETA EREMU PUBLIKOAN SUSTATU ETA ZABALDU EGITEN DA**

Diskurtso honetatik harreman sarea garatzeari garrantzia ematen zaio. Jatorrizko kultura ez da ezabatzen eta eremu publikoan sustatu eta zabaldu egiten da. Eta bi eremutaz baliatzen da horretarako: lan eremuaz eta sorkuntza musikalaren eremuaz.

"a parte del trabajo también, porque claro yo cuando tengo tiempo, salgo en todo el barrio, "hola" "¿que tal?"... me conocen muy bien. Además por cantar, a hecho un concierto en Bukowski. ¿Conoces Bukowski no?" ES_1

Harremanetan pertsonaren izaerak eta jarrerak asko baldintzatzen duenaren perzeptiotik errespetu handiz eta modu atseginean aurkezten da euskal herritarren artean. Pixkanaka eta errespetu horretatik abiatuta auzokideen artean ere harreman sarea osatzen joaten delarik. Izaten diren harremanak eta daudenak biziki baloratzen dira eta euskal herritarren aldetik laguntza asko jaso izana ere aitortzen da. Zentzu honetan, eta batzuetan jarrera diskriminatzaile batzuk pairatu izan arren, euskal jatorria duten herritarrekin harremanak izatera erabat zabalik mantentzen da.

Jatorriko herrialdearekiko aisi joeretan ezberdintasun nabarmenak antzematen dira. Baina ez da oztopo bezala sentitzen harremanak sustatu eta lantzerantz begira. Tradizio eta ohiturak mantentzen dira, eremu pribatuan batez ere, baina egun berezien ospakizunarekin zerikusia duten festa eta tradizioak besteekin ere konpartitzen saiatzen da.

"Pero en general con todos. Con todos. Si nosotros hacemos fiesta del cordero o lo que sea, o alguna cosa, hay dos tres pisos que tengo más relación, y mando a ellos, y ellos también mandan a nosotros." ES_1

Sorkuntzaren mundua ere erabiltzen da harremanak garatzera begira. Euskaldunekiko harremanerako eremu aproposa aurkitzen da arlo horretan, bere identitatea garatzen jarraitzeko aukera izanik benetako hartu-emanetarako harremanak sortuz.

"Aquí también puse un grupo y canto con dos grupos, un cantante se llama Iker, de aquí, canta solo en vasco, han hecho un disco, Lauroba que esta aquí, si aquí hay una canción mitad en euskera y la mitad canto yo en urdu. Y luego he hecho, con músicos de aquí, otro proyecto para ETB, pero todavía no ha salido. Pero ha hecho muy bonita canción en siete idiomas, euskera, ingles, castellano, africano Senegal, yo canto en urdu y en árabe." ES_1

Lanak uzten duen denbora libre apurra, zaletasunekin lotutako ekintzaren bat burutu ala familiarekin emateko erabiltzen da.

"ahora sí. Ahora los domingos salgo con mis hijos siempre en coche, por ejemplo dos... porque antes tenía coche pequeño, ahora he cambiado por otro coche de siete plazas, entonces salgo. Pero como salía antes, cuando no tenía familia, entonces yo si salía. A las siete, a las nueve, luego seis... ahora mucho no, ahora mucho con mi familia y aquí." ES_1

✓ **ZALETASUNEKIN ZERIKUSIA DUTEN ESPARRUAK BALIATUZ EUSKAL JATORRIA DUTENEKIKO HARREMANA BILATZEN DUENA.**

Harremanen aurrean jarrera hau mantentzen duten pertsonak egonkortasun ekonomiko bat dute, lanpostu batekin euskal herrira etorri dira ala bere herrialdean lanpostua mantenduz euskal herrian urte batzuetarako esperientzia pertsonal aberasgarri bat bizitzeko helburua dute. Beraz, ziurtasun pertsonal batetatik abiatzen den posizioa da.

Honela, harremanak lantzeak garrantzia du eta hasieratik indarrak horretan ere jartzen dira. Kultura lokalaren parte zaren heinean pertsona autoktonoekin ere harremanak sustatu beharreko arlo gisa ikusten dira. Hau da, bertakoa sentitzeko autoktonoekin harremanak izan beharrak garrantzia hartzen du.

"Obviamente formas, empiezas a formar parte de una cultura local con la gente local." ES_4

Harremanak egiteko orduan jatorriko herrialdean dauden zaletasunak garatzeko leku bat bilatzetik abiatzen da. Sozializazio esparru horien bitartez lehen kontaktuak sortu eta piskanaka harreman sarea osatzen joaten da.

"Kirola. Nik futbolean eta errugbian jolasten nuen eta gero claro de potes en lo viejo, noski. Eta gero ikasleekin baita ere, noski." ES_5

Horretaz gain hizkuntzak ikasi eta irakasteko klaseez baliatzen dira harreman sarea osatzeko. Eta elkartegintzaren eremura ere jotzen da. Beraz, hasieratik jatorri ezberdineko herritarrekin harremanak izateko moduak bilatzen dira.

Harremanak sortzera begira, pertsona hauek oso argi daukate norberaren esfortzuak alde handia hartzen duela, hau da, jarrera dela garrantzitsua. Ez da ardua bestearengan jartzen, norberarengan baizik.

"yo le he preguntado también: "Que haces tú para integrarte?". "Bueno, nada". "Pero haz algo!". ES_4

Diskurtso honetan kokatu diren elkarrizketatuen kasuan europar jatorria dutenak, harreman estiloetan aldaketak nabaritu arren, euskaldunen hoztasunari ez zaio horrenbeste erreparatzen. Ez da gaindiezina den traba gisa bizi den zerbait. Umore puntu batekin, baina euskaldunen artean itxiagoak eta irekiagoak dauden bi talde daudela baieztatzen duenik badago, itxia izate hori adinarekin lotzen duena.

"yo creo que tenía la sensación de que hay por lo menos dos grupos de vascos, ja, ja, ja! Hay unos que si son muy abiertos y otros quizás un poco de más edad, mayores, que con la cara tienen un poco más... Quieren distancia. Y están un poco más cerrada la gente. Porque yo creo que la gente sabe con tu cara: "Tú no eres de aquí". Y eso a veces pensé que quizás a ellos no les gustaba." ES_4

1.3.5 EUSKAL HIZTUN ETA ERDAL HIZTUNEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK

Euskal hiztunen eta erdal hiztunen artean ezberdintasun batzuk nabarmendu dituzte elkarrizketatu batzuk.

✓ **EUSKAL HIZTUNAK: ITXIAGOAK, SAKONAGOAK ETA BERAIEN SUSTRAIETAZ ARROAGOAK**

Euskal hiztunekin komunikatzea zailagoa dela aipatzen da. Itxiagoak dira, hotzagoak. Hasieran begiratu besterik egiten ez dutela hautematen da, beste pertsona behatzen dutenak dira. Halaber migratzailea ere nola gerturatzen denaren arabera, modu onean sartzen bazara euskal hiztunak hitz egitera ere animatuko direla aipatzen da.

Pixka bat gehiago sakontzen da diskurtso batzuetan: Euskal hiztunak beraien sustraiez arroago daude hautematen da. Eta hori ere besteengana trasladatzen dutela aipatzen da, gerturatzen denarekiko jarrera irekiago bat izanaz. Tinte politikoak hortik ateratzen dira, ez da partidu politikoekin lotzen, euskara eta euskal kulturarekiko harrotasuna da sentitzen dena.

"Yo creo que la gente que habla euskara siempre esta como mas orgullosa de su raíz. Entonces yo creo que para la gente local, para la gente vasca es muy importante. Les identifica más el hecho de que sea una persona que hable o no euskara. O sea, si habla euskara tiene como un plus un poquito mas socialmente al que no lo hable, yo creo." ES_5

✓ **ERDAL HIZTUNAK: IRISGARRIAGOAK, AZALEKOAGOAK ETA INTERES GUTXIAGO AZALTZEN DUTENAK.**

Migratzaile batzuen ustetan erdal hiztunak gehiago hitz egin baina gutxiago laguntzen dute. Ez dira hain itxiak, eta beraiekin komunikatzea errazagoa suertatzen zaie. Halaber, migratzaileak eta beraien istorioekiko interes gutxiago adierazten dutenak direla aipatzen da, eta hori hizkuntza minoritarioenganako sentsibilizazioari egozten diote batzuk.

Hizkuntzarekiko sentsibilizazio horren harira, euskararekiko erdal hiztunen kokapenez hitz egiten dute. Eta kasu horretan erdal hiztunen batzuen aldetik jarrera defentsiboago bat ematen dela aipatzen duenik ere badago. Inoiz euskara ez hitz egiteagatik baztertuak sentitu izango zirenen susmoari egozten zaio jarrera hori.

"en cierta forma no noto mucha diferencia. Lo único es tal vez que no tienen ese conflicto de... Hay gente igual que no habla euskara y yo me encontrado a gente de aquí que no lo habla y esta que no lo quiere hablar. No lo habla porque no les da la gana y no lo van a aprender y... Entonces también por lo mismo, porque yo creo que a veces han sentido ese rechazo social, político, lo que sea del idioma que hay gente que dice: "No!"." ES_4

1.3.6 ATAL HONEN LABURPEN GISA

Harremanen eremua eremu garrantzitsua da, are gehiago elkarbizitzaz hitz egiten ari garenean. Migratzaileek harremanetarako duten disposizioa aldagai batzuk baldintzatzen dute, besteak beste, etortzeko motibazioa eta egoera sozioekonomikoak, Euskal Herrian pasa den denborak eta non proiektatzen den etorkizuna, pertsonaren egoera familiarrak (bakarrik dagoen, bikotea duen, seme alabak dauden...) eta nola ez pertsonaren izaerak, izan ere guztiok ez ditugu trebetasun berdinak harremanen eremuari dagokionez.

Migratzaile berriek harremanen inguruen egiten duten balorazioa nahiko antzekoa da: Donostiarren arteko harremanak errespetuzkoak dira oro har, nahiz eta jarrera baztertzailer batzuk nabaritzen diren, jatorriaren arabera maila altuagoan. Hala ere oraindik aurreiritzi asko daudela salatzen da, ez-ezagutzaren sintoma gisa ikusten dena.

Harreman horiek halaber ez dira oso sakonak, interakzio askorik ez dago, ez bada lanak edo eskolak horretara eramane dituztelako. Aisialdian eta eremu informalean harremanak oso mugatuak dira. Halaber, hartu eman gutxi horrekin eroso sentitzen dira batzuk, eta harremanak jatorri berdinekoekin edo kulturalki antzekotasun gehiago dituztela sentitzen dituztenekin bilatzen dituzte. Beste batzuk aldiz autoktonoekin ere harremanak izateko gogoia adierazten dute. Lehen esan bezala oso lotua dago etorkizuna proiektatzen den lekuarekin. Harremanak egitea 'denbora inbertsio' bezala bizi bada, luzera merezi behar duen zerbait gisa irudikatzen da.

1.4 EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREKIKO HAUTEMATEAK.

Aurreko ataletan landu ditugun gaiak jaso ostean, euskarari eta euskal kulturari buruz migratzaile berriek dituzten hautemateei helduko diegu. Izan ere, salbuespenak salbuespen, integrazio sozio-ekonomikoa da lehentasunezko helburua. Ondoren, eta neurri handi batean etorkizuna hemen irudikatzen bada, orduan integrazio kulturalak garrantzi gehiago hartzen du.

Globalizazioaren garaian kultur sistemen aniztasuna urritzen ari da, mundu ikuspegi batetik uniformizazio kulturalak urrats sendoak egin ditu, merkatuaren logikaren eskutik. Garai zailak dira, oro har, tokian tokiko kultura txikientzat. Uniformizazio horren joera orokorrari gehitu behar zaio, gurean, nazio identitatean lehian dauden lurralde batean egonik, lehia horrek baldintzatzen duela kultur adierazpideen aurrean herritarrok ditugun hautemateak. Honekin zera esan nahi da: integrazio kulturalaren bideari ekiten dion migratzaile berriak kultur eskaintza bat baino gehiago topatuko dituela, bere begietara era bateko edo besteko konnotazio politikoak eduki ahal dituenak. Horri guztiari globalizazioaren testuinguru orokorra gehitu behar zaio, kulturaren esparruari ere eragiten diona, jakina.

1.4.1 HARREMAN SOZIALEN ETA OINARRIZKO DEFINIZIO POLITIKOEN BALDINTZAPENA HAUTEMATE HAUTAN.

Euskara eta euskal kulturarekiko hautematea pertenezia sentimenduk baldintzatzen du. Pertenezia sentimendua lantzen den zerbait da jatorriz honela ematen ez den kasuetan, baina horretarako kultura eta elementu ezberdinak ezagutzeko aukera eta interesa eduki beharra dago.

"La sensación de pertenencia hay que trabajarla mentalmente, sentir esa pertenencia. Es como enamorarte, tienes que conocerlo para llegar a enamorarte y quererlo como tuyo." ES_2

Hasiera batean aipatu bezala migratzaile berrien kasuan ez-ezagutza batetatik abiatzen dira gehienak. **Ezagutze bide horretan lagungarriak diren aldagaiak** daude:

- **Euskal herrian sortzen diren harremanak.** Harreman horiek baldintzatzen dute euskal kulturara zein neurritan eta nola gerturatzen diren.
- **Sozializazio eremuetan dagoen inplikazio maila.** Lanaren bitartez edo elkartegintzan parte hartze maila areagotzen den heinean, adierazpen kultural ezberdinetara sarbidea ere izateko aukerak areagotzen dira.
- **Hautematen diren identitate nazionalei buruz egiten den irakurketa.** Alegia, egiten den irakurketa politikoaren ondorioz:

- Batzuek euskara eta euskal kultura Espainiako nazioaren osagai gisa irudikatuko dute, mendekotasun harreman batean erdal kulturarekiko.
- Eta beste batzuk, Euskal Herria nazio gisa irudikaturik, euskara eta euskal kulturaren aurrean kokatuko dira.

1.4.2 EUSKARAREN FUNTZIONALITATEAREN HAUTEMATEAK

Euskararekiko harremanean eta hautematean Continium bat jarriko bagenu, mutur batean euskarari balio instrumental hutsa ematen diotenak egongo lirateke, ikuspegi praktiko batetik lana bilatzeko 'plus' bezala irudikatzen ditugunak alegia. Bestaldean aldiz euskara herriaren hizkuntza izanda, pertenezkia sentimendu hori areagotzeko eta bat gehiago izateko beharrezkoa ikusten dutenak.

Euskararen ezagutzari garrantzia ematen zaio beraz:

- **Ikuspegi praktiko batetik plus bat suposatzen duelako, etorkizuneko lan hobeago bat lortzera begira.**
- **Harremanetarako eta bat gehiago izateko beharrezkoa delako.**

✓ **IKUSPEGI PRAKTIKOA: BALIO INSTRUMENTALA DU HIZKUNTZAK, ETORKIZUNEKO LAN HOBEAGO BAT LORTZERA BEGIRA**

Hizkuntzekiko lehen begirada ikuspuntu praktiko batetik egiten da. Abiapuntuko hautematean Espainia iparraldean kokatzen den herrialde elebiduna da Euskal Herria. Euskara lana bilatzeko funtzionala izan daitekeen tresna gisa irudikatzen da

Jatorriz gaztelera hitz egiten duten askoren kasuan, lan egiteko, ez dute inoiz euskaraz ikasteko beharra sentitu, integrazio sozio-ekonomikoaren ikuspuntutik betiere. Badakite gaizki ez litzaiekeela etorriko hainbat lanetara sarrera izateko baina ez dute behar izan orain arte, adibidez, etxeko zerbitzuan aritzeko. Harremanetarako ere balio ez diela sentitzen dute, autoktonoak ere erabiltzen ez duela ikusita. Beraz ez diote harremanak egiteko balio erantsirik atxikitzen.

Halaber, ñabardura bat antzeman da kasu batzuetan. Beharra sentitu ez arren, eta akaso krisiaren mamua gaintan ikusita, euskarara gerturatzeko saiakera bat egiten da. Hizkuntzaren zailtasunari erreparatuta eta jendeak esfortzuen aurrean barre egiten duela argudiatuta saiakera bere horretan uzten dute.

Entonces, eh, a mi me... ahí quería conseguir un trabajo. Entonces, me decían que aprende un poco de euskera. Y digo bueno, voy a aprender. Entonces me metí a seguir, pero después... no, me desanimé. No, no, no entendía. ES_4

Jatorriz gaztelera hitz egiten ez dutenen kasuan hausnarketa bat egiten da: mundura begira proiektio gehiena duena gaztelera da eta gaztelera nahikoa da lan esparruan murgiltzeko eta eremu ezberdinetan mugitzeko. Beraz lehen esfortzuak horretara bideratzen dira.

Yo me di cuenta; "Esto es bilingüe". Pero al principio piensas: "Bueno que idioma...?". Porque no hablo ni español ni euskara. Pero claro cuál de los idiomas vas a aprender primero? Es castellano es mas practico, porque puedes hablar español en todos los lados, en toda España y también en Sudamérica. Entonces es más útil que digamos.

ES_4

▪ SEME ALABAK ESKOLARATZEAN EUSKARA IKASTEA BALIOGARRI IKUSTEN DA ETORKIZUN HOBE BAT ESKAINIKO DUELAKOAN

Seme-alabak eskolaratze garaian, praktikotasun ikuspegi horretatik jarraituta berriro ere, balorazio ezberdina egiten da. Euskarak balio erantsia ematen dio pertsonari, eta aukera gehiago zabaldu ditzake etorkizunera begira. Lan eremuari begiratzen zaio kasu honetan ere, harremanetarako balio erantsirik ikusi gabe. Umeeek gaitasuna hizkuntzak ikasterako orduan aitzakiatzat hartuta, seme alabak euskara ikastea baloratzen da, seme alabak D edo B ereduan matrikulatuz.

"Yo mientras más idiomas, mientras más idiomas aprendan, para mí es mejor. Eso es enriquecedor. Eeehhh, indistintamente que sea euskera. Estamos ahora en el País Vasco, pues a mí me interesa que mis hijos aprendan... aprendan el, el euskera. Por ellos ya; ellos hablan euskera perfectamente, entienden... no sé... se desenvuelven. Pero en casa se habla castellano. Yo no entiendo euskera. Yooo con que... creo que me sabré unas 50 palabras, no me sé más." ES_4

Ikuspegi honetatik eremu formalean euskararen exigentzia ez da beharrezkoa ikusten. Espainiako barne herrialde elebidun gisa irudikatzen den herrialde batean kokatzen dute beraien burua. Ikuspegi horretatik, gaztelarekin nahikoa dela uste da, edozein kasutan euskararen exigentzia kasu konkretu eta berezi batzuetara mugatuz: zaharrak diren agure euskal hiztunen kasuan esaterako.

Yo pienso que tendría que ser como en todos los países. Yo he ido, yo he ido a París, yo he ido a Francia. Y en Francia los que saben francés, parlan francés; los que saben español, pues se van al que habla español. Y a los que hablan inglés, se van a los que hablan inglés. Entonces, que se dé opciones, ¿no? Eso sería lo más factible, pero que no sea un requisito indispensable, no creo. ES_4

✓ HARREMANETARAKO ETA BAT GEHIAGO IZATEKO BEHARREZKOA DELAKO

Ikuspegi honetatik euskara ez da lan mundurako tresna gisa ikusten. Beste balio bat ematen zaio. Hemengoa euskara eta euskal kultura da; beraz, hemen bizitzeko, horri eutsi behar zaiola uste da.

"Pero si tú te quedas en un país como el País Vasco, claro, pensamos en aprender euskara también. Pero ahora me falta tiempo para hacerlo. Si pero es el próximo proyecto. ¿Por qué? Para mí es evidente: tú tienes que aprender el idioma que se habla en este sitio". ES_4

Herri honetan bi hizkuntza daudela ez da ukatzen, euskara eta gaztelaniaren presentzia aitortzen da, are gehiago, kale hizkuntza gaztelera dela onartzen da.

Halaber, bertako hizkuntza izanik, errespetuagatik bada ere ikasi beharreko hizkuntza dela kontsideratzen da.

Ildo honetatik euskara ikastera gerturaten dira asko, gertuko motibazioak eramanda, besteak beste lagun taldearekin ulertzeko. Besteek beraien presentziaren aurrean gaztelerara pasatzea ez dute gustuko, besteengan sortzen duten aldaketa hori ez zaie gustatzen, beraien eguneroko hizkuntzan eragiten duela ikusita. Era berean, diskurtso honetan kokatzen diren herritar batzuen aldetik sentsibilizazio bat adierazten da hizkuntza minoritarioen inguruan.

Euskararekiko gerturatzeko jarrera duten migratzaile berrien artean, ardurak banatu egiten dira ere neurri batean. Norberak duen ikasteko ardurari itzal egin gabe, gainontzeko herritarrek migratzaileen aurrean hartzen duten jarrera ere salatzen da. Migratzaileei euskaraz hitz egiten ez zaiela nabarmentzen dute. Jendearen aldetik pazientzia gutxi adierazi eta gaztelerara jotzeko joera dagoela salatzen da, horrek hizkuntza ikasten laguntzen ez diela aipatuz.

▪ EUSKARA IKASTEAK BEHARREZKOA IZAN BEHARKO LUKE ETA LAGUNTZAK ESKAINI BEHAR DIRA

Ikuspegi honetatik euskara ikastea beharrezkoa beharko luke. Eta honen erabilera bermatua beharko luke eremu guztietan. Euskara euskal herriko hizkuntza izanik beste hizkuntzei lehentasuna ematea zentzugabekeria hutsa kontsideratzen da.

"y me sorprende un montón una lengua que lo tienen qué, que estas en un sitio que es como aquí en San Sebastian, tienen que dar el euskera como obligatoria, te dan el inglés como obligatorio" ES_3.

Edozein kasutan, hizkuntza ikastea eta horretan interesa jartzea norberaren esku geratzen den arren, erraztasunak jarri behar direla ere aldarrikatzen da.

- Administrazioetik esfortzu bat egin behar da, euskara ikasteko aukerak mantenduz eta murrizketak ez eginaz. Doako ikastaroak, euskaraz, gaztelerara dedikatzen zaizkion orduen parte bederen.

"Lo que si he notado es pues como hoy, con los idiomas y tal pues entonces voy a apuntarme en la EPA para el euskara, porque hay cursos gratuitos. No solo para inmigrantes, pero para mucha gente. Y había antes pues castellano que yo aprendí castellano así en Inglaterra y luego aquí euskara. Entonces euskara no sabía, entonces empecé en clase de euskara y estaba muy a gusto y luego con los recortes lo quitaron. Lo que pasó es que el castellano no han quitado por ejemplo. Entonces no es que haya un curso, hay varios cursos de castellano y euskara pues adiós con los recortes." ET

- Euskara irakasteko pedagogian berrikuntzak txertatuz. Komunikazioari eta hizkuntza bera bizitzeari garrantzia ematen dioten pedagogia sistema berrien beharra aldarrikatzen da.

1.4.3 EUSKAL KULTURARI DAGOKIONEZ

Euskal kultura zerekin lotzen duten galdetu diegu elkarrizketatuei. Jasotako erantzunekin, hautemate mota bat baino gehiago eraiki dira. Euskal kulturari loturiko bi hautemate bereizi ahal dira:

- **Euskal kulturaren oinarrian integrazio kulturala bilatzen ez duenarentzat, euskal kulturak ez du balio funtzionalik eta kultura zahar bati lotzen zaio.**
- **Euskal kulturaren oinarrian integrazio kulturala bilatzen duenarentzat, euskal kulturak balio funtzionala du, eta adierazpen kultural, sorkuntzarekin lotutako kultura interesgarri bati lotzen zaio.**

✓ EUSKAL KULTURA, TRADIZIO ZAHARREI LOTUTAKO KULTURA

Espainiar estatuaren erreferentzia izanik, euskal kultura, lurralde honetan dagoen antzinako kultura zahar gisa irudikatzen da, tradizio eta adierazpen konkretuei lotua: aurrekua, herri kirolak eta bertsolariak tarteko. Euskararekin ere lotzen da, nolabait 'heredatua' izan den hizkuntza horrekin.

Ildo horretatik euskal kultura gisa irudikatzen den horretan bere lekua ere ez da gehiegi ikusten. Adierazpen zahar horiekin lotuta egonik, 'euskaldun' horiei dagokien zerbait gisa ikusten da, ikusle paper batetik hor dagoen zerbait bezala. Ez da egunerokoan praktikoa dena.

"Implicación ninguna. Simplemente respeto, mirar y conocer. Por mis hijos que están en el colegio. Mis hijos participan en... ahora mismo mi hijo estaba haciendo algo de bertsolaris, no sé qué, en el, en el colegio. Sí participan. Estaba, la niña estaba bailando esto, como es, el aurreku y todo eso." ES_2

Antzineko kulturarekiko sensibilizazioa azaltzen duen baten irudipenetik badauka kutsu erromantikoa, mantendu beharra dagoen kultura gisa ulertuta, ondare bezala, baina museo bateko pieza zahar bat izango balitz gisa ulertuta. Zentzu honetan, altxor hori zaindu behar den zerbait bezala ikusten da, balio praktiko handirik izan gabe, asko jota polita den zerbait gisa.

Posizio honetan daude pertsonen interakzio eta kontaktu gutxi daukate euskararekin, produkzio mailan egon daitezken eremu ezberdinekin. Euskara ere ez dute menperatzen eta hizkuntzarekiko ikuspegi instrumentala dute edozein kasutan.

✓ EUSKAL KULTURA EGUNEROKOAN ERABILGARRI DEN KULTURA BEZALA IRUDIKATZEN DA.

Ikuspegi honetatik, euskal kulturaren ezagutza maila handiagoa dago, eta interesa sortu duen zerbait da. Euskal kultura ibilbide bat duen kultura gisa ikusten da, antzinatek datorrena eta hizkuntza bati lotua dagoena. Alderdi tradizional bat egozten zaio, nekazal munduari lotua, lurrari atxikia.

"G: CON QUE RELACIONAS LA CULTURA VASCA?

E: muy bien, aaaa una cosa olvido, las cosas de caseros, de caseros, es muy parecido como Pakistán e India no. traje, traje también.. un poquito, si, si, pero como antes hacían la tierra con búfalos y toros, sabes, antes con burro o...

G: CON LOS BUEYES Y...

E: y la historia que tenían, es el mismo que en mi país. Había una cosa así que ponían, por ejemplo así, una cosita y dentro dos cabezas de dos cabellos

G: SI, PARA TRABAJAR LA TIERRA.

E: eso es, eso muy parecido. Luego hay una cosa muy parecido, en euskera y en mi idioma, ama (euskerazko tonuan esaten du) es ama (pakistaniz)." ES_1

Baina baliagarritasun bat ere egozten zaio, balore eta izateko forma bati lotuak. Euskaldunak dira hitzezkoak, leialak, laguntasuna ematea kostatzen zaienak baina behin irekiz gero harreman sakonak eraikitzen dituztenak. Langileak, metodikoak ... Pertsonaren arabera balore hauetako batzuetan erreparatzen da besteetan baino gehiago. Baina edozein kasutan balio funtzionala duen kultura da, egun konkretuetako adierazpenarekin lotzen dena ala egunerokotasunean norberaren aberastasunerako baliagarria dena kultura honen adierazpen arloaren aldetik.

"Yo admiro mucho la cultura vasca y es, es, es, son gente muy trabajadora, muy correcta; es, es, también tienen muchos valores. Eso sí, y eso se admira, y eso es lo que a mí más me han aportado. Yo por ejemplo, yo, yooo he aprendido a ser puntual en este país..." ES_2

Euskal kulturarekiko ikuspegi tradizionalaz gain, euskal kulturari berritzailea eta egungoa den alderdi bizia eta interesgarria ikusten zaio. Sorkuntzarekin lotzen den esparruari egiten zaio erreferentzia, literatura eta musikaren eskutik batez ere. Aipatzekoa da posizio honetan kokatu diren pertsonen gehiengoak betetzen dituen ezaugarri bi:

- beraien kulturekiko afinitate handia sentitzen da euskal kultura definitzen duten horretan,
- eta sormen munduarekin lotuak dauden pertsonak dira (musikariak, idazleak, etab.).

Pertsona hauek bakarrik iritsi dira Euskal Herrira, gaztaroan, eta familia jatorrian utzita ala inolako familia loturarik gabe.

Aipatu da euskal produkzioaren eremuan interesa adierazten dela ikuspegi honetan kokatzen diren pertsonen artean, eta ezagupenetik abiatzen dira. Musikaren inguruan halaber iritzi ezberdinak sortzen dira. Honela, batzuen ustez, euskal musika abesti tristez osaturiko musika da; beste batzuen begietara aldiz zerbait esatera zuzenduak dauden abestiek osaturiko musika da, errebindikazio puntu bat duena.

" yo he escuchau, me gustaba una música que es de, ¿Cómo se llama?, para recordar su nombre... él en su canción dice, ese pájaro que vuela y le cortan las alas, es de...

P: ¿MIKEL LABOA?

R: Mikel Labo, si, muchas veces lo he escuchau y me han explicau que es, lo tengo en casa. Es que nosotros tenemos la música, el bereber, esa música es lo mismo, porque nosotros también, nuestra música, no cantamos, cantamos esas músicas dedicados a decir algo no. Esa música para decir algo y muy lenta... más bien palabras, que el ruido de la batería." ES_3

▪ EUSKAL ETA ERDAL KULTUREK IDENTITATE ETA HIZKUNTZA PROPIOAK DITUZTE

Euskal kultura eta identitateez ari garela, posizio honetatik euskara eta erdal kultura eta identitatea bereizi egiten dira. Euskal kultura eta kultura espainiarrak elkarbizitzen duten espazio batean kokatzen dira. Elkarbizitza horretan leku ezberdinetan kokatzen da pertsona, baterekiko ala bestearekiko atxikimendu mailaren arabera. Baina edozein kasutan bien lekua aitortzen da. Euskal kultura hizkuntzarekin erabat lotzen da, euskal kulturaren elementu garrantzitsu bezala.

"Euskal kultura? Pues kultura azken finean da pues hizkuntza batez ere. Hemen ditugu bi jarrera edo bi mundu. Euskaraz eta erdaraz. Erdaldunak azken finean da, bueno segun... edo erdaldun militante edo irekita edo ez dakit zer... Baina bi kultura existitzen dira hemen eta lasai da. Euskara da hizkuntza bat eta kultura bat. Nik hala ulertzen dut, hain sartuta nago euskal kulturaren... eta ez daukat arazorik eta asko gustatzen zait, baina horrekin batera esango nuke erdaraz ere bai, espainolez ere bai gauza bera." ES_5

Lehen aipatu bezala balore jakin batzuekin lotzen dira euskaldunak, hitzezko pertsonak eta leialak. Eta elementu berri bat egozten zaie: euskaldunak dira borrokalariak, bere hizkuntzaren alde mugitzen direnak. Eta sarritan tematiak, melankolikoak eta umore gutxikoak. Zentzu honetan, euskal produkzioak kutsu hori baduela aipatzen da. Umore handia erabiliz egiten da ondorengo baieztapena:

"asko gustatzen zait musika ere. Nik beti esaten dut hemengo emanaldietan hiru motatako kanta tristeet, batez ere kanta tristeak ditugu. Hiru motatakoak. Lehengo kanta tristea, bigarrena kanta oso tristea eta hirugarrena hain tristea non behin entzun duzula zure burua hiltzeko prest zaudela! Hauek dira gehien gustatzen zaizkidanak..." ES_5

▪ EUSKAL KULTURAK MUNDURA ATERATZEAREN BEHARRA DU

Euskara eta euskal kultura baliagarria den kultura gisa irudikatzen den arren, jende multzo baten artean horrela ez da hautematen. Honela, kezka sortzen da:

kultura zahar bezala ikusita bizirauteko duen aukerak murrizten direla uste da. Euskarak komunikazioa eta mundura ateratzeko beharra duela aitortzen da beraz.

Bide horretan urrats batzuk eman direla adierazten da, baina oraindik orain euskal kultura adierazpen zaharrekin lotzen da, eta erakargarria ez den moduan aurkezten duela uste da.

▪ EUSKAL KULTURARI EKARPENAK EGITEKO DESIOA ERE BADAGO

Euskal kulturarekiko atxikimendu handia duten pertsonen kasua litzateke honakoa, hizkuntza eta kulturarekiko ezagutza handi eta barnekoa dagoen posiziotik eraikitzen den diskurtsoa alegia. Pertenentzia sentimendu fuerte horretatik abiatuta, eta izaera sortzailearen oinarria kontuan izanik, euskal kulturaren sorkuntza munduan ere ekarpena egin nahia adierazten da.

‘Hobetzeko’ dauden alderdiei erreparatzen zaie, jatorriko kulturak izan ditzaken aukeraz baliatuz. Horren adibidea da elkarrizketatuetako batek umorearen eremuan bere ekarpena egin nahi izana, bakarriketen bitartez euskaldunak barre eginarazteko erronkan murgilduz.

Ekarpen horren helburuak halaber erronka ezberdinei erantzuten die:

- Batetik erronka pertsonala dago, hizkuntzaren aldetik euskaldun berria izanik bere buruari jartzen zaiona.
- Bestalde, erdal hitzun jendeak euskararekiko duen jarreran mugak hautsi nahi dira, euskara zaila den hizkuntza gisa ikusten duten horiei mugak gaindi daitezkeela erakutsiz. Beraz pedagogia egin nahia antzematen da.
- Hirugarrenik, erronka euskal identitatea eta autoktonoa izateko sustrai batzuen beharraz jabetuta, semeari euskal identitate horren baitan sustraiak garatzeko arazoak emateko beharretik abiatzen da.

Beraz, zentzu honetan euskal sorkuntzak euskal identitatea garatzeko aukera ematen duela baloratzen da.

"Bueno gu herri txiki batean bizi ginen baina nire gurasoak ez ziren hangoak baizik eta beste herri batekoak, 50 kilometrotara handik. Baina kanpotarrak sentitu ziren, kanpotarrak ez, baina kanpotarrak, bai, de fuera. Eta nik beti beste motibo bat baina nik nire semearekin hemen, bere amatxi hemengoa da, baina nik ez nuen nahi berak gauzak bera sentitzea. Zeren eta horrela sentitzen nintzen ni nire herrian. Gurasoekin, este pueblo, sustrairik gabe pixka bat. Sustrairik gabe. Eta hori ez nuen nahi nire semeak gauza bera sentitzea. Orduan hori beste motibo bat izan zen baita ere bakarriketak egiteko". ES_5

▪ EUSKAÑOLA, HIBRIDOA DEN KULTURA ETA HIZKUNTZA

Euskal kulturaren egoeraren inguruan halaber, ikuspegi kritiko bat ere badago. Euskal kultura eta erdal kulturaren existentzia onartzeaz gain hirugarren hibridoa den kultura batez hitz egiten da: ‘euskañolaren’ eskutik datorren euskalgaztelania nahasketa kultura hori. Euskal identitatea duten pertsona horiengan ikusten den aldaera da, erdal identitatea dutenek ez dute ‘euskañolaren’

erabilerarik egiten. Funtsean atzetik dagoen eztabaida bati egiten dio erreferentzia hirugarren azpi-kultura hau aipatzean: euskal kultura benetan zer den galderari erantzun nahi izatean.

"Eta zer da benetako erdaldun? Zer da? Zer claro gaur egun ere bai euskal kultura ez da... Es que daukazu agian el mas vasco, vasco, vasco agian esta en casa viendo el Gran Hermano, es que normala da. Eta onartu egin behar dugu hori, bestela... es que halaxe da gizartea." ES_5

1.4.4 POLITIKAREN INGURUKO HAUTEMATEAK

✓ BATZUENTZAT INTERESGARRIA DEN GAIA DA, BESTEENTZAT EZ DU INTERESIK

Aipatzekoa da politikaren gaiaz hitz egitea kosta egiten zaiela elkarrizketatu ditugun migratzaile berri gehienei. Bi bizipen daude halere zentzu honetan:

- Batetik, gaia bera distantzia batekin begiratu eta bizi da, ez du interes gehiegirik sortzen.
- Bestetik, politika gaiaren inguruan migratzaile berriei leku askorik egiten ez zaiela sentitzen dute. Nolabait, euskal herritarrek gai honen inguruan beraien iritzia ematerako orduan zilegitasun bat aitortzen ez dietela hautematen dute.

"Quiero formar parte de una sociedad porque estoy aquí y hay cosas que aquí también las puedo criticar. O el simple hecho de criticar algo pues imagínate, pues estar en un grupo de repente critico algún tema político o critico algún tema de la ciudad que creo que está mal gestionado, coordinado, o mi punto de vista político... Y de repente: "Pero tu? O sea, como te atreves a opinar de nuestros políticos o de nuestra ciudad que no funcione bien?". Pues lo siento mucho pero yo vivo aquí en este momento y me afecta en este momento la decisión que tome el político tal o como funcione el ayuntamiento tal, o sea..." ES_4

✓ POLITIKAREN BI ATALAK

Politika hitzarekin bi gai nagusi identifikatu dira:

- **Politika: egunerokoarekin zerikusia duen zerbait bezala.**
- **Politika: euskal gatazkaren auzia**

Harritzekoa bada ere politikak jatorri ezberdinetako pertsonen arteko elkarbizitzan duen eraginaz galdetzean, pertsona pare batek egin dute politika eta immigrazio politiken arteko lotura. Hau da, kasu horietan azaldu da dauden politikoez immigrazio gaiarekiko duen hurrenkeraren inguruko kezka.

"Mi impresión es la... es la normal. Cada cual trabaja para su, para su... según su ideología y para su partido y eso es. A veces, a veces, eeh, yo veo que se hacen muchas políticas con, yo veía... que ponían lo que más les preocupa a los, a los españoles: la crisis, la migración..." ES_2

A. POLITIKA: EGUNEROKOAREKIN ZERIKUSIA DUEN TRESNA

Ikuspegi honetatik politika **tresna baliagarria** da hainbat egoera erregularizatzeko. Ikuspegi hau konpartitzen dute identitate nazionalen inguruan egiten den epaia bat dela ala bestea dela. Politika, egunerokoan txertatua dagoen gaia da, tresna bat gizarte mailan funtzionatzeko.

Ikuspegi honetatik ere boto eskubideaz hitz egiten da. Politikak parte hartze maila bat eskatzen du eta herritarren betebeharrak bat gisa ere irudikatzen da.

"La política es una, es unnnn, es algo importante, ¿no?, es un mecanismo que tiene queee existir para regular. Pero yo por ejemplo, estoy nacionaliza, yo tengo la nacionalidad española y yo participo de las elecciones, cuando hay, cuando hay votaciones, yo voy y cumplo con, con mi voto y todo y participamos." ES_2

Halaber, politikan **desenkantu maila bat** nabarmentzen da. Batetik, politikarekin gauzak konpondu eta herriaren ahotsa entzutea ulertzen duen pertsona dago. Desenkantua zentzu horretan politikoei herriaren hitza entzuten ez dutela sentituzetik dator. Konfiantza izatea gustatuko litzaioke, baina neurri batean herriaren partaidetzari uzten zaion lekua ikusita interesa galtzen doan pertsona.

"arreglar. Arreglar, política es arreglar y escuchar, eso es la política." ES_3

Bestetik, azken hilabeteetan emandako gertaera hainbatek politikarengan konfiantza falta bat garatzea eragin dela salatzen da. Espainiar estatuari egiten zaio erreferentzia politikaren aldaera honetan. Barcenak, gutuneko gatazka, etab. Posizio honetan kokatu diren pertsonengan espainiar komunikabideak dira erreferenteak.

"aquí hay mucha democracia, aquí si, hay ladrones también, chorizos mucho. Como venia una persona mayor, no se muerto, hace mucho no viene, y chillaba, decía "madre mía antes era un Franco ahora hay 5000 mil Francos legales" ES_1

B. POLITIKA EUSKAL GATAZKA POLITIKOAREKIN lotzen denean hautemate ezberdinak antzeman dira.

✓ ESPAINIAR ESTATUAREN IKUSPEGI BATETIK EUSKAL GATAZKA POLITIKOA KOKATZEN DUTENAK

Bi posizio antzeman dira:

- **Politikaz inolako ezagutzarik eta interesik ez daukala aitortzen duen pertsona.** Bere egunerokoan, lanean zentratua eta indarrak horretara bideratzen dituena. Politika halere, berarekin bat ez datorren gaia dela kontsideratzen duena.
- **Distantzia handi batekin begiratu arren interes maila bat adierazten duena.**

Posizio honetan kokatzen diren pertsonak, motibazio ekonomikoak bultzatu ditu euskal herrira. Halaber, urte batzuk pasata eta lanak eta behar materialak asetzeak garrantzia handia duen arren, elkartegintzaren eskutik batez ere hasi dira euskal herrian dauden hainbat gai politikoen inguruko ezagutza bat izaten. Tarteko, euskal gatazka politikoa.

Gai horretaz hitz egitea ez da gustuko duten gauza. Distantzia handia jartzen da, inplikazio eta interes maila oso txikia da.

"Abertzalea" gobernuaren kontra dauden pertsonekin lotzen da, eta telebistan ematen den irudia dela aipatzen da.

"CONOCERÁ, CONOCES LA PALABRA ABERTZALE...?"

E: Yo por la televisión. No, no entiendo. Nooo... eso no sé... Yo por la televisión que hemos visto abertzale. ¿Qué es? ¿Los que están en contra del gobierno?"

BUENO EEH NACIONALISTAS VASCOS...

E: Ah, no sé yo... no me... no profundizo en esas cuestiones. No meee... no me... no me gusta meterme en eso. No" ES_2

"Nazionalismoa" hitza erabiltzean konnotazio eta asoziazio hori kentzen da. Baina edozein kasutan postura hori defendatzeak besteak 'ez ikustea' eramaten duela uste da.

"Lo que pasa que cada uno defiende su posición, en el lado del que está. Si eres nacionalista, defiende a muerte la posición desde ese lado. Y los demás no te importan." ES_2

Euskal gatazka politikoa eta borroka armatua distantzia oso handiarekin begiratzen da, beraiekin ez doan gaia ikusita. Hainbat pertsonen aldetik Euskal Herrira etortzeko momentuan gai hori dela eta kontuz ibiltzeko aholkua jaso bazen ere, ez da beldurrik sentitzen, migratzaileak beti helburuetatik kanpo daudela uste izan baita.

"Es que ese es un conflicto a nivel... a nivel interno y a nivel... a nivel de, de... O sea ellos ya tienen, ellos van directo al objetivo. Y así pues, nosotros no somos el objetivo; la gente de fuera no somos el objetivo, porque no somos importantes. Entonces ellos van a donde la gente importante. Nosotros no, no, no, no hemos tenido nada que... Yo no he notado nada que vaya en contra de, tenga que ver la inmigración en eso." ES_2

▪ INDEPENDENTZIARI, IKUSPEGI PRAKTIKOTIK BEGIRATUTA, EZ ZAIO ZENTZURIK IKUSTEN

Independentziaren gaiak hitz egitean, horren alde borrokatzen dutenak arrazoiren bat eta ideiak argi izango dituztela pentsatzen da baina ez zaio zentzu askorik ikusten. Ez da kulturalki herri batek garatzeko izan dezakeen aukeren inguruan ezer aipatzen. Ikuspegi praktikoko batetik begiratzen zaio, eta batez ere ondorio ekonomikoekin lotzen da. Nolabait, norberarengan eta norberaren bizitza eta ongizatean izan ditzakeen ondorioekin lotuta. Eta zentzu horretan, krisi gai honetan banatu baino indarrak batzea hobe dela uste da.

"Es que... A mí eso, jeje, a mí eso, eso me causa gracia. Porque yo pienso... eso encima el que es un... es un país pequeño, se ve, tienen que verse en el mapa, es un país pequeño. Eh, todos hablan de independencia deee... Cataluña también está pidiendo eso. Todos piden... Valencia pide lo mis... O sea es que no entiendo, cuando España es grande y es, y es, y es lo que es, porque es unidad. Sólo la unión hace la fuerza". ES_2

✓ EUSKAL KULTURA: EUSKAL NAZIO EDO IKUSPEGI ETNIKO BATETIK BEGIRATZEN DUTEN PERTSONAK

Bi posizio nabarmentzen dira politika eta euskal gatazka politikoaren inguruan hitz egiten denean, ezagutza maila eta gizartearen inguruan ikuspegi kolektibo edo indibidualago baten baitan:

▪ EUSKAL GATAZKA POLITIKOAREN INGURUAN OINARRIZKO EZAGUTZA DUENA, BAINA GAIARI DISTANTZIA BATEKIN BEGIRATZEN DIONA.

Posizio honetan kokatzen diren pertsonak ezagutza maila dute, harremanen bidez eta inguruak horretan lagundu duela uste dute. Abertzaletasuna norberaren herria maitatzea bezala ulertzen da.

Baina ez da burujabetza eta independentzia baten beharra ikusten herri gisa garatzen joan ahal izateko. Banaketa bat egiten da beraz abertzaletasuna eta independentziaren artean. Abertzalea izatea da zure herria maitatzea, eta independentziari ikuspegi praktikotik begiratzen zaio, ekarriko dituen ondorioen arabera merezi duen ala ez baloratuz.

Administratibo-juridikoki Euskal Herria Espainiaren barruan egoteari ez zaio balore ezkor ez baikorrik ikusten. Besterik gabe, pasaportearen jartzen duen zerbait dela uste da. Euskal kulturak aurrera garatzen jarrai dezakeela uste da, marko konstituzional horretatik at.

- Independentziari, ikuspegi praktikotik begiratuta, zentzua ikusten zaio

Halaber independentziari ondorio praktiko-ekonomikoaren arlotik begiratzen zaio. Eta Euskal Herriaren kasuan independentziak "merezi duela" epaitzen da.

"Bueno todo el mundo tiene derecho de independencia. Si yo vivo en Barcelona y yo digo "yo quiero independencia", no pasa nada, tengo derecho no. Pa mi, porque aquí lo que veo, mucha gente quiere la independencia. Muy poca gente que no quiere. Eso lo que he notau, y claro tengo miles de amigos vascos también, cliente digamos, y hablan todos los días aquí la política. Hace poco me a dicho uno, es un repartidor, mes pasa, y mes pasau era fatal y yo he dicho, "mira hoy no puedo pagar, mañana" y me dice, "madre mía, si fuera independiente el País Vasco, tu vivías como reyes". ES_1

▪ EUSKAL GATAZKA POLITIKOAREN INGURUAN EZAGUTZA MAILA ALTUA DUTEN PERTSONAK ETA HORREKIKO POSIZIONAMENDUA ADIERAZTEN DUTENAK

Posizio honetan kokatzen diren pertsonak logikotzat jotzen dute Euskal Herrian bizitza politikoaren inguruan ezagupena izatea.

"R: icómo no, bueno vivo aquí, hombre!" ES_3

Ezagutza maila handia adierazten da auzi politikoaren inguruan, neurri batean ala bestean partidu politikoaren existentziaren berri badute. Ezagutzen dituzte bai euskal partidu politikoak, baita estatalak direnak ere. Interesa dago, eta politikaren afera jarraitzen da.

Posizio honetan kokatzen den pertsona batek nolabaiteko aspertze bat adierazten du gai politikoaren inguruan. Politika gizartearen atzetik doala uste du, hau da, gizartea erritmo batera doala eta politika atzetik era berandu iristen dela. Euskal gizartera eramanda, jendea gatazka politikoaren auziarekin nazkatuta egotera iristeak bake prozesuan kokatu gaituela uste du.

"Hemen ere bai Euskal Herrian azken finean, bai Irlandan ere bai, zergatik gaude hain bake prozesuan sartuta? Jendea potroetaraino dagoelako! Ez dute ezer gehiago jakin nahi, ez hemen eta ez Irlandan. Eta azken finean hori da... Politika gizartea baino atzerago, bai, bai." ES_5

Abertzaleak aberria maite dutenak direla ulertzen da. Posizio honetan kokatzen den pertsonetako batek, euskal talde politiko abertzaleei (EAJ eta Bildu aipatuz) asmo oneko pertsonen kategoria atxikitzen die. Konfiantza dago nazionalistak diren partidu euskaldunek gizartearen eskubideen inguruan daukaten jarreraren aurrean.

- Independentziaren inguruko ezagutza maila altua dago eta zentzua ikusten zaio

Independentziaren gaiaz hitz egitean ere, ez da terrorismo hitza aipatzen, baizik borroka armatua, eta honen inguruko ezagupen bat badago.

"me suena, si he oído. Es que yo en, en el, donde vivo yo, en el Rif, pues hay también euskaldunes que viven allí. Yo se que aquí pues, hay gente que, la mayoría de la gente de aquí, pues quieren la separación del Estado Español, si eso me suena. Me suena que hay un conflicto armado." ES_3

Kasu batzuetan, borroka mota bera konpartitzen ez den arren jarrera enpatiko eta ulerkor bat ere azaltzen da.

"Eta adibidez la lucha armada, nik ulertzen dut! Lucha armada ulertzen dut. Ez nuen inoiz parte hartuko, zeren eta parte hartzeko hori egiteko prest behar duzu egon, prest egotea behar duzu, bestela ezin zenezakeen ezer egin. Baina ulertzen dut. Ulertzen dut, eta bueno..." ES_3

Independentziari bi aldetatik begiratzen zaio: praktikotasunaren aldetik eta kulturalki herri batek garatzen joateko duen aukera gisa.

Praktikotasuna eta irisgarritasun ikuspegi batetik begiratuta, independentzia bideragarria den afera gisa irudikatzen da. Luxemburgo herrialde txikia izanik honen irisgarritasuna adibide bezala jartzen da.

"Bueno pues, bueno Luxemburgo es muy pequeño y está bien, pues yo creo que estaría bien. Si, si, si, si un país, yo creo que si el país, lo que es Euskal Herria se independiza, estaría mucho mejor que hoy en día. Estaría mucho mejor." ES_3

Ikuspegi praktikoa horretatik haratago, independentziaren lorpenaren bidez, herria kulturalki aurrera egiteko aukera gisa ere ikusten da.

"Tiene muchas razones, pues eee, pues razones primero para que el dinero que se tiene aquí no vaya a ningún sitio, lo segundo que uno representa lo que es él en el mundo, para avanzar, para enriquecer, con su cultura, con su lengua, con su forma de pensar, con su forma de ser... muchas cosas en el mundo, no?" ES_3

▪ EGOERA POLITIKOAK EUSKAL JATORRIA ETA ESPAINIAR JATORRIA DUTEN PERTSONEN ELKARBIZITZAN ERAGITEN DUELA PERZIBITZEN DA

Egoera politikoak elkarbizitzan eragiten ote duen galdetzean, jatorri anitzeko pertsonen artean baino estatu espainiarretik datozen pertsonetik elkarbizitzan eragiten duela aipatzen da. Susmatzen da harreman horretan naturaltasun falta dagoela:

- Batzuen artean elkarbizitza ona dela ikusten da.
- Baina beste batzuen artean bi bloke banandu gisa ikusten dira harremanak.

"hay algunos, es que aquí, bueno pues hay algunos que bien, es que yo creo que la gente que viene de España, no dice, no lo dicen alto y claro, no lo dicen, entonces es una, o sea, la convivencia está bien, pero cada uno piensa diferente no. Hay algunos que conviven bien, pero hay algunos que no acerca uno a otro. No se acercan. Hablan; "hola, ¿Qué tal?", pero cuando se dan la vuelta, "ese es...", nombra a tal, y el otro nombra a tal, y alguna gente que piensan diferentes pero conviven." ES_3

Zentzu horretan egoera politiko berriak elkarbizitzarako aukera berriak zabaldu ditzakeela ikusten da. Baina luzerako izango den kontu gisa irudikatzen da, nolabait alde batetik edo bestetik, familia askori eragiten dion gaia delako. Antzematen da alde bateko edo besteko 'biktimak' dituzte askok familiarrean,

lagun artean, etab. Horrela, zaila izango da hori errespetatu eta batez ere ahaztea. Edozein kasutan, elkarbizitzara behartuta gaudela adierazten da, eta horretarako beraz elkar errespetua eta aitortzaren bidetik urratsak eman beharko direla uste da.

"con el tiempo irá mejorando. Yo creo que aquí hay todavía muchas cosas que resolver no.

P: ¿Y POR EJEMPLO QUE COSAS?

R: pues por ejemplo, pues por ejemplo al gente, yo creo que sobre todo respeto, cuando una persona tiene que respetar lo que piensa el otro, el otro tiene que respetar lo que piensa el otro no. Pues es que aquí, desde mi punto de vista, yo creo que aquí hay, cada familia tiene víctima, de un lado o de otro, yo creo eh. En cada bloque hay seis familias y cada uno tiene, no sé, tiene víctima de un lado o de otro. Yo creo que eso va a superar cuando, a lo largo del tiempo, cuando, como... yo creo que hay que respetar, olvidar... bueno olvidar, no hay que olvidar. Pero, hay que convivir, yo creo que estamos condenados a convivir." ES_3

1.4.5 ATAL HONEN ONDORIO GISA

Euskara eta euskal kulturarekiko hautematea pertenezia sentimendua baldintzatzen du, atal honen hasieran esan dugun bezala. Pertenezia sentimendua lantzen den zerbait da jatorriz honela ematen ez den kasuetan, baina horretarako kultura eta elementu ezberdinak ezagutzeko aukera eta interesa eduki beharra dago.

Migratzaileek, Euskal Herriratzean, eredu kultural ezberdinak dauden gizarte batekin egiten dute topo. Horren berri hasieratik ala bidean izan dezakete, migrazio proiektuak finkatzen dituen erritmo, lehenetsun eta egiten diren harremanen arabera. Eredu kultural horien inguruan ezagutzaren arabera, gerturatze eta irakurketa ezberdinak egingo dira.

Euskal kulturari dagokionez, irakurketa hori osatzerako orduan eragiten duten aldagaiak badaude, besteak beste:

- Euskal kulturara gerturatze dagoen aukera. Aukerak, harremanen bidez sortzen direnak, sozializazio eremuan arabera eta aukerak horri ere denbora eskaintzeko.
- Euskal Herrian daramaten denbora. Epe bat behar dela argi dago, lehenetsunak ez dira integrazio kulturalarekin bidetik joaten, hasiera batean behinik behin.
- Euskal Kulturaren eta bere elementuen baitan (horien artean hizkuntza) norberaren izatea garatzen joateko sentitzen diren aukerak.
- Norberaren ibilbide pertsonalak sortzen dituen gaitasunak, horien artean enpatia gaitasuna. Orriotan ikusi bezala, kultura eta hizkuntza minorizatuakiko sentsibilizazio bat duten pertsonen gerturatzea ezberdina da, enpatia jarrera bat azaltzeko aukera gehiago daude. Hizkuntzarekiko, oro har euskal kulturako adierazpenekiko antzematen da hori, baita politikarekiko ikuspegiari dagokionez ere.

Elementu hauek nahasgailu batean sartuko bagenu, konbinazio ezberdinak aurkituko dira, aurreko atalean aipatu bezala: euskara funtzionala den hizkuntza gisa ulertuko da, harremanerako beharrezkoa ala lan hobea baterako tresna gisa soilik. Euskal kultura, kultura zahar gisa irudikatuko da, ala norberarena egiteko elementuak eskaintzen dituen kultura gisa. Eta egiten den irakurketa horren arabera gerturatze, edota kultura horretara norberak egin ditzaken ekarpenak egiteko jarrerak sortu daitezke.

Politikaz hitz egiten dugula, aipatzekoa da migratzaileek gai honen inguruan hitz egiteko duten zailtasuna eta interes apala. Ez da oso gustuko den gaia. Integrazio politikoa urrunekoa bezala ikusten da, batzuek interesik ez dutelako, eta interesa dutenek ere non txertatu lekurik aurkitzen ez dutelako. Beraz integrazio politikorako bidea oraindik urratzeko eremua da.

1.5 MIGRAZIO PROIEKTUEN HAUTEMATEAK ETA AURRERA BEGIRAKO ESPEKTATIBA

Migrazio proiektu bat hasten denetik aurrera, beti dago **hasierako aurreikuspenak eta errealitatean jarraitu den bidearen arteko kontrastatze bat**. Proiektu migratorioa bera dinamikoa da, sarritan proiektuaren ibilbideak honen hasierako zentzua aldatzera eraman dezakeelarik. Migrazio proiektua aurrera doan heinean hasierako aurreikuspenetan kontuan hartu ez zenituen hainbat aldagai ere aurkitzen dira, edo kontutan hartzen ez ziren egoeren kontzientzi bat hartzen da. Honen adibide, askotan Euskal Herrian aurkitzen dituzten gastuak, edo behin kanpoan denbora bat pasa dela senti dezaketzen inpaktu identitarioa.

"cuando decides emigrar no eres consciente del impacto identitario que va a representar en tu vida. Porque nunca vas a ser, no vuelves a ser de allí y tampoco va a ser del todo de aquí. Entonces siempre vas a jugar, y a veces eres tu mismo el que potencia esta ambigüedad, y otras veces es la propia gente de fuera, como te ve". ES_8

Inpaktu identitario hori abiapuntu izanik eta aurrez egindako espektatibak ahaztu gabe, proiektu migratorioaren inguruan egingo den balantze horretan kontuan hartzen dira besteak beste:

- Lan eremuaren egoera
- Harremanen kalitatea
- Jatorriko familiarekin mantentzen den lotura eta haien egoera
- Hartzailea den herrialdean jasotzen den tratua eta aurkitzen diren zailtasunak
- Dauden zerbitzuak eta hauen funtzionamendua
- Talka kulturalak sortzen duen sentsazioa

A. LAN EREMUAREN EGOERA

Elkarrizketatu guztietan ez bairik gabe kezka sortzen duen gaia lan eremuaren egoera da. Kezka maila halere ezberdina da egonkortasun ekonomiko egoera batean kokatzen diren pertsonengan. Kezka sortzen du gaur egun bizi den egoerak, bi zentzutari:

- **Lan gutxiago dagoelako orokorrean guztien artean banatzeko.**

"La gente... hoy mismo en los servicios... lo que es el servicio doméstico, la gente prefiere hacerlo por la situación económica, la crisis... pues no prefieren contratar... Entonces, no hay trabajo, está complicado. He estado buscando en empresas de limpieza y todo eso; pero no hay." ES_2

- Migratzaile askoren kasuan orain arte **ziurtasuna eman dien lan esparruan euskal jatorri langileak ere sartzten ari direlako**. Askoren kasuan "inork bete nahi ez zituen lanak" eginda ziurtasun bat sentitu izan dute, lana egon bazegoelako. Baina egoera hori aldatzen ari da eta honek kezka sortzen du.

B. ZERBITZUEN INGURUKO BALORAZIOA

Asko aipatu den beste aldagai bat dauden zerbitzuak eta hauen funtzionamenduaren inguruan egiten den balorazioa da. Zerbitzuez ari garenean, ari gara:

- Osasun zerbitzuaz
- Lanaren eremuko zerbitzuak
- Harrera zerbitzuaz

✓ OSASUN ZERBITZUA

Osasun zerbitzua da guztietan balorazio onena duena. Eskaintzen den arreta eta funtzionamendua ona dela aipatu da. Kasu batzuetan estatuko beste zerbitzuekin konparazioan hobea dela ere aitortu da.

✓ LANAREN EREMUKO ZERBITZUAK

Lanaren eremuko zerbitzuen inguruan oraindik orain, askok administrazio mailan 2 administrazio daudenaren sentsazioa azaldu dute. Hau da, administrazioak modu batera jokatzeko duela migratzaileekiko, beste modu batera autoktonoak direnekiko. Ez dira fundatutako epaiak, pertzepzioak baizik.

"bueno yo creo que aquí hay dos administraciones, por ejemplo, una opinión personal, lo piensan mucho, yo gente que conozco así inmigrantes, piensan un montón, el tienen que ir, en el caso del trabajo por ejemplo, piensan que eeee, son los últimos en el trabajo.

P: ¿ESO QUIEN PIENSA?

R: o sea, los inmigrantes. Pensamos que, los últimos, ¿me explico? O sea no... si vas a apuntar a un sitio donde dan empleo, el primero no vas a ser tú, ¿me explico?

P: ¿Y ESA ES LA REALIDAD?

R: pues no lo sé. Puede ser, si. Puede ser que sí, puede ser que no." ES_3

✓ HARRERA ZERBITZUA

Harrera zerbitzuaz balorazioa baino, proposamena egiten da, migratzaileentzat harrera zerbitzu baten beharra aldarrikatuta. Iristean askotan oso galdua sentitu den pertsonaren aldetik egiten den aipamena da, migratzaileentzako bulego baten beharra aipatzen duena. Turismo bulegoaren gisara, bistara eta irisgarria den zerbitzu baten beharra alegia.

"Por ejemplo, hay el centro de información para los extranjeros, para los turistas. También debería haber así mismo un centro donde se pueda informar a lo a la gente de fuera."

ES_2

1.5.1 AURRERA BEGIRAKO ESPEKTATIBAK: AURKITZEN DIREN JARRERAK, DISKURTSOAK

Elkarrizketatu diren pertsonen artean guztiek irudikatzen dute etorkizun hurbila Donostian. Hiri atsegina dela aipatzen dute, eroso, tamaina ona duena. Zerbitzu asko aurkitzeko aukera ematen duena, gertutasun batekin. Jendearen aldetik jaso duten tratuan ez dute kexa asko, jarrera diskriminatzaile batzuk beraien larrutan bizi izan arren ez dio migrazio proiektuari itzal egiten.

Halaber 5 balorazio mota antzeman dira:

1. Familia bertan izanik, krisi ekonomikoa gaindituko denaren itxaropenarekin eta bizi maila egoki bat mantenduz etorkizuna Donostian irudikatzen duena.

Motibazio ekonomikoak bultzatuta euskal herrira etorri den pertsonaren posizioa da. Familia ere bertan duena, bizitza proiektuaren leku bezala euskal herria finkatu duena. Migrazio proiektuarekiko asebetetze maila oso altua da kasu honetan. Donostiak eskaini dizkio bizitzan nahi zuen guztia egiteko aukera. Ez bakarrik behar materialak asetzerara begira, baizik eta harremanak eta garapen pertsonalarekin lotutako esparruetan ere.

Krisi ekonomikoak bere proiektua zalantzan jartzen badu ere, etorkizuna hemen proiektatzen da, Donostia moderno eta anitz batean.

"yo la verdad que he ganado mucho. Ganar no de dinero eh?... a parte de dinero, gano muchos amigos, mucha amistad con gente y... he ganado mucho, no se puede explicar bien eh, pero la verdad que es como mi segunda casa. Después de Pakistán, mi ciudad, donde nací yo. Yo la verdad que tengo mucho amor por Donosti. Si un día necesita sangre mio yo le doy para Donosti, porque yo he ganau mucho. Yo lo que tengo en mi vida es gracias a Donosti. ¿Te he dicho antes no? Era mi sueño cantar en un estudio algún día, y me llevo mi amigo. Es un sueño cumplido, y ya está. Luego otra vez he cantau... Lo que yo quería en la vida, ahora tengo coche, tengo un piso, tengo gente, tengo respeto de gente y... La verda muy bien todo." ES_1

Migrazio proiektuarekin galdu denaren inguruan galdetzean, familiarekiko kontaktua aipatzen da. Halaber, gaur egungo teknologia berriek oztopo horretan aurrera pausu bat ematea baimentzen dutela adierazten da, skypen eskutik munduko distantziak txiki bihurtuta.

2. Familia bertan izanik, etorkizun hurbila Donostian eta epe ertain-luzera jaioterrian irudikatzen duena.

Migrazio proiektua etorkizunerako inbertsio gisa irudikatzen da. Etorkizun hurbila beraz Donostian irudikatzen da, baina zahartzaroa jatorriko herrian pasatzeko asmotan.

Motibazio ekonomikoak bultzatuta, hasieran irudikatzen zen herri aberats horretan gastu eta zailtasunekin ere aurkitu da bidean. Horri gaur egungo krisi egoera

gehituta zalantzan jartzen da zein puntutaraino izango diren gai egoerari aurre egiteko. Halere, desioa berehalakoan ez mugitzea da, batez ere seme alabak bertan izanik etorkizun hobeago bat eskaintzeko aukera ikusten delako.

Etorkizuna jatorriko herrialdean irudikatzeko arrazoia migrazio proiektuak berarengan duen inpaktu identitarioaren eskutik dator. Pertenentzia sentimendua garrantzitsua da kasu honetan, eta Euskal Herriarekiko atxikimendu hori ez da sentitzen. Gizakiak gizaki den heinean nonbaitekoa izateko eta sentitzeko beharra duela argudiatzen da. Euskal gizarteak epe batez hemengoa izateko aukera ematen du zentzu horretan, baina ez norbere identitatea horren baitan eraikitzeko. Beti migratzaile izango direla aipatzen da.

"Es que (tose) la razón es que nosotros al final no terminamos ni de ser de aquí ni de allá. Aquí somos qué: inmigrantes, extranjeros. Y en nuestro país también somos los de fuera, los que... si es que no hay... Al final, el ser humano necesita echar raíces y yo aquí cómo echo raíces. De pronto mis hijos pueden echar, rai, rai, raíces, porque vinieron desde pequeños, se han escolarizado y todo. Pero nooo, nosotros... yo pienso que el ser humano siempre vuelve al sitio donde salió. Y yo siempreeee he pensado volver a mi país. Porque por lo menos ése es mi país". ES_2

Horretaz gain, norberaren eraikuntza pertsonala eta garapenaren bidean zailtasunak besterik ez dira aurkitu Euskal Herrian. Bizirauteko aukera ez da zalantzan jartzen, baina bai herriak NOR izateko eskaintzen duen aukera. Beraz, etorkizuna jaioterrian ikusten da ez bairik gabe.

"nuestro futuro es nuestro país. Entonces que, eso hay que entenderlo, si no... Yo, por ejemplo, yo desde que he venido acá, he trabajado en casa, cuidando personas mayores, cuidando niños, limpiando casa, en restaurantes... Pero en lo que yo he estudiado, que me he matado en mi área estudiando, jamás he trabajado. Y he trabajado en todo, en todo. En cambio, si yo regreso a mi país, yo allá voy a poder trabajar en mi área. Y si no trabajo, pero voy a, voy a ser la abogada. Entonces allá sí soy alguien. Aquí no. Entonces, es un instinto de supervivencia nada más." ES_2

3. Jatorriko herrialdean lana ziurtatua izanik Donostiak eskaintzen dion bizi kalitatea mantentzen den heinean bueltarik irudikatzen ez duena

Euskal Herrira emigratzearen arrazoiak motibazio ekonomikoetara lotuak izan ez diren pertsonaren kasua da. Bizi esperientzia atsegin eta aberasgarri bat bilatzea helburua izanik asebetetze maila oso altua da zentzu horretan. Gustura aurkitzen da Donostian. Zailtasunak garatzen jarraitzeko bidea aurkitu da, hizkuntzak ikasteko aukera ere. Eguraldi ona, gastronomia eta bizi kalitate ona duen hiri batean aurkitzen da.

Etorkizunaren inguruan halaber zalantza krisiaren aldetik baino bere jatorrizko herrialdean lanpostua mantenduko ote diotenaren bidetik dator. Momentu batean erabaki bat hartu beharko duela ikusten da. Bitartean, eta Donostian dagoen bizi kalitatea mantentzeko aukera dagoen bitartean ez da mugitzeko asmorik adierazten.

"Si, mientras nos guste la vida aquí nos quedamos, y si no, si alguien no... Si nadie nos echa, nos vamos. Porque ya todavía tengo la posibilidad de trabajar en Alemania." ES_4

4. Familia bertan eraikita migrazio proiektuaren zentzua aldatu zaiona

Lehen adierazi bezala proiektu migratorioa dinamikoa da. Kasu askotan proiektua beraren zentzua erabat aldatzen da ibilbide horretan. Kasu hauetako asko Euskal Herriko jatorria duen bikotekidea osatzearen eskutik dator.

Diskurtso honetan kokatzen dira beraien bikotekidearen jatorrizko herrialdea Euskal Herria izanik eta seme alabak bertan izanik etorkizuna bai ala bai bertan irudikatzen dutenak.

5. Beste hainbat esperientziek emandako ezagutzaren konparaziotik abiatuta bere bizitza proiektua Donostian egonkortzen ari dena.

Beste herrietako esperientzia izan du, eta konparaketan nahiago du hemen bizi. Inpaktu identitarioa garrantzitsua beretzat. Dagoeneko ez da hangoa, ez hemengoa, eta bere lekua momentu honetan gustura sentitzen den lekuan proiektatzen du, Euskal Herrian, Donostian. Antzekotasunak ditu bere jaioterriarekin, eta Donostia da gustuko duen hiria.

"a demás que Donosti es una ciudad que me gusta. Y es muy curioso, porque yo he nacido en una ciudad llamado Gotemas (bera jaio zen hiriaren izena esaten du), que es parecido a Donosti, tiene mar... Pero llevo diez años sin ir, pero cuando fue, yo, cuando fue, ya pase una semana allí, ya, ya, no me pasaba el tiempo, me explico, como si ya yo no soy de allí. Yo quería volver. O sea me pase una temporada así que vamos, como no soy de allí, como un desconocido. Y es muy curioso, como un tío, tú naces en un país, y vuelves y te sientes que, como si ya no eres de allí. Eso quiere decir que ya me he acostumbrau aquí." ES_3

Geratzeko konbentzimendu horretan krisiren mamua hor dagoen arren, ahal duen neurrian behinik behin Donostiatik mugituko ez dela argi dauka. Hain argi dauka anaia ere gerturatzera animatzen duela.

"bueno el vivía en Madrid, pero yo estaba aquí, en su día ya, cuando empieza la crisis pues, bueno yo siempre he hablau que aquí es muy bueno y tal... aquí muy diferente, y me decía; "tienes que venir a Madrid" y yo digo; "nunca abandonaré San Sebastian y...", el "es Madrid mejor", pues una vez le he dicho, "pues si quieres ver, ver para creer", y vino de visita, cuando vio le gusto y dijo; "yo también me quedare aquí". ES_3

Bere inguruko kasua beti ere horrela izan ez dela aitortzen duen arren, bere larrutan herritarren aldetik ez du esperientzia diskriminatzaile bizi izan. Zerbitzu batzuen inguruan egin du kritika (ertzainen kasua aipatu da hasiera batean), baina bizilagunekin, ikaskideekin harremana ona da. Are gehiago eskertuta dago, jaso duen laguntzagaririk eta beraiekin ere ikasi duela aitortzen du.

"Yo se cosas de mi propia, de mis antepasados digamos, estando alrededor de los gipuzkoanos, o de los donostiaras". ES_3

2

**ESPAINIAR ESTATUKO JATORRIA ETA EUSKAL
JATORRIA DUTEN DONOSTIARREN HAUTEMATE
ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK.**

Bigarren atala antolatzeko garaian, **Donostian bizi izan diren bi migrazio olatuak kontuan hartu dira. Migrazio olatu hauen aurrean bizipena oso ezberdina** izan da eta beraz **garrantzitsutzat jo da horri atal bat eskaintzea. Beraz, lehen zatian Espainiar estatuko jatorria eta euskal jatorria duten donostiarren arteko elkarbizitza eta hautemateen inguruko zertzeladak jaso dira. Bigarrenean berriz, pertsona multzo horrek Espainiar estatutik kanpoko jatorria duten donostiarrei buruz dituzten hautemateak aztertu dira.**

2.1 KULTUR ERREFERENTZIA EUSKALDUNA EDOTA GAZTELANIADUNA DUTEN DONOSTIARREN ARTEKO ELKARBIZITZAREN BILAKAERA.

2.1.1 ELKARBIZITZAREN GORABEHERAK HIRU BELAUNALDIEN PERSPEKTIBAN.

Donostiak, Euskal Herriko gune industrializatuenean bezala, immigrazio fenomeno indartsua bizi izan zuen XX. mendeko 60 eta 70eko hamarkadetan. Donostian horrek izan zuen dimentsiora hurbilpen apal gisa, aipa daiteke Espainiako Estatuan jaio eta 55 urtetik goragokoak, 19.836 pertsona hain zuzen, adin horretan kokatzen diren donostiarren %29,7a direla eta populazio osoaren %10,56a.

Kontuan hartu behar da immigrazio horrek ez zituela ondorio berberak izan Espainiako Estatu osoan. Hain zuzen ere, estaturik gabeko nazioetan bestelako ondorioak eta ñabardurak izan zituen, Euskal Herrian edo Katalunian, adibidez. Beraz, immigrazio prozesu hark sortu zituen ondorioak eta elkarbizitzarako erronkak aztertu ahal izateko, garrantzitsua da testuinguru politiko, kultural eta soziala kontuan izatea.

Bestela esanda, Euskal Herrian migrazio prozesu hori eta jatorri eta kultura ezberdinetako pertsonen arteko harreman berriak sortzen ziren, identitate nazionalen lehia eta talka dagoen lurralde batean.

Identitate ezberdinen talka horretan hiru posizio ezberdin antzeman zitezkeen:

- **Etnia kontzientzia bat zuten pertsonak:** sorterriarekiko maitasuna gordetzen zuten eta naziotzat beste lurralde bat eduki. Alegia, Espainiako nazioa onartzen zuten, baina horren barruan nolabaiteko kultur ezberdintasuna agertzen duen herri bat badela zehaztuz: Euskal Herria. Erregionalismoarekin lotu genezaken ideia da.
- **Euskal kontzientzia nazionala zutenak:** nazio kontzientzia nazionalismoarekin batu behar da. Kasu honetan Euskal Herriarekiko atxikimendua konnotazio politikoa zeukan, eta maila horretako helburu bat bilatzen zen.
- **Espainiar kontzientzia nazionala zutenak:** Espainiar nazio kultura barneratu zuten pertsonak ziren. Estatuarekiko atxikimendua eta nazio ikuspegia gailentzen zen.

A. ESPAINIAKO ESTATUKO JATORRIA DUTEN PERTSONEN IMMIGRAZIO PROZESUA ETA ONDORIOEN ZERTZELADAK.

- ✓ **MOTIBAZIO EKONOMIKOAK BULTZATUTA 'ESPAINIA IPARRALDERA' IRITSI ZIREN**

Migratzaile berrien kasuan bezala, espainiar jatorriko migratzaileak motibazio ekonomikoak bultzatuta etorri ziren Euskal Herrira, familiartekoren batek animatuta, edo enpresak lan lekua aldatuta bizi proiektu bat eraikitzeko asmotan ala denbora baterako lan bila.

"Vine destinado por xxxx a, eh bueno, las empresas de construcción y de construcciones marítimas, cuando se acaba una obra, pues, pues, te trasladan y te dan otra obra." ES_6

Beraien irudipenean Espainia erreferentziatzen izanik, pertsona horien pertzepzioa barne migrazio bat egiten zutenaren zen. Honela, erreferentzia gutxi zeuden hizkuntza eta kultura ezberdin baten inguruan. Ibilbidean beraz lehen talka, migratzaile berriekin pasatzen den tankerara, hizkuntza ezberdin batekin egin zuten.

✓ DONOSTIAN DATU DEMOGRAFIKOETAN IGOERA NABARMENA SUPOSATU ZUEN ETA BANAKETA ESPAZIAL BAT EMAN ZEN AUZOEN ARABERA

Donostian 60-70. hamarkadetakoa migrazio olatuak biztanleriaren igoera esanguratsu bat suposatu zuen. Donostiako demografia hazkunde datu esanguratsuenak 30. hamarkadan eta 50 eta 60. hamarkadatan gertatu ziren. Batez ere, Espainiar Estatuko herrialdeetatik lan bila joandako migratzaileez elikatu zen gorakada hau. 1991. urtean Espainiar Estatuko gainerako herrialdeetan jaiotako ia 35.000 herritar zenbatu ziren.

Datu demografikoetan igoera bat emateaz gain, Donostian bertan banaketa espazial bat ere eman zen. Espainiar migratzaileak Alza, Herrera, Loiola eta Bidebieta auzoetan kokatu ziren batik bat. (gaur egun jatorri espainiarreko donostiar kopuru altuenak jasotzen diren auzoak izaten jarraitzen dute)

"Todos los inmigrantes de la península estamos en Alza. Es verdad, es verdad!" ET

✓ MIGRAZIO OLATU HORREN AURREAN TALKA IDENTITARIOAK GARRANTZIA IZAN ZUEN

Testuinguru honetan Euskal Herri mailan **hainbat herrietan euskal identitate nazionalari atxikitzen zitzaizkion herritarrek Espainiako migratzaileak mehatxu gisa irudikatu zituzten**. Kasu askotan mehatxu eta asimilazio beldur horren aurrean, euskarri etniko-kulturalak indartzera pasatzen ziren. Aurrerantzean hizkuntza eta kultur ezberdintasunak kontzientzia nazionala sortu eta birsortzeko prozesuaren logikan txertatu ziren hainbat herritar, elkarrekiko aurkakotasunean.

Euskal Herri mailan hainbat lekuetan bizipena honelako izan zen arren, **donostiarren hautemateetan ez da jaso intentsua izan den bizipenik gai horri dagokionez**. Hirietan ematen den 'diluitze' baten ondorioz akaso, ala espainiar migratzaileak eta donostiar jatorriko herritarrak auzo berezietan bizi izatearen ondorioz. Nolabait, gaur egun migrazio berriekiko harremanetan gertatzen den bezala, bloke ezberdinetan bizi izan zirenen inpresioa dago, elkarren artean gehiegi nahastu gabe.

"más que en la capital igual en los pueblos. Igual en San Sebastián como que no ha habido tanto, creo yo. Yo no lo he notado. Igual alguna cosa puntual de... pero bueno, que no."
ES_10

Halaber, banaketa jarrera bat egon zela onartzen da, bai migratzaile espainiarren aldetik, bai eta jatorri donostiarra zuten pertsonen aldetik ere. Eta honen inguruko bizipenak pertsonak bezain anitzak dira.

Kasu batzuetan migratzaile espainiar izatearen 'kategorizazioa' egin izana salatzen da. Honela, euskal jatorria zuten askok, pertsona ezagutu beharrean aurreiritzi horretatik jokatu zutela nabarmenduz.

"Yo creo que la mayoría de la gente no nos ha tratado mal. Había ciertas personas que sí. Ehhh, si lees esa novela te darás cuenta... Bueno, yo por ejemplo, que he entrado en una familia impresionante, yo recuerdo que, cuando se enteró mi cuñado que estaba terminando medicina... tu tío... "pero qué haces con un gallego, joder". "Te regalo un 600 si lo dejas ya". Luego fuimos entrañables y somos entrañables; pero vamos, el primer choque hasta que te conocen..." ES_6

Beste batzuen hitzetan espainiar migratzaile askoren jarrera defentsiboa da nabarmentzen dena, elkarbizitzan lagundu ez zuena. Hartzaile zen herriaren aurrean integratzeko saiakera gutxi egin zirela salatzen da, euskal herritarren identitatea eta kultura ez errespetatuz eta gutxietsiz.

*"P: "CUANDO ALGUNOS NO SE QUERIAN INTEGRAR". QUE QUERIAS DECIR CON ESO?
R: Gente que igual ha venido y le ha costado mucho integrarse. No solo en el idioma, sino en la cultura, en todo. Y encima despreciar, cogen y despreciar a la gente que te acoge."* ES_10

✓ GAUR EGUN HARREMANAK HOBETU DIRENAREN SENTSAZIOA DAGO

Gaur egun talka identitarioa askoz ere gutxiago nabaritzen denaren sentrazioa dago donostiarren artean. **Zertan oinarritzen dute jatorri eta erreferentzia kultural ezberdina duten donostiarrak harremanak hobetu izanaren hautematea?**

- **Batetik, izan den nahasketa sozial eta kulturean.** 60-70 hamarkadan etorritakoak nahiz horien seme alabetako askok, beste gauzen artean, bikote mistoak osatu dituzte eta lagunarte ezberdinetan txertatu dira. Belaunaldi batek beti ere aukera ematen du jendearen arteko harremanak beste bide batzuetatik eramateko, eta arrazoi ezberdinengatik jatorri ezberdinetako pertsonen artean interakzioa egoteko.
- Hezkuntza: famili horiek izan dituzten umeak **euskarazko hizkuntza erduetan matrikulatu dituzte gehiengo baten kasuan.** Beraz euskara modu batera ala bestera familia ezberdinetan txertatzen joan da, eta beraz euskararekiko harremana ere beste modu batera bizitzen joan da.
- Azkenik, eta **batez ere egoera politikoaren hobekuntza**ren ildotik dator hautematearen oinarria.

✓ EGOERA POLITIKO BERRIA ELKAR GERTURATZEKO LAGUNGARRIA SUERTATUKO DELA USTE DA

Ez bairik gabe aipatzen den kontua da egoera politikoa. Identitate talka hori maila batean ala bestean nabarmena izan zitekeen bezala, **egoera politikoak elkarbizitzan eragin garbia izan duela guztien ahotan jaso den adierazpena** da.

"Hombre, empeora la convivencia entre todo el mundo; o sea no sólo entre inmigrantes y autóctonos. De hecho, había una situación de violencia; había personas que por su situación... por sus opiniones políticas sean asesinadas, había otras personas que eran encarceladas, había otras personas que se escapaban de aquí... eso incidía en la convivencia de todo el mun, de toda la sociedad." ES_6

Kontzientzia etniko bat duten herritarren artean urtetan zehar politikak bazterrak nahastu besterik ez dituenaren sentsazioa nabarmentzen da. Honek euskal gizartea eta euskal kulturarekiko gerturatzean muga handiak sortuz. Kulturek berez elkar elikatzeko aukera ematen dutela uste da, eta politikak berriz banaketak besterik sortzen ez dituela aitortzen da.

"lo explico sencillamente que, que ten, queeee mmm soy un hombre que quiere mucho la cultura vasca y, y la ha estudiado mucho; y si vas a la biblioteca hay más libros que hablan de la cultura vasca que de la cultura gallega... y sencillamente... tengo el corazón partido. Perooo, pero no separado. Yo es que... las culturas tienen una ventaja sobre las ideas políticas: que no se dan de ostias, se enriquecen. Hay un "osmosis", una "osmosis" importante entre una cultura y otra cultura. Sin embargo, entre mi ideario político y tu ideario político, no hay esa "osmosis". Eso es lo que nos separa." ES_6

Beraz, **errealitate politiko berriak euskal herritarrekiko estereotipo negatiboak, mesfidantzak eta inkomunikazioak gainditzen lagunduko duenaren itzaropena** nabarmentzen da donostiar hauen artean. Halaber, **bi aldagai garrantzitsuak** nabarmentzen dira horretan:

- **Denbora.** Denboraren aldagaia funtsezkoa ikusten da. Denbora eman behar zaio hiriari eta hiritarrei, egoera berriaren aurrean zauriak sendatu, urteetako bizipenen digestioa egin eta egoera berri hau kudeatzen ikasteko.
- **Pertsonen jarrera.** Errealitate politiko berri honetan bide eta zubi berriak eraikitzeke jarrera eraikitzaile baten beharra dago, hiritar guztien aldetik. Sarritan enfokea ez dela zuzena salatzen da, **alde guztietako pertsonak komunean dutena ikusi beharrean banatzen dituen elementuetan jartzen delarik arreta (edallontzian erdi hutsik ala erdi beterik ikusi).**

"Entonces, claro, ahora estamos muy acostumbrados a vivir muy deprisa; demasiado deprisa. Y eso creo que no es bueno. Y sobre todo, en los temas ideológicos. Yo creo que sí, sigo diciendo lo mismo: creo que se dialoga mucho, se, se habla mucho, y se dialoga muy poco. Y después oye... hay que dejarse como, como, comooooo... decía... joer, no me acuerdo... como decía Garaikoetxea, que fue al primero que le escuche yo: "hay que dejarse los peros en la cartera". Si no ponemos de todos, todos tenemos que prescindir de algo. Y, jijj, y empezar a hablar de lo que nos une; nunca de por lo que nos separa. ¡Aquí no estamos hablando de por lo que nos une! ¡Siempre empezamos a

hablar de por lo que nos separa! Y tratamos de arreglar en 24 horas lo que nos separa. Cuando hay muchas cosas que nos unen a todos" ES_6

✓ ELKAR AITORTZARAKO AUKERAK URRUN IKUSTEN DIRA ORAINDIK

Aurrera pausak eman diren arren, eta egoera politiko berria aukera bezala ikusi arren, oraindik elkar aitortza batetik urrun dagoen egoera batean gaudela jasotzen da.

Garaiko migratzaile espainiarrekiko ikuspegia eta egin zuten ekarpena lan eskuaren alderditik begiratzen da batez ere, beraz ez zaie bestelako ekarpenik aitortzen. Beste ikuspegi bat dutenak migratzaile haien seme alabak dira. **Migrazio mugimendu hark suposatzen zuen aniztasuna eta ondoriozko mestizaiaz hitz egiten duten bakarrak dira, mestizai hori elementu positibo gisa ikusita.**

Euskal jatorria duten pertsonetikiko aitortza ere urrun dago oraindik orain. Talka hark izan zuen eraginaren inguruan eta migratzaile batzuek izan zuten jarrerari buruz ez da aipamenik egiten.

Halaber, jarrera batzuk elkar gerturatu dira. Batzuk eta besteek harreman falta edo harreman mota horietan izan zuten ardura bere gain hartzen dituzte. Espainiar migratzaile batzuk euskal jatorria zutenekiko beraien jarrera defentsiboa izan zela onartuz, eta euskal jatorria zutenek ere jarrera zabal bat mantendu ez zutela aipatuz. Nolabait, **norberaren jarreraren inguruko aitortza bat egiten da, eta bestearekiko jarrera enpatiko bat nabarmentzen hasi da.**

"Todos los que hemos salido, todos los que hemos salido de nuestra tierra, de momento, estamos a la defensiva. Eso es así. Yo cuando voy a un sitio, todavía lo tengo en los genes y estoy a la defensiva, a ver qué pasa. Entonces, eeeh, eso ha salido de todos. Yo estaba a la defensiva, pero, vamos, me iba a todas las fiestas populares, cuando estos eran pequeños, me iba a la sidrería. Estaba a la defensiva, pero ... Yo siempre he procurado conocer muy bien, y para conocer una cosa, y para ver una cosa, tienes que mirar desde la acera. Entonces, tienes que conocer a la gente, que te hable y eso. Siempre hay algún gilipollas, que te, que te dice una chorrada que te molesta y yo salto. Claro! Pero luego lo piensas y dices bueno y qué pasa en Galicia con los vascos... ..." ES_6

Beraz, batzuen ustez jarrerak gerturatu dira, posizioak mugitu dira. Baina elkar gerturatze hori elkar aitortzarako bidean kokatzerako oraindik pausu asko eman beharrean daudela sentitzen da.

2.1.2 EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN GAINEKO HAUTEMATEAK: BERE ESTATUSA ETA FUNTZIONALITATEAREN INGURUKO IKUSPEGIAK.

Azpiatal honen mamiari heltzeko oso baliagarria izango dira aurreko atal batzuetan aurkeztutako kontzeptu batzuk. Aurkeztuta daudenez, hemen soilik gaineratik aipatuko ditugu, hala nola: kontzientzia etniko eta kontzientzia nazionalaren arteko ezberdintasunak, eta integrazioaren bizipen subjektiboa oinarritzeko bide sozio-ekonomikoa, kulturala eta politikoa.

Hauek gogoratuta, ekin diezaiogun euskara eta euskal kulturari buruz dauden diskurtsoak azaltzera.

A. EUSKARARI BURUZ DAUDEN HAUTEMATEAK

EUSKARARI buruz dauden hautemateak direla eta, **lau diskurtso** topa daitezke, **nahiz eta berez hiru posizio** ezberdin diren:

- **Euskal kontzientzia nazional batetik, euskara erdigunean jartzen duen diskurtsoa.**
- **Kontzientzia etniko batetik bi posizio daude:**
 - **Euskara erdigunean jartzen duen diskurtsoa**
 - **Herri elebidun gisa irudikatuz, euskara eta gaztelania berdintasun batean kokatzen duen diskurtsoa**
- **Espainiar kontzientzia nazional batetik, hizkuntza harremanetan euskara menpeko egoera batean jartzen duen diskurtsoa.**

✓ EUSKARA HERRIAREN HIZKUNTZA IZANIK, ERDIGUNEAN JARTZEN DA

Posizio honetan kokatzen dira euskal kontzientzia nazionala dutenak eta kontzientzia etniko bat duten asko ere.

Diskurtso honetan **euskara erdigunean** jartzen da. Euskara da euskaldunon hizkuntza. Leku berezia aitortzen zaio beraz, bi hizkuntza elkar bizi diren herri honetan. Euskara eta euskal kulturaren artean lotura egiten da. **Hizkuntzak mundua ulertzeko modu bat ematen du, eta hizkuntza horren bitartez eta mundua ikusteko modu horretatik eraikitzen dena da euskal kultura.**

Euskara eta euskal kultura eguneroko bizitzari lotuta irudikatzen da, presente egon behar du bizitzako eremu guztietan, kanean, eskolan, administrazio mailan, lan esparruan, harremanetan. Ildo honetatik balorazio eza sentitzen da euskararekiko gertutasun bat adierazten ez duen pertsonaren aurrean, errespetu falta gisa kontsideratuta.

"Hori da. Azken finean da hori, da jarrera. Eta niretzat da errespetua, errespetua! Zeren eta ez baldin bazatoz eta... ba minimo batzuk, ba lau hitz. Agurrak, ez dakit zer, badakit zer. Minimo batzuk." ES_7

Erdal hiztunak diren migratzaileen aurrean ere (garaiko espainiar migratzaileak izan ala migratzaile berriak) jarrera berdina salatzen da. Nolabaiteko onarpen bat dago euskara ikasteak sor ditzakeen zailtasunen aurrean helduak diren pertsonak ikasten ez dutenean. Baina seme alaben artean euskara ez sustatzea eta beste hizkuntzei lehentasuna ematea errespetu faltatzat hartzen da, euskarari inolako garrantzia ematen ez zaionaren seinale dela argudiatuta.

"Esaten duzu, bueno, beraiek zaila izan dute, beraiek ez dute aukerarik izan gazte garaian, gero ya lanean daude eta nik ulertzen dut o sea, ba egunean 8-10 ordu lan egin eta gero euskaltegi batera joatea oso gogorra dela. Nik badakit lanean ordu asko pasa ondoren ze gogo geratzen zaidan eta nik ingelesa ikasten hasteko adibidez. Ba, ez daukat gogorik, nekatuta nago eta nahi dut beste lasaitasun bat, ez? Orduan, hori ulertu dezaket, baina gero lehen esan dizudana: Bueno, zuk ez duzu aukerarik izan baina zure seme-alabak... Edo bestela da ez diozula inongo garrantziarik ematen! Zeren eta izan daiteke, ez duzu aukerarik izan eta oso zaila da, eta ez daukazu indarrik, bale, onartzen dut. Baina bestea da ya ez diozula garrantziarik ematen." ES_7

Posizio honetatik euskaldunak jatorri ezberdinetako migratzaileekiko harremanera erabat zabalik dauden herritar gisa ikusten dira, bestearen aldetik jarrera ona dagoen heinean.

"Si tú tienes una actitud abierta yo creo que en este país y ya vale de echarnos flores pero lo voy a decir: somos gente maravillosa. Con una actitud abierta la gente te trata bien y eso hace mucha diferencia. Si tu actitud es como me dijeron a mi en el Kelly's – que no he vuelto a entrar–: "Hablame en cristiano!". Y dije, lo que me faltaba!" ET

Euskararen osasunarekiko kezka azaltzen da, erabilerari dagokionez batez ere. Jatorri donostiarra duten pertsonen artean erabilera gutxitzen ari dela nabarmentzen da, eremu ezberdinetan antzematen den gauza dela baieztatuz. Honela, erdal hiztuna den testuinguru hori migratzaileak euskarara gerturatzeko oztopoa izango dela iritzi da.

"nik lehenengo gauza euskaraz hitz egin behar badugu eskatuko diet euskaraz hitz egiteko hemengoek. O sea, es que hemengoek ez baldin badugu euskaraz hitz egiten kanpotarrek zer ikasiko dute? O sea, orduan nire lagunak erdaraz hasten badira erdaraz hitz egiten Brasilgo bati ez diot eskatuko euskaraz hitz egitea, zeren hemengoek bertakook ez dugu hitz egiten orduan ez dauka zentzurik. Orduan lehenengo bertakoak egin behar dugula." ES_11

Diskurtso honetan kokatzen dira euskal jatorria duten pertsonak, eta guraso mistoak dituzten pertsonak baina hizkuntza erdua euskara izan dutenak. Kasu gehienetan egoera sozioekonomiko egonkorra duten pertsonak dira, eta ikuspegi kolektibo bat dutenak.

- ✓ BI HIZKUNTZEN ARTEKO BERDINTASUNA EMATEN DEN ELEBIDUNA DEN HERRIALDE BATEAN KOKATZEN DIRA

Posizio honetan aurkitzen diren pertsonak, hizkuntzari dagokionez elebiduna den herrialde batean kokatzen dira. Hau da, gaztelera eta euskara berdintasun batean kokatzen dituzte.

Ikuspegi elebidun horretatik **biak ikusten dira beharrezkoak herri honetan eta biei lekua egin behar zaiela** sentitzen da, eremu formalean (administrazioan, eskolan, etab.), bien presentzia logiko eta beharrezkoa ikusiz.

"Si, las dos lenguas. Las dos lenguas imprescindibles. Porque como tu has dicho, hay algunos que quieren hablar en euskara y otros en castellano. Y yo creo que tienen que tener los dos el mismo derecho. Y creo que tiene que ser imprescindible una de las exigencias para entrar a un puesto de la administración, saber el euskara y el castellano al menos en Euskadi." ES_10

Diskurtso honetan kokatzen diren donostiarrek jatorriz gaztelera dute ama hizkuntza eta ez dute euskara egunerokoan erabiltzen. Gehiengo batek hizkuntzarekiko atxikimendu hori ez du jaso ez eskolan eta ez familian. Hemen kokatzen dira euskal jatorria duten pertsona batzuk, espainiar migratzaile batzuk (bikoteak euskal jatorria dutenekin sortu dituztenak), hauen seme alabak eta guraso mistoak dituzten pertsona batzuk ere.

Etxean atxikimendu hori jaso ez arren, batzuk euskarara gerturatzeko saiakera egin dute helduaroan, euskaltegia edo barnetegietara joanaz. Bi arrazoiei erantzuten die gerturatze honek:

- Euskara eta euskal kulturarekiko harremana egiten da eta kulturako elementu garrantzitsu bezala gerturatze bat ematen da
- Harremanetarako eta lanerako ere hizkuntza garrantzitsua dela ikusten da

Edozein kasutan beraien aldetik hobetzeko dagoen alderdi bezala irudikatzen dute askok. Euskal hiztunek beraien aurrean gaztelarrera pasa 'behar' izatea ez zaie gehiegi gustatzen, eta benetan elebitasun hori sustatu nahi bada beraien ere euskara gerturatzeko esfortzua egin behar dutela uste da.

"R1: O sea, vemos algo a mejorar, por lo menos yo por mi parte a mejorar, que no se tenga que hablar castellano cuando este yo porque yo tengo que aprender euskara. Si es algo ya mío..." ES_12

Seme alaben matrikulatzerako orduan D ereduak aukeratzen dira. Txikitan hizkuntza ikasteko aukerarik ez da izan, eta seme alabei ez zaie aukera hori ukatu nahi.

"Pues porque yo no puede aprender euskara cuando fui al colegio y yo quería que mis hijas que están aquí hablen... tienen que saber el idioma de aquí no? Por supuesto! Porque creo que en un pueblo en un sitio, lo más importante de la cultura de ese pueblo es el idioma. Encima un idioma que ha estado reprimido durante 40 años, pues había que sacarlo para adelante, no? Y en mi caso, ya que yo he estado reprimido y no he podido aprender euskara en el colegio, pues al menos dar la oportunidad a mis hijas de que yo aprendieran y que hablen euskara." ES_10

Euskarari etorkizun ona ikusten zaio


Euskararen etorkizunari dagokionez, etorkizun on bat irudikatzen da posizio honetatik. Euskararen gaia 'belaunaldi arazo' bat dela adierazten da, denborarekin konponduko dena.

"hay que darle tiempo al tiempo. Lo que te he dicho antes. De la generación mía para atrás seguramente que todos van a saber euskara y castellano normalmente. Pero de la generación mía para delante hay que darle tiempo al tiempo." ES_10

Halaber baieztapen hau egiteko ezagutza mailan oinarritzen direla pentsa genezake. Eskolan euskara ikasteak ezagutza maila areagotzen ari dela adierazten dute datuek ondorengo grafikoetan ikusi daiteken bezala.


Donostiako datu soziolinguistikoak

Hizkuntza-gaitasuna



Iturria: Donostiako udaleko web orria

Erabilerari dagokionez aldiz, datuak ez dira hain positiboak. Soziolinguistikako klusterrak egindako azken kale neurketen arabera erabileran beherakada bat ematen ari da. Donostian 1989tik 2011 arte erabilera mailak ia sei puntu gora egin zuela aipatzen da. Baina 2001 eta 2011ko neurketak ia maila berdina ematen dute (%15,2 inguru), eta tartean, 2006an, erabilera maila 2011an baino altuagoa zela azaltzen da (%18 ingurukoa). Ondorengo grafikoan zehatzago ikusi daiteke erabileraren garapena.



Iturria: soziolinguistika klusterra 2011ko datuak

✓ EUSKARA GAZTELANIAREKIKO MENPEKOTASUN EGOERA BATEAN IRUDIKATZEN DA

Posizio honetatik euskara eta euskal kultura espainiar estatuaren barne menpekotasun egoera batean kokatzen da. Hizkuntzari dagokionez, eta espainiar kontzientzia nazional baten ikuspuntutik, **herritar nazional guztiak komunikatzeko tresna normalena gaztelera da. Gaztelera komunean badago euskara ikasteari ez zaio beharrik ikusten.** Harremanak eta lanaren esparruan euskararen beharrik ere ez da inoiz sentitu, beraz balio instrumental hori ere ez zaio egotzi hizkuntzari.

"Cuando estaban hablando en euskera, la verdad es que con el entorno que he estau, siempre han estau hablando en castellano, entonces tampoco he tenido mayor problema, y con los trabajos tampoco me han exigido realmente euskera, he hablau castellano. O sea que yo en ese sentido..." ES_13

Seme-alabak matrikulatzerako orduan hasieran A ereduan matrikulatzen dira. Denborarekin eta euskal herrian etorkizuna irudikatzen den neurrian euskararen beharraz jabetuta seme alaba txikiak B eredura pasatzea erabakitzen da kasu askotan. Edozein kasutan euskaraz ikasteko hautua euskararen balio instrumentalari begiratuz egiten da beti ere.

"yo quiero que aprendan mis hijos el euskera, porque estamos viviendo aquí y para el día de mañana los estudios, o sea el euskera es lo mas, porque si tu no tienes el euskera, aquí no te van a coger para trabajar, para nada. Entonces opte, pues a que el pequeño fuera aquí, todo en euskera." ES_13

B. EUSKAL KULTURARI BURUZKO HAUTEMATEAK

Euskarari lotuta aurrez aipatu ditugun diskurtsoekin batera, eta horiekin harreman estuan, **euskal kulturari buruzko hautemateak** daude. **Hautemate horien oinarrian euskal kulturari buruzko diskurtso hauek bereiz daitezke:**

- **Euskal kontzientzia nazional batetik, euskal kultura euskarari eta eguneroko bizitzari lotuta irudikatzen da. Kultura horri funtzio balioa², balio sinbolikoa eta zeinu balio positiboak atxikitzen zaizkio.**
- **Kontzientzia etniko batetik, euskal herria herri bikultural gisa irudikatzen da. Euskara ez da kasu guztietan euskal kulturarekin lotzen, ezta ere eguneroko bizitzarekin.**
- **Espainiar kontzientzia nazional batetik, euskal kulturaren inguruko ez-egzagutza aitortzen da eta ez zaizkio ezaugarririk egotzen**

² Edozein objektu, kulturalak barne, hainbat balioren arabera aztertu ahal dira:

- Funtzio balioa: funtzio komunikatiboa alegia, elkarren artean ulertzeko eta harremanetarako.
- Balio sinbolikoa: irudikatzen duena, zerekin lotzen den irudipen mailan.
- Eta zeinu balioa: Zeinu balioarekin, objektu horren balioa objektu sistema baten barruan kokatzen da. Adibidez, arropa marka jakin batek, nahiz eta ez eduki onura funtzional gehigarririk, prestigioa eman dezake, balio sozial jakin batzuk iradoki ditzake, klasea edo gustua esaterako. Euskal kulturaz ari garela, kontuan hartu beharreko balioa da zeinu balioa.

✓ EUSKAL KULTURA ERDIGUNEAN

Euskal kontzientzia nazional batetik, euskal kultura euskarari eta eguneroko bizitzari lotuta irudikatzen da. Posizio zentralean jartzen dute. Euskal kultura da bertakoei identitatea ematen diena, Espainiar kulturatik berezia dena, eta posizio horretatik begiratzen dute mundua. Kultura horri funtzio balioa, balio sinbolikoa eta zeinu balio positiboak atxikitzen zaizkio.

Ikuspegi honetatik euskal kultura mundura zabaltzeko baliogarria da eta harrotasunez bizi da. Harrotasun hori euskal kulturari atxikitzen zaion zeinu balioaren eskutik dator.

Zaindu beharreko zerbait da era berean, baina beste kulturen eraginen aurrean itxidura jarrera batean mantendu gabe. Mugikortasuna onartu behar den gauza izanik, ezin da euskal kultura hermetiko geratu. Influentzia badator, badago. Norberaren nortasunari eutsi behar zaio, kanpokoarekin ere elkarbanatu eta uztartuz.

"hemen harrotasunez gu euskaldunak eta gure euskaltasuna eta hori zabaldu behar dugu eta horri eutsi egin behar diogu, baina ezin gara itxi. Ezin gara...Ezin gara gelditu hemen gure txapelarekin eta gure abarkekin bizitza osoa. Garbi dago isolatuta ezin garela bizi. Orduan kanpora ireki egin behar gara, mundura. Eta bueno, mundutik etorriko dira gauza onak eta gauza txarrak. Ba saiatu gauza on horiek aprobeztatzen eta hedatzen eta bestea ba bueno, ba baztertzen." ES_7

✓ EUSKAL HERRIA, HERRI BIKULTURALA

Kontzientzia etniko batetik, euskal herria herri bikultural bat bezala ikusten da. Euskara eta euskal kulturaren artean bereizketa egiten da, eta ez da eguneroko bizitzarekin lotzen. Aparteko gauzak izango balira gisa, euskara batetik, eta euskal kultura bestetik.

Euskal kultura espainiar kulturatik neurri batean bereizten den arren, adierazpen konkretu batzuei lotzen zaie: gastronomia, folklorea, etab. Euskal kultura da egun batzuetan eta momentu batzuetan 'kontsumitzen' eta erabiltzen den zerbait, baina ez norberaren identitatea ardatzen duena.

Norberaren identitatea kultura ezberdinetatik hartzen diren elementuen bidez osatzen da. Posizio honetan kokatzen diren batzuk beraien burua identitate anitzekotzat dute. Migratzaile espainiarren seme alabetako asko kokatzen dira posizio honetan. Zentzu honetan erreferentzia kultural ezberdinen arabera eraikitzen da identitatea, beraien aurrekoen jatorria kontuan hartuta, eta bere ibilbide pertsonalean izandako harreman ezberdinak kontuan hartuta ere.

"yo tengo unaaaaa... identidad diversa, digamos, porque yo sí que me sientoo vasco, en primer lugar ¿no? porque he nacido aquí y he vivido la mayor parte de mi vida aquí. Para mí, vamos, me siento un poco gallego; por, eeeh, mi ascendencia; porque he viajado mucho allí; también soy socio de la Casa de Galicia...; también soy un poco andaluz, porque una de mis abuelas era andaluza y he tenido mucho contacto con

Sevilla, he pasado temporadas allí ¿no? Luego viví 2 años en Francia, o sea que... digamos, también me siento un poco francés adoptivo, entre comillas ¿no? O sea que tengo una identidad más diversa queee, que mi padre, digamos ¿no?" ES_6

Beste askok beraien burua identitate bikoitz batean irudikatzen dute, nolabaiteko identitate euskal-espainiarraz hitz egiten dute (gazteleraz *vasco-español*).

"Si, vasco-español. Yo me siento vasco-español. Español a ver... si, si, vasco-español. No te voy a decir que me siento vasco-frances. Franceses se sentiran los de Hendaia. Yo mas bien vasco-español. Tampoco es que tenga muchas raices con España pero bueno. No me importa nada..." ES_10"

▪ IDENTITATE DONOSTIARRA EUSKALDUN ALA ERDALDUNETIK HARATAGO

Ikuspegi honetan ñabardura bat dago: Euskara erabiltzen ez duen baina euskalduna sentitzen den pertsonak aipatzen duena. Kasu horretan hizkuntza eta kultura bereziaz azaleratzen da beste identitate bat: **identitate donostiarra, hiria bera ardatz hartzen duena**. Zentzu honetan identitate talka horretatik at kokatzen du bere burua.

"Es que me siento igual mas donostiarra que vasco, no? Me siento mas donostiarra o guipuzcoano que vasco, no? Por lo que vives. Igual vivo mas en el donostiarismo que en el vasquismo. No se... Pero bueno... no se, no se como explicartelo! Eres mas como donostiarra, pues igual porque no sabes el euskara e igual vives mas la cultura la donostiarra..." ES_10

✓ EUSKAL KULTURA IKUSTEZINA

Posizio honetatik euskal kultura ez da euskararekin lotzen. Eta euskal kulturari ez zaio leku berezi bat egozten. Euskal kulturaz ez dago ezagupenik, euskal kulturaren inguruan galdetuta ez da loturarik egiten.

Donostia Espainiar iparraldean dagoen hiri baten ikuspegi horretatik, euskal herritarren irakurketa osotasun horretan berezitasun txiki batzuk dituen gizarte batena da: izaeraz hegoaldekoak baino hotzagoak eta distanteagoak eta gastronomia aldetik ezin hobekak diren pertsonak osatzen dutena. Hizkuntza ez da kulturarekin lotzen eta edozein kasutan ez zaizkio funtzionalak diren aldagaiak egozten.

2.1.3 ATAL HONETAKO ONDORIOAK

Argi dago euskal herrian aniztasuna eta elkarbizitzaren inguruan hitz egiten denean garrantzitsua dela atzera begirada bat ematea. Migrazio mugimenduen aurrean *gu* eta *besteak* kategoriak sortzen diren bezala, euskal herrian urteetan *gu* eta *besteak* kategorien artean beste bat existitu baita urteetan zehar: *zuek* kategoria, euskal jatorriko donostiarren begietara migratzaile espainiarrek osatu dutena.

A. GU ETA ZUEK: HORREN INGURUKO HAUTEMATEA

Gu eta zuek horietan zentratuta, hautemateen inguruan honakoa da adierazi dezakeguna:

- **Espainiar migratzaileek ez dute banaketa hori honela bizi.** Jatorriari eta identitateari erreparatuta bertakoak ez direla aipatu arren, integratuak ikusten dute beraien burua euskal gizartean, ez dira zuek horrekin identifikatzen. Integrazio sozioekonomikoa hartzen dute ardatz, hau da, lana eta harreman sareari ematen diote garrantzia. Integrazio kulturalari dagokionez, ez da euskal kultura baten baitan integrazio hori bizi, beharra ere ez da ikusten.
- **Migratzaile horien seme alabek ere beraien burua euskal herritartzat daukate dudarik gabe,** euskal herritarra bertako sentitzen den oro dela argudiatuta. Identitateari dagokionez, bi jarrera ezberdin antzematen dira:
 - Batzuen kasuan, beraien gurasoek bezala, identitate nazionala espainiarra dute, nahiz eta kontzientzia etnikoa areagotu den heinean kontzientzia nazional espainiarrarekiko bizipena apaltzen joan den. Halere, ez dute euskara eta euskal kultura beraien identitatea ardazteko orduan erdigunean kokatzen.
 - Beste batzuek aldiz, indentitatea ardazteko orduan euskara eta euskal kultura beraiena egin dute. Askok, irakaskuntza euskaraz jaso dute. Eta kasu guztietan guraso mistoak dituzten pertsonak dira.
- **Euskal kontzientzia nazionala duten pertsonen ikuspegitik, zuek kategoria hori apaltzen ari denaren sentsazioa ere badago, baina ez da desagertua dagoenik ikusten.** Elkarbizitza horretan aurrera pausuak ematen ari direla sentitzen da, nahiz eta oraindik orain lanketa asko egiteke dagoela nabarmentzen den.

B. EUSKAL HERRITARRA DA HONELA SENTITZEN DENA

Zaila da "euskal herritarra (vasco) nor den" galderari erantzutea. Eta galdera garrantzitsua da. Migratzaile berri batzuk horrekin ere konturatu dira, elkarrizketaren batean aipatu den bezala:

"P: ENTONCES, PARA TI, EH...¿VASCO QUIÉN ES?

E: Es que, es que ustedes mismo tienen un lío con eso!" ES_2

Euskal herritarra nor den hautemateko modu ezberdinak egon daitezke:

- Euskal herritarra da Euskal Herrian jaio dena. Lurraldetasunari garrantzia ematen zaio beraz.
- Euskal herritarra da euskaraz hitz egiten duena, euskara darabilena, bertako hizkuntza gisa ulertuta.
- Euskal herritarra da bertakoa sentitzen dena, bertan jaio ala ez, hizkuntza erabili ala ez, bertakoa sentitzen dena.

Euskal eta espainiar jatorriko donostiarren artean jaso diren diskurtsoetan, gehiengo baten kasuan euskal herritarra honela sentitzen den pertsona dela aipatu da. Beraz norberaren hautua ala aukeraren baitan geratzen den zerbait bezala ikusten da.

2.2 ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN DONOSTIARRAK BESTELAKO DONOSTIARREN BEGIETARA.

2.2.1 MIGRATZAILE BERREI BURUZKO ERREPRESENTAZIO SOZIALAK.

A. "MIGRATZAILE BERRIAREN" INGURUKO ERAIKUNTZA SOZIALA.

Txostenean zehar migratzaile kontzeptua erabili bada ere, oraindik orain, jendearentzat hitz berria da. Eguneroko erabileran *etorkin ala inmigrante* kontzeptuak erabiltzen dira. Ondorengo lerroetan *etorkin* kontzeptuarekin egiten den irudikapena azertu nahi dugu, jakinik hitzari berari egozten zaizkion ezaugarriak direla besteak beste migratzaileekiko ikuspegia baldintzatzen dutenak.

Honela, imaginario sozialean *etorkin berria* kontzeptuarekin egiten den irudikapena bi ezaugarriekin erlazionatzen da:

- *Etorkin berria* da **kanpotik datorren pertsona**, inork gonbidatu gabe Euskal Herrira bertaratu dena. Bertakoa eta kanpokoa bereizten duen marra oso subjektiboa da eta hor irakurketa politikoak ere barne sartzen dira.
 - Honela, batzuetan *etorkina* da estatu espainiarretik kanpoko herrialdeetatik datorren pertsona.
 - Beste batzuentzat *etorkina* da Euskal Herriko mugetatik kanpoko jatorria duena.
 - Eta beste batzuk *etorkina* bere herria utzi eta beste batera mugitzen den pertsona bezala irudikatzen dute, Beasaindik Donostiara bada ere. Halaber, ez da ohikoa izaten den asoziazioa.

Etorkina, azken hamarkadetan espainiar estatutik kanpoko jatorria duen pertsona gisa irudikatzen da imaginario sozialean.
- *Etorkin berria* da **herrialde 'pobreetatik' eta motibazio ekonomikoak bultzatuta Euskal Herrira etorri den pertsona**. Gehienetan Euskal Herrian baino baldintza okerragoak dituzten herrialdeetako pertsonekin lotzen dira. Motibazioa zentzu horretan oinarritzko behar materialak asetzeko arlotik dator. Emigratzeko erabakia lan eskasia eta bizi baldintza txarrak izateak bultzatu duela uste da.

Gutxi batzuk *etorkin*ak beste motibazio batzuk bultzatuak ere etor daitezkeela irudikatzen duten arren (adibidez hizkuntzak ikasteko motibazioak bultzatuta edo norberaren bizi proiektua maila pertsonalean aberasteko motibazioak bultzatuta), diskurtso nagusian *etorkin* kontzeptuarekin jatorri konkretu batzuetako pertsonak lotzen dira.

"para mi la palabra inmigrante ya es si el que viene de fuera en realidad pero ya la palabra inmigrante adquiere una categoria de pobre. Que para mi el otro concepto de que nos movamos a Europa a trabajar o tal, no lo considero tanto inmigración... En mi cabeza cuando oigo la palabra inmigración me viene mas el concepto de pobreza." ET

B. MIGRATZAILE BERRIEKIKO HAUTEMATEA

Migratzaileen inguruan egiten den eraikuntza sozialaz hitz egin da aurreko lerroetan. Jarraian migratzaileen inguruan dagoen ikuspegiaz ariko gara, aurkitu ditugun diskurtsoen arabera. Kontuan izan behar da aipaturiko arrazoiengatik etorkin kontzeptuak berak eta horren inguruan sortu den estigmak eragiten duela askotan ikuspegi honetan.

Halaber, migratzaileekiko dagoen ikuspegian ere eragiten dute ere beste bi aldagaiek:

- Migratzaileen aurrean egiten den epaiak eta sortzen diren aurreiritziek
- Ezberdintasunaren aurrean norberak kokatzeko duen moduak.

✓ EZBERDINTASUNAREN AURREAN KOKATZEKO MODUAREN GARRANTZIA

Jatorri ezberdinetako pertsonen artean, edozein jatorrikoa delarik, **ezberdintasunak badaudela** argi dago, ohituretan, izateko era ezberdinak, pentsaera ezberdinak, etab. Hori errealitatea da, aniztasunak hori eskaintzen du.

- **Ezberdintasun batzuk nabariagoak dira, esplizituagoak.** Askotan eremu publikoan azaltzen direnak: janzkera, aisi ohiturak, erlijioari lotutako joerak, etab..
- **Beste batzuk leunagoak dira eta eremu pribatura mugatzen dira.** Gastronomía, entzuten den musika, bizitza ikusteko eta mundua ulertzeko modua, harremanak sortzeko modua.

Migratzailearen aurrean daukagun hautemateak ezberdintasunaren aurrean kokatzen garen moduarekin harremana du. Honela, 3 jarrera ezberdin egon daitezke:

- **Ezberdintasuna ikusten da**, baina ez da epaitzen. Aniztasuna aberasgarri dela sentitzen da, **parekotasun batetik**, berdinetik berdinerara. Migratzailea izan edo ez, pertsonak du garrantzia eta **horren aurrean jartzen da**.
- **Ezberdina dena ikusten da, baina distantzia batetik, indiferentzia batetik** begiratzen zaio. Ez du bestelako ezer aportatzen ez ekartzen, eta ez da mehatxurik sentitzen. Hor dago, besterik gabe.
- **Ezberdintasuna eta ezberdina dena mesfidantza begirada batekin** begiratzen da eta mehatxua sentitzen da. Aurrean jarri baino ikusezin bilakatzen da.

"Tengo mucho miedo, sobre todo la mayoría de las actitudes están provocadas por miedo. Miedo al desconocido, miedo al que viene de fuera, miedo al que tiene otras pautas culturales, miedo al que reacciona de otra manera, miedo al que no entiendes porque el vive de otra manera distinta." ET

✓ DISKURTSOAK

Hasieran esan bezala, eta besteak beste, *etorkin* hitzarekin zer ulertzen den (hitza beraren estigma), atxikitzen zaizkion ezaugarriak eta ezberdintasunaren aurrean kokatzen denaren arabera **3 diskurtso jaso dira migratzaile berriekiko hautemateei** dagokionez:

- IKUSPEGI ZABALA ETA PERTSONARENGAN ZENTRATUA
- IKUSPEGI INDIFERENTEA
- MESFIDANTZATIK ERAIKITAKO IKUSPEGI BAZTERTZAILEA

1. Ikuspegi zabala eta pertsonarengan zentratua

▪ **Nortzuk dira migratzaile berriak?**

Migratzailearekin ulertzen denaren inguruan normalean ikuspegi zabala dago. Migratzaileak 'kanpotik' etorri diren pertsonak dira, jatorria edozein delarik. Honela, migratzailea Gipuzkoako beste herri bateko pertsona ere izan daiteke. Bereizketa bat egiten da edozein kasutan: migratzaile espainiarrak, migratzaile 'atzerritarrak' etab.. Baina guztiak dira migratzaileak. Migratzaileekiko ikuspegi hau duten espainiar migratzaileek ez dute zailtasunik beraien burua migratzaile kategoria horren barruan kokatzeko.

Edozein kasutan, migratzaile berriez ari garelarik, orduan bai, estatu espainiarretik kanpoko herritarrez hitz egiten da. Motibazioen artean ekonomikoa gailentzen den arren, ikuspegi honetatik beste pertsona batek migrazio proiektu bat hasteko bestelako motibazio batzuk ere kontenplatu dira: hizkuntzak ikasteko motibazioa ala bizitza estilo ezberdintasun baten bila migrazio proiektu bat hastea esaterako.

"Bueno emigrante es cualquier persona que se desplaza de su lugar de nacimiento para buscarse la vida en otro lugar: o sea, para trabajar, para estudiar, para lo que sea...2 ES_6

Diskurtso honetan kokatzen diren pertsona gehienek kontaktu bat badute migratzaile berriekin. Ezagutza batetik abiatzen dira eta horrek sentibilizazio jarrera batean kokatzen ditu gaiarekiko. Migratzaile berrietako askok (motibazio ekonomikoak batez ere bultzatu dituenak) Euskal Herrira etortzeko egindako ibilbidearen inguruan eta bizi izan duten egoera kaxkarra kontuan hartzen dute. Jarrera enpatikoa azaltzen da zailtasunei dagokionez.

Era berean, migratzaile berriaren irudiaren inguruko irakurketa orokorrago bat egiten dute. Salatzen dira besteak beste komunikabideetan migratzaile berrien inguruan ematen den irudia eta dagoen kriminalizazio joera.

Migratzaileekiko ikuspegi honetatik, norberaren kontraesanen kritika bat ere egiten da. Gizartean dauden estereotipo eta zabaltzen diren mezuen eraginetik zaila da babestea. Esango genuke posizio honetan dauden pertsonak jarrera 'umil' bat dutela, eta autokritikarako gaitasuna beraien

inkoherentzien aurrean. Pertsona ikusten duenak ez ditu bere kontraesanak ukatzen, eta ekintzetan nabaritzen da gehiago diskurtsoan baino adierazten dena.

"... sortzen dizkizun sentsazioak, eta batzuetan igual horren kontra borrokatu egin behar duzu. Gauza bat da sentitzen duzuna eta gero pentsatu egin behar duzu: "Bueno, zertan ari haiz?" ES_7

Diskurtso honetan kokatzen diren pertsonak egonkortasun egoera batean daude egoera sozioekonomikoari dagokionez. Lana izan ala ez, familiak babesten eta lagunarteak edo elkarrekin jasotzen dituen inguru eta herri batean. Askoren kasuan partaidetza maila handia adierazten da, elkartegintzan batez ere. Hau da, ikuspegi indibidualista bat baino ikuspegi kolektibo bat duten pertsonak kokatzen dira hemen.

▪ Zer aportatzen dute?

Migratzaile berriek lan eskua aporta dezakete euskal gizartean, baina aberastasun iturri dira. Posizio honetatik migratzaileekiko begirada utilitarista kritikatzeko da. Lan eskuaz haratago aniztasunak ekartzen duen aberastasunaz kontziente ez izateak mugak besterik ekartzen ez dituela salatzen da. Aniztasunak aberastasuna dakar, ez ekonomikoa, baizik gizatiarra. Migratzaileek beste hainbat gauzen artean, mundua ikusteko eta bizitza ulertzeko modu ezberdin bat aportatzen dute.

"es que gaur egun zerbait aportatu badezakezu badirudi hori baloratzen dela, ekonomikoki zer aportatzen duzun. Ez zait gehiegi interesatzen, zeren eta azkenean ni gaur egun edo gaur egun borrokatzen ari garena da eh... bizitza jartzea ekonomiaren zentroan, ez? Eta jada nahikoa da merkatuak eta dirua jartzea bizitzaren, ekonomiaren zentroan, zeren eta uzten gaitu batzuk oso egoera txarrean eta batzuk are egoera txarragoan. Eta niri batez ere aportatu nauena kolektibo, sorginen kolektiboak, hemen ezagutu ditudanak dira borrokatzeko moduak, bizitza bizitzeko moduak, indarra... Ba etorri direlako umorez eta oraindik indarrez eta... ez direlako inola ere geldirik geratzen, kalera ateratzeko prest daudela, edozertarako daudela prest, eta ez dakit. Bai kulturalki bai, bai borroka aldetik... edo bizitza ulertzeko modu bat. Bai, guzti hori, eta harremanak eta kariñoa eta afektua eta... Ostia nola baloratu behar diren! Eta zer den bizitza! Niri horretan bai aportatu didate." ES_9

Migratzaileen ibilbidearekin sentsibilizazio eta ikuspegi zabal horretatik, beraiekiko sortzen diren sentimenduak anitzak dira. Bizi diren esperientzien arabera, hainbat egoeren aurrean errukia, hunkitua sentitzea. Kuriositatea beste zenbaitetan, ezagutzeko interesa. Hainbat kasutan mirespina ere bizitzan aurrera egiteko gaitasuna eta indarraren aurrean.

"merezki duen benetako jende ona, eta ikusten duzu, eta nik ez daukat harreman askorik, baina zerbait horrela... Eta esaten duzu pertsonak zentzu guztietan, o sea, sombreroa kentzeko moduko jendea etortzen zaizu eta esaten duzu: "Joder, bejondeizula!" ES_7

2. Ikuspegi indiferentea

Diskurtso honetatik, migratzaile berriekiko distantzia bat nabarmentzen da. Ez zaio aipamen berezirik egiten ibilbideari, ez migrazio proiektu batek izan ditzaken ezaugarriari. Ez-ezagutza batetatik eraikitzen den diskurtsoa da, bere egunerokoan zentratuta eta bizitzarekiko ikuspegi indibidualista bat duen pertsonarena. Zentzu horretan migratzailearekiko interakzioa ere minimoa da horrela suertatu den momentuetan, eta suposiziotik hitz egiten da.

Migratzaile berria batez ere motibazio ekonomikoak bultzatuta etorri den pertsona gisa irudikatzen da eta ikuspegi utilitarista batetik begiratzen zaio. Aniztasunak ekar ditzaken beste aberastasunak itzalean uzten dira, edo ez dira ikusten.

Posizio sozioekonomiko egonkor batean dagoen pertsonaren begirada da, behar indibidualetan zentratua eta ikuspegi kolektibo gutxi duenaren begirada. Ikuspegi horretatik migratzaile berria ez da mehatxu bezala ikusten, ez bai da eremu sozioekonomiko horretan lehian sartzen den pertsona. Ambizio gehiegirik gabeko pertsona bezala irudikatzen dira, kasu gehienetan inork bete nahi ez dituen lanak betetzera datozenak batez ere.

3. Ikuspegi baztertzalea

Ikuspegi honetatik migratzailea mesfidantza begirada batetatik begiratzen da, asmo on gutxiko pertsona gisa. Migratzaile berrien ibilbidea erabat itzalean utziz, erraztasunak ematen zaien paradisura datozenaren hautematea dute posizio honetan kokatzen diren pertsonak. Epe konkretu baterako datozela uste da, dirua egin eta beraien herrialdeetara bidali, eta epe luzera bueltatzeko.

Migratzaileekiko dagoen ikuspegia justifikatzeko mila arrazoi aurkitzen dira. Ez dago autokritikarako lekurik. Bizipen negatibo bakar batetatik orokortzen da, migratzailearen jatorriko guztiak modu berdinean ikusiz. Honen aurrean kontrakoa adierazten duten bizipen positiboak ezagutzen badira, defentsiba jarrera bat azaltzen da. Lehenik, gertaera hori bera zalantzan jartzen da. Eta edozein kasutan gertaera hori egiatzat onartzen bada, buruan dagoen "erregela konfirmatzen duen salbuespen" gisa ikusten da.

Posizio honetan kokatzen diren pertsonak aldaketaren aurrean erresistentzia gehiago azaltzen duten pertsonak dira. Hauskortasun sozioekonomiko egoera batean kokatzen direnak dira kasu gehienetan.

Hiriarekiko pertenezia sentimendua ahula da askoren kasuan. Beste batzuetan beste muturrera joanda ziurtasuna beste aldagaietan aurkitu ezean (lan esparruan edo harreman sarean) ziurtasun hori hiriaren (edo auzoaren) identitatea mantentze horretan bilatzen dute.

Migratzailea da ezberdina, eta ezberdintasun horri beldurrez begiratzen zaio, kasu askotan konnotazio negatiboak atxikituz. Jarrera indibidual batetatik norberarengan izango duen onura edo kaltean erreparatzen zaio. Honela,

batzuetan mehatxu gisa ikusi daitezke, lan eremuan esaterako, onartzen dituzten baldintzek besteei kalte egiten diela argudiatuz.

Jarrera baztertzaillearen muturrera joanda migratzaile berriak eta aniztasunak beraz dakarrena arazoak, ziurtasun falta eta gatazka da.

"pues mira habrá de todo, yo creo que hay mas conflicto, yo creo que si. mas problemas que... no te digo todo en general eh, pero hay mucho mas. De hecho cuando hay algún accidente, siempre están ellos ahí, siempre están ellos ahí. Si a alguna señora le han matau por... siempre están ellos allí. Yo no sé si hay muchísimos o es que ellos son así en si cultura, que es que hay que pegar a las mujeres, hay que maltratarlas, hay que robar, hay que... como en su país lo hacen, aquí se creen que lo pueden hacer. Yo creo que si." ES_13

Aniztasun horretan ez dira sentimendu positiborik ikusten. Galera besterik sortu ez duela perzibitzen da, bizi kalitateari erreparatuz. Donostiako kaleetan ziurtasun falta handiagoa sentitzen dela aipatzen da (lapurretak edo jazarpenak pairatzeko arriskua areagotu dela pentsatzen da beste gauzen artean).

"Por eso te digo que ahora ya no se puede salir como antes, ahora no, ahora tú vas por Donosti... si de respeto. Ya no puedes... mira que yo no soy una persona miedosa, hombre ya cuando oyes tantos casos dices... hay que tener un poco las orejas..." ES_13

C. MIGRATZAILE BERRIEN INGURUKO HAUTEMATEEN ONDORIOAK

Hasieran aipatu bezala, oraindik orain migratzailearen inguruan egiten den eraikuntza sozialean, diskurtso nagusian, bi ezaugarri atxikitzen zaizkio:

- Migratzailea da kanpotik datorren pertsona, atzerritik nolabait esateagatik
- Migratzailea da bere herrialdean pobrezia egoera bat izanik eta motibazio ekonomikoak bultzatuta Euskal Herrira datorrena.

Egiten den irudikapen hori oso lotua dago hitzarekin. Hitza berak estigma bat dauka oraindik orain. Ikerlanean migratzaile hitza erabili badugu ere, elkarrizketetan 'etorkin' edo 'immigrante' hitza erabili izan da. Eta horri atxikitzen zaizkio lehen adierazitako ezaugarriak. Zentzu honetan *migratzailea* edo *migrante* hitza erabiltzeak aukerak eta ikuspegia zabal dezake.

Edozein kasutan, migratzailearen inguruko irudikapenarekin jarraituz, aipatu behar da migratzailearekin bi elementu horien asoziazioa egiten den heinean zailtasun ezberdinak sortzen direla. Batez ere estatu espainiarreko beste herrialdeetatik edo estatu

espainiarretik kanpoko eta bizi baldintza okerragoak ez dituzten pertsonak izendatzerako orduan. Honela, holandesak migratzaileak direnik askok ez dute uste, horiek orain *komunitarioak* dira askoren begietara, eta migratzaileek ere hori horrela dela sumatzen dute.

"Ni azken finean kanpotarra naiz. Orain yo no soy inmigrante, orain komunitarioa naiz. Baina ni immigrantea naiz, no me quites este nombre, por favor." ES_5

Errumaniarrak aldiz komunitarioak izan daitezke, baina migratzaileak izaten jarraitzen dute donostiarren nagusigo baten begietara. Pobrezia egoera batean dagoen herrialde bat bezala irudikatzen baita oraindik orain Errumania.

Edozein kasutan eta kontzeptuarekin egiten den eraikuntza kolektibo horretatik haratago argi dagoena da *hemengoa* eta *kanpokoaren* artean marra bat bereizten dela, norberaren araberako muga baten bitartez.

Hortaz gain, eraikuntza horren baitan herritar batzuen hitzetan aurkitu ditugun ideiei forma emanaz, migratzaileen artean *migratasun maila bat* ere sortzen dela ematen du. Migratasun maila horren baitan distantzia handiago batekin hautematen dira jatorri ezberdinetako pertsonak. Distantzia edo epai hori ezaugarri batzuen arabera egiten da:

- Jatorriko herrialdearen egoera sozioekonomikoa
- Jatorri horretako migratzaileek Euskal Herrian daramaten denbora.
- Beraiekiko sentitzen den distantzia kulturala. Distantzia kultural hau noski, norberak ezberdintasunaren aurrean egiten duen epaiaren baitan dago.
- Ezberdintasunaren epai horren ondorioz egozten zaizkion ezaugarriak

Balorazio hau edozein kasutan subjektiboa da, baina eragin nabarmena du migratzaile hauekiko kokatzen den moduan. Esan genezake, eta euskal eta espainiar jatorriko donostiar nahiz beste herrialdeetako jatorria duten donostiar batzuk ere onartzen dutela migratzaile guztien aurrean ez direla modu berdinetan kokatzen.

✓ MIGRATZAILEEKIKO BEGIRADA ANITZA. KOLEKTIBORIK KALTETUENA ARABIAK (BEREZIKI MAGREBIARREK) OSATZEN DUTENA DA

Herritar guztiek, tartean migratzaileak diren batzuk ere onartzen dute migratzaile guztiak ez direla modu berdin batean begiratzen. Diskurtsorik zabalena duenak ere bere buruan inkoherentziak antzematen ditu. Oraindik orain aurreiritzi asko daude eraikiak, ez-ezagutza eta interakzio falta baten sintoma ere badirenak.

Distantzia gehiagoz eta mesfidantza gehien sortzen dutenak **magrebtarrak dira.**

"Eta nire ustez ez da berdin ikusten ba esan duzuna, aleman batzuk, alemanak. Alemanak lehen, gu kanpora joaten ginen Alemaniara, gaur egun berriz ere hasi dira joaten. Baina lehen ere hara, eta orduan haiek, jontxo, alemanak! Horiek dira gehiago, ezta? Orduan hori edo esan duzuna, Hego Ameriketako jendea edo Senegalgoak. Senegalgoak adibidez nik Orion ondo ikusita. Esan nahi dut, langileak, arrantzan

sartuta eta gero problema gutxi sortzen dituzten pertsonak bezala. Hori sentsazioa. Aldiz, marokarrak... Ez dakit zergatik. Ez. Eta gero pentsatu egin behar duzu: "Jontxo, Marokon ere Senegalen bezala, eta Orion bezala eta leku guztietan bezala egongo da jende zoragarria eta kalamidade asko. Hemen bezala!". Baina, bai, ez dakit zergatik sentsazio ezberdinak sortzen dituzte batzuek eta besteek." ES_7

Arrazoen artean batzuk jaso dira herritarren hitzetan:

- **Lehenago etorri dira**, besteak baino. Latinoamerikarrak azken hamar urteetan etorri badira, marokoarrak urte gehiago daramate Donostian. Denborak ere zentzu honetan beraien kontran jokatu du beraiekiko aurreiritzi bat sortzeko orduan.
- **Askotan bakarrik** etortzen dira, eta familian etortzea egonkortasun batekin lotzen da imaginario sozialean.
- **Kulturalki lotzen eta egozten zaizkie oraindik ezaugarri konkretu batzuk, aurreiritziekin erabat lotuak.** Nolabaiteko ziurtasun eza eta jarrera bortitzekin lotutako ezaugarri batzuk atxikitzen zaizkie: emakumeekiko jarrera matxista, erlijio integrista... Aldagai horiek nabarmentzen dira. Integraziorako aukera gutxiago duen kolektibo gisa ikusten dira magrebiarrak.

Ikuspegi honetan komunikabideek ere izan duten eraginari erreferentzia egitea ezinbestekoa da. Nolabait, diskurtso eta hautemate honetan talde honekiko egon den kriminalizazioa salatzen baita herritar askoren aldetik.

✓ MIGRATZAILEA (NORBANAKOA) ETA MIGRATZAILE MULTZO BATEN ARTEKO EZBERDINTASUNA EGITEN DA

Herritar askok oraindik orain ezberdintasun bat egiten dute pertsona migratzailea banako gisa eta migratzaile kategoriari erreferentzia egiten diotenean.

Zerbait sinbolikoa izango balitz bezala, migratzaile ezagunarengan pentsatzen denean ezaugarri batzuk atxikitzen zaizkio. Ezaugarri horiek gehienetan positiboak izaten dira, integratzeko egiten den esfortzua, motibazioa etab. 'Asmo oneko' migratzaile bat irudikatzen da beraz.

Aldiz, taldean pentsatzen denean norbanatasun hori eta atxikitu zaizkion ezaugarriak difuminatu egiten dira. Migratzaileen kategoria baten baitan eraikitzen da diskurtsoa.

"la percepción, cuando se habla de inmigración en general negativo, cuando te conozco y tal y cual, es como que eres la excepción que... te separo, pero cuando tengo que hablar de inmigración vuelvo otra vez al estereotipo a la generalización y tal no?" ES_8

"Delante mío, como al lado mío, pues viven unos sudamericanos que salen, entran, tienen su trabajo, hacen su vida sin ningún problema. Debajo mío tengo un electrodomésticos, una tienda de alimentación donde son chinos y sin ningún problema, son una gente maravilloso. Quiero decir que también depende de como son algunas personas. Yo con eso no pretendía generalizar, lo único que pretendía decir es que... tengo por un lado mi mente, mis principios y mi manera de ver... y..." ET

✓ MIGRATZAILEAREKIKO KONSTRUKZIO SOZIALEAN GENEROAREN ARABERAKO BEREIZKETA EGITEN DA

Migratzaile berriez hitz egiten denean, kontzeptuarekin egiten diren loturetan generoak ere zerikusia badu. Honela, euskaraz hori ezberdintzea zailagoa den arren, gaztelaniaz migratzaileez hitz egin denean horretan egiten den bereizketa ikusteko aukera ematen du.

Migratzaileari konnotazio negatiboak atxikitzen zaizkionean, kasu gehienetan gizonezko baten irudikapena egiten da, eta erabiltzen diren ezaugarrietan nabarmentzen da hori: "los `moros' son... los rumanos son...". Esperientzia txarrez ere hitz egiten denean, sarritan gizonezkoekin izandako harremanari egiten zaio erreferentzia.

Migratzaile berri emakumezkoen inguruan aldiz, justu kontrakoa gertatzen da. Ez dira ezaugarri negatibo askorik aipatzen. Beraien ibilbidea eta egiten duten lanaren inguruan balorazio positibo bat egiten da kasu askotan, zaintza eremuan egiten duten ekarpena bistaraziz esaterako.

Beraz, migratzailearekiko hautematean ere aldagai honen eragina nabarmendu beharra dago.

2.2.2 EGUNEROKOAN ERAIKITZEN DIREN HARREMANEN NONDIK NORAKOAK: EUSKAL NAHIZ ESPAINIAR JATORRIKO DONOSTIARREN IKUSPEGIA.

Migratzaile berriak eta Espainiar estatuko nahiz euskal jatorria duten donostiarren arteko harremanei buruz hitz egiten dutenean, honako ideiak jasotzen dira beraien diskurtsoetan:

- **Elkarbizitzarako harremana beharrezkoa ikusten da**
- **Egun, harremana oso puntualak dira, azalekoak eta esparru konkretuetan ematen dira**
- **Helduen artean lan eremua eta eskolaren bueltan ematen da interakzio gehiena. Aisialdian eta eremu informalean ez dago apenas interakziorik. Dagoena elkartegintzaren bidez sortzen dena da.**
- **Umeen artean ere harremanak oso apalak dira. Eskolak paper garrantzitsua jokatzen du hor.**
- **Jarrera baztertzailerak badaude, eta estereotipoetatik jokatzen dela asko nabarmentzen da**
- **Aurreiritzi eta estereotipoek duten eraginaz gain, pertsonen arteko harremanaren krisiaren testuinguru batean kokatzen dute batzuk harreman ezaren arrazoia.**

Elementu hauetako asko bat datoz migratzaile berriek harremanak irudikatzen dituzten moduarekin. Honela, harremanen osasunaren inguruan egiten den balorazioa eta harremanak bizitzeko moduan aldagai asko komunak dira.

✓ **ELKARBIZITZA HARREMANAREN ESKUTIK DATOR**

Elkarbizitzaz hitz egiten denean, diskurtso nagusian **harremani eta interakzioari** egiten zaie erreferentzia. **Integratua** dagoena **beste herritarrekin harremanak dituena** dela kontsideratzen da, **lan munduan soilik txertatzea ez da elkarbizitzara begira nahikoa.**

Ikuspegi honetatik elkarbizitzaren osasuna oso apala da, harremanak oso azalekoak baitira.

✓ **ESKOLA ETA LANA INTERAKZIO ESPARRU DIRA. AISIALDIAN ETA EREMU INFORMALEAN DAGOEN INTERAKZIOA ELKARTEGINTZAREN EREMUAN DA**

Aurreko atalean komentatu bezala eremu batzuetan ditugun harremanak zorizkoak dira, beste batzuk aukeratu egiten ditugu. Honela interakzio esparruak dira

- Lanaren eremua
- Eskolaren inguruan sortzen dena
- Aisialdia eta eremu informala, honen barne elkartegintzaren eremua

Migratzaile berrien ikuspegiarekin bat egiten du gainontzeko herritarrek daukaten pertzepzioak. Hau da, harremana egotekotan eskola eta lanaren inguruan ematen da batez ere, aisialdian eta eremu informalean interakzioa nabarmen jaisten delarik. Elkartegintzaren eskutik interakziorako aukera areagotzen da, gaiaren arabera beti ere, zenbait kasutan jatorri ezberdinetako pertsonen arteko harremanak ahalbidetzen ditu.

▪ **Jatorri ezberdinen hauren artean harremanak modu naturalean ematen dira**


Aisialdian eta eremu informalean jatorri ezberdinen arteko umeen arteko harreman gutxi badago ere, beraien artean inolako zailtasunik aurkitzen ez dela nabarmentzen da. Eskola eremuan eta ikasgeletan hori antzematen dute irakasleek ere.

"Haurrak alde horretatik helduak baino askoz hobeto moldatzen dira aldaketa horietara eta nire ustez normaltasun osoz hartu dituzte, lehen egunetik integratu dituzte eta..." ES_7

Horretan halere eragin garbia dauka migratzailea etortzeko adinak. Lagun taldeak eskolaren arabera sortzen diren arren, kasu askotan 9-10tik aurrera datozen migratzaile berriek lagun taldeak osatzerako orduan zailtasun gehiago aurkitzen dituztela nabarmentzen da, garai horretan hasten baitira sortzen lagun taldeak.

Atal honen hasieran esan bezala, **aisialdian eta eremu informalean harremana eta interakzioa oso eskasa** da. Aurreko atalean Espainiar estatuko nahiz euskal jatorriko herritarren ustez interakzio falta horretan eragiten duten aldagai ezberdinak identifikatu dira. Ahaztu gabe harreman hauen hautematea ez-ezagutza maila altu batean irudikatzen dela, ondorengo lerroetan errealitate horretatik abiatuta **3 jarrera nagusi** ezberdin antzeman ditugu **migratzaile berriekiko harremanak irudikatzeko moduan**:

- **Pertsonaren aberastasuna balioan jarrita gerturatzeko nahia adierazten dutenak**
- **Jarrera indiferentea baina irekia dutenak**
- **Migratzaileekiko ikuspegi baztertzaile batetik harremanetarako itxiak daudenak**



✓ PERTSONAREN ABERASTASUNA BALIOAN JARRITA GERTURATZEKO NAHIA

Diskurtso honetan kokatzen diren pertsonen aniztasuna modu aberasgarrian ikusten dute, mila gauza aportatu ditzakeen altxor bezala. Migratzailearekiko eta bere ibilbidearekiko jarrera enpatiko bat azaltzen da. Nolabait migratzaileekiko ikuspegia zabala eta pertsonan zentratua denarena da.

Posizio honetatik harreman eza edo eskasiak kezkatuta, harremanen balioari heldu eta sustatu behar direla uste da. Pertsonak berarekin dakarrenari ematen zaio garrantzia, pertsona orok duen balio erantsiari. Harremanen eremuan, aniztasunak ekar dezakeen aberastasunaren artean denbora librean eta harremanak bizitzeko moduan egin dezakeen onura ere ikusten da. Euskaldun jatorriko pertsonen harremanen aurrean izan dezaketen jarrera serioa edo konpartitzeko moduari ekarpen bat egiten zaio.

"Nik mirespen puntu bat, batez ere bizitza bizitzeko duten gogo hori, ez? Latinoek asko... edo afrikarrek. Musika jartzen diezu edo musika jartzen dute beraiek eta hor daude konpartitzen. O sea, beraiek bai direla konpartitzekoak momentua. Pasa dezakete igande osoa... guk hori ez dugu egiten. Guk ez dugu horrela disfrutatzen asuntua, bizitza, vaya." ES_9

"Yo, a mi me encanta por ejemplo que en la plaza se junten de vez en cuando y... ponen el cassette y cantan y bailan y a mi me parece muy bien, porque es como algo diferente a nuestra manera vasca de sentir la calle que es como mucho más seria, ja, ja, ja! No? Es muy así de sentir la calle. Y ellos sí que es como una alegría más de calle." ES_12

Diskurtso honetan kokatzen diren pertsonen gehiengoak harremanak badituzte migratzaileekin, sakontasun maila ezberdinekin, baina interakzioa badago. Harreman hauetako asko elkartegintzaren bidetik ematen dira. Elkarte hauek mugimendu

sozialekin lotutako elkarteak eta zaletasunaren inguruan edo norberaren asebetetzeari loturiko elkarteak dira: kirol elkarteak, elkarte gastronomikoak, abesbatzak, etab. Edozein kasutan, posizio honetan kokatzen diren pertsonak ezagutza maila batetik abiatzen dira.

Askoren kasuan atzerrian izandako esperientzia pertsonal batek ere migrazioarekiko eta migratzaileekiko jarrera enpatiko bat lantzen lagundu die. Hau da, inoiz sentitu dira migratzaile kategoriatan sartu dizutela beste lekuren batean eta horrek besteen ibilbideekiko ikuspegi zabalago bat izatea ahalbidetu die.

"eragina dauka. Ni ez naiz etorkin etorkin sentitu atzerrian egon naizenean. European egon naiz, eh? Ez naiz beste inon egon. Baina adibidez Kuban egon nintzenean udan beste kategoriatan bat sentitzen nintzen eta beste kategoriatan bat bezala tratatzen ninduten." ES_9

Posizio honetatik harremanak ez izatearen ardura ez dute soilik besteengan jartzen. Guztien artean harremanak izateko esfortzua egin behar dela nabarmentzen da eta bideak bilatu nahi dira harreman horiek sortu ahal izateko.

Enpatia jarrera horretatik migratzaileek donostiarrekin harremanak izaterako orduan aurki ditzaketen zailtasunei erreferentzia egiten zaio. Senti dezaketen hoztasuna, ikusezin sentimendua, jendearen disposizio falta eta begirada baztertzailak harremanak sortzerako orduan.

"E1: Hoztasuna nik uste dut. Etortzen direla eta zeharo galduta daudela. Oso hotzak gara, azkenean ez daukagu harremantzeko denborarik. Eta beste erritmo batzuk daudela oso ezberdinak. O sea, esan nahi dut, herrialde bakoitzak bere erritmoak ditu, ez?"

E2: Eh, nik uste dut baita ere gure gauzetan oso zentratuta gaudenez, egin behar horietan, pues igual ikusi ere ez ditugula egiten, ez? Eta sentitzea... ostras hor nago, ez nago... igual hori da txokantea, ez? Ikustea inor ez dagoela hor lagun bat egiteko edo..."

G: IKUSTEZINTASUN SENTIMENDUA IZAN DEZAKETE?

E2: Bai, edo okerragoa. Agian zein begirada jasoko dituzten... nik uste dut baietz, esaten dugula, o sea konfiantza falta ez?" ES_9.1

Elkar ezagutzak eta harremanak izateak zabaltzen dituen aukerez jabetzen dira. Ez- ezagutzatik aurreiritziekin besterik jokatzeko ez dugula salatzen da.

Posizio honetan kokatzen dira euskal eta erdal jatorria duten pertsonak: egonkortasun sozioekonomiko batean kokatzen direnak, eta gehienetan ikuspegi komunitario bat dutenak.

✓ INDIFERENTZIA

Jatorri ezberdineko pertsonen arteko harreman nahiko estatiko bat mantentzen da, blokeetan bizi diren pertsona talde bezala. Espazioa konpartitzen da, kontaktua

badago, baina ez dago harremanik. Eta ez da bereziki kezka sortzen duen gaia ere. Harreman horiek izateak zer eskaintzen duen ala eskaintzen ez duen ez da ikusten.

Nagusiki, migratzaileekiko begirada indiferentea duten pertsonak kokatzen dira hemen, norbere behar, zeregin eta interesetan zentratutako pertsonak, ikuspegi indibiduala dutenak.

Harremanik ez izatearen ardura ez da migratzailearengan soilik jartzen, baina norberaren posizioa justifikatzen da, migratzaileek jatorri berdinekoekin ibiltzeko duten joera azalduz etab.

Harremana modu naturalean ematen bada ez da ukatzen, baina ez da bilatu edo probokatzen. Interakziorik ez dago, horretarako aukerarik ez dagoelako, eta dagoen aukera urrietan ere esfortzu berezirik egiten ez delako.

"Hombre nik uste dut ezagutzeko, ezagutzeko... beti eduki dudala gogo bat, ez? Ba kultura bat ezagutzeko, tradizioak ezagutzeko... Ez naiz jarri ezta ere. O sea, ez dakit. Ba baldin badago zerbait horren inguruan ba hitzaldiren bat edo ba seguru aski joango naizela, baina ezta ere ez naiz hasi bilatzen marokoar bat, senegaldar bat eta boliviarr bat, ez, ez." ES_9.2

✓ JARRERA BAZTERTZAILEA

Posizio honetatik migratzaile berriekiko harremanak ez dira bilatzen, ez sustatzen, eta neurri handi batean ekidin ere egiten dira. Espazio batzuk konpartitzen dira, halaber horrela suertatzen delako. Baina hortik aurrera ez dago bestelako interakziorik. Eta egon den interakzio apurrak gehiago ez nahi izateko arrazoi nahikoa eman die, bere posizioan mantentzeko zilegitasuna bermatuz.

Migratzaile berrien inguruan kategoriak egiten dira, konnotazio negatiboekin lotuak gehienak, eta esperientzia bakar batetik kultura oso bati ezaugarri batzuk atxikitzen zaizkio.

"a ver, a ver, a mi me choco una vez, era una brasileña, me choco mucho una brasileña, no sé porque fue, estuve yo haciendo un cursillo no. Y yo no sé, porque fue, a porque puse yo tenía que...son muy mal pensadas, cada una teníamos que hacer prácticas en distinto sitio, en..., es una residencia de ancianos, podíamos elegir muchos sitios no. Entonces yo dije que quería pues ..., porque yo era más cerca de donde vivo. Y entonces la otra me dijo; "¿qué pasa, que por que soy negra, no vas a querer venir conmigo?"... Muy mal pensada, tengo un concepto de las brasileñas... que son muy mal pensadas." ES_13

Aurreiritzi eta orokortze jarrera batean oinarritutako hautematea da. Migratzaile berria mesfidantza ikuspegi batetik begiratzen den heinean ezer gutxi eman dezakeela sentitzen da, zerbait ematekotan ziurtasun falta eta beldurra. Aniztasunaren aurrean mehatxua sentitzen duen pertsonaren posizioa da.

Posizio honetatik migratzaileen existentziaren errealitate hori onartzen da, beste aukerarik ez dagoelako. Baina edozein interakzio mota ekidin behar dela argudiatzen da. Ez da arrazakeria dela kontsideratzen baizik arazoak ekiditeko modu ulergarri eta logiko bat.

"yo siempre lo he oído, y gente también, no soy racista, no soy racista pero soy ordenada, yo con los míos, bueno con los míos, con los de aquí y ellos con... ¿no lo habías oído?" ES_13

B. HARREMANEN HAUTEMATEEN INGURUKO ONDORIOAK

Hasieran esan bezala, migratzaile berriekiko dagoen harremana eskasa da oro har euskal jatorria duten herritarren gehiengo baten artean. Sakontasun gutxiko harremanak mantentzen dira, lan esparruan ematen direnak, baina hortik aurrerago pasa gabe. Hori horrela izatearen atzetik identifikatzen dituzten **arrazoien artean kokatzen dituzte:**

- **Adina eta aisi joera ezberdinak**
- **Egoera familiarrak sortzen dituen aukera eta oztopoak harremanetarako** (umeak izateak aukerak zabaltzen dituen adierazten da)
- **Koadrilaren fenomenoak izan dezaken eragina**

"Koadrilarena ere pentsatzen dut oso zaila izango dela, eh? Koadrilaren fenomeno etorkinentzat... Zeinek onartzen du pertsona berri bat? Ez duzu onartzen bizilaguna ezagugu duzuna txikitatik! Ez dakit, hor markaje handi bat dago..." es_9

- **Migratzaile guztiekiko harreman eraikitzekeo jarrera ez da berdina**

Migratzaileekiko ikuspegia edozein dela eta, onartzen da harremanak sortzerako orduan gertutasun gehiago ala gutxiago sentitzen dela jatorriaren arabera ere, eta beraz, harremanetarako jarrera ezberdina dela. Herri 'aberatsetik' datozen pertsonetik (holandesak, alemanak, australianoak, estatu batuarrak...) harremanerako beste jarrera bat mantentzen dela onartzen du gehiengo batek.

Migratzaileekiko ikuspegia zabalagoa den heinean jarrera hori ere ezberdina da, jarrera indiferentea eta batez ere jarrera baztertzalea duten pertsonen kasuan jatorri batzuetako migratzaileekiko harremana erabat ekiditen baita (esaterako afrikarrekiko edo asiar jatorriko pertsonetikiko). Baina edozein kasutan oso subjektiboa den gaia da.

Batzuek latinoamerikar batekiko distantzia kultural gutxiago sentitzen dute, hizkuntza eta erlijioa konpartitzen dela argudiatuta. Beste batzuentzat erakargarriagoa suertatzen da oso urrun eta erabat arrotza den kultura batetako pertsonarekiko sortu daitekeen harremana, gauza berriak ezagutzeko aukera gehiago sortzen dituela uste baita.

"Baina nik uste dut ez geroz eta urrutiago, baina bai gure bizimoduarekin ezberdintasun gehiago dituen pertsona bat ezagutzea nik uste dut interesgarriagoa dela. Zeren eta nik uste dut, ingeles bat bale, kanpotarra da, eta beste bizimodu bat

dauka, baina antzekotasun gehiago ditugu indiar batekin baino. Orduan nik uste dut nik pertsonalki nahiago dudala indiar bat ezagutu ingeles bat baino." ES_11

▪ Harremanekiko jarrera baldintzatzen dituzten elementuak

Harreman eskasia horretan kokatzeko aurkitu diren hiru posizio horien artean **gehiengo bat jarrera indiferentean** kokatzen da. Herritarren hautematek haratago, diskurtsoak aztertuz, harremanen posizioak baldintzatzen dituzten elementu batzuk identifikatu dira:

- **Pertsonaren adina:** harremanetarako ikuspegi zabalago bat antzematen da adinez gazteagoak diren pertsonengan.
- **Egoera sozioekonomikoa:** egonkortasun sozioekonomiko batean dauden pertsonengan jarrera zabalagoa antzematen da harremanei dagokionez. Aldiz, langabezia, ala babes sozial edo harreman sare handirik ez duten pertsonengan jarrera baztertzailak antzematea errazagoa da.
- **Parte hartze aktiboaren maila:** ikuspegi zabalagoa antzematen da parte hartze maila handiagoa den heinean. Elkarre bateko kide, mugimendu sozialetan aktiboak diren pertsonak ala auzo elkarteko kide ere direnak edozein kasutan.

2.2.3 HERRITARREN ESKUBIDE SOZIALAK.

Migratzaile berrien hautemateak jaso dugun atalean azaldu bezala, eskubide sozialez, administrazio publiko ezberdinek eskaintzen dituzten hainbat zerbitzu publikoz (hezkuntza, osasuna), eta babes sozialeko neurriez gozatzeko eskubideaz ari gara. Atal honetan jaso dira hautemateak:

- Herritarren eskubide sozialei buruz oro har
- Eta bereziki migratzaile berrien eskubideei buruz.

Aipatzekoa da eskubideen inguruan **bereizketa garbi bat egiten dela arloaren arabera:**

- **Osasun sistema eta hezkuntzaren inguruan eskubide berdintasuna** inork ez du zalantzan jarri jaso ditugun diskurtsoetan.
- **Iritzi ezberdintasunak lana, etxebizitza eta babes sozialen inguruan** sortzen dira.

Honako diskurtsoak jaso dira gai honi dagokionez:

✓ ESKUBIDEAK UNIBERTSALAK DIRA ETA BERDINTASUN BATEAN EMAN BEHAR DIRA

Posizio honetan kokatzen diren pertsonen migratzaileekiko ikuspegi zabala eta pertsonarengan zentratua daukate. Pertsona ikusten dute, ez jatorria. Orokorrean egoera sozioekonomiko egonkorrean dauden pertsonak osatzen dute diskurtso mota

hau. Askok gizarte gaiekin sentsibilizazio maila altu bat adierazten dute, eta partaidetza aktibo maila bat daukate herri mailan.

Diskurtso honetatik giza eskubideei egiten zaie erreferentzia, giza eskubide unibertsalen deklarazioari ere kasu batzuetan. Honela, pertsona orok eskubide batzuk ditu, pertsonak garen heinean. Eta eskubide horiek bermatu behar dira.

"azken finean denak gara pertsonak eta merezi dugu berdina. Gauza bat da jaio zarela hemen eta beste jaio dela han, baina nik uste dut horrek ez digula eskubide berezirik ematen nik izateko preferentzia..." ES_11

Etxebizitza duin bat izateko eskubidea guztiona da, bizi irauteko behar izan batzuk beteak izatea bezala. Mugikortasuna bera ere eskubide bat gisa irudikatzen da.

"nik uste dut mugikortasunak izan behar duela aukera aske bat. Herri batzuk baldin badaude egoera pobreagoan beste batzuegatik dela, ez? Orduan nik uste dut eskubide guztiak dituztela. Orduan eskaini behar zaizkie... de hecho iruditzen zait eskaini behar zaigula guztioi sarbide duin bat etxebizitzarako." ES_9

Ikuspegi honetatik, migratzaileak laguntza sozialetatik 'aprobetxatzen' diren pertsonak baino (jarrera baztertzailan aurkitu daitekeen diskurtsoa, aurrerago azalduko dugun bezala), egoera honen 'biktima' gisa ikusten dira. Krisiak gogor astintzen duen momentu honetan migratzaileak kolektiborik "hauskorrenak" direla nabarmentzen da.

"Zailtasun handienak dituzten kategoría horien artean claro errazagoa da erasotzea horrelako kategoría bat, ez? Baina zergatik? O sea, horiek justu ez dira aukerak dituztenak egiteko ezer! Horiek dira zailen dutenak! Bai gazteak, bai etorkinak, bai ezinduak, bueno aniztasun funtzionala dutenak... bulnerabilizatutako kolektibo horiek erasotzea askoz errazagoa da." ES_9

Migratzaile berri askoren egoera testuinguru zabalago baten barruan kokatzen da. Askok beraien herria utzi behar izatea globalizazioaren eta sistema kapitalistaren testuinguruan kokatzen da. Zentzu horretan herrialde 'aberatsagoek' botere ekonomikoaren arabera sortu duten dinamikak mundu mailan desorekak sortu dituela jasotzen da. Horrek ondorio ezberdinak izan dituela nabarmentzen da:

- Migratzaile berri askok beraien herrialdeak utzi behar izatea.
- Botere ekonomiko horren baitan egiten diren kategorien arabera, kanpoko eta bertakoen arteko ezberdintasuna nabarmendu eta eskubide batzuk kendu edo baztertea.

"Orain murrizketekin oso garbi ikusten da "zu" hori. Zein kategoriei ahal zaie moztu de todo eta beste batzuei ikutu ere ez. Orduan egia da "zu", "gu" nik ikusten ditudala kategoría ekonomiko horietan, kategoría kapitalista horietan." ES_9.1

Ildo honetatik, gogor kritikatzeko da migratzaileen aldeko diskriminazio positibo bat egiten dela adierazten duten pertsonen jarrera. Diskriminazio positibo hori egiten dela adierazten dutenean, pertsona horiek, horren atzetik, migratzaileekiko jarrera baztertzaila dutela salatzen da. Honela, kritikatzeko da interes bat egon denean migratzaileak ondo onartu dituztela, eta egungo krisi egoeran diskriminatu eta kaleratzeko aitzakia bilatzen dutela. Beraz, eskubide sozialaren arloari eusten zaiola

uste da, aurreiritzietan oinarriturik eta oinarriak gabeko epaiak eginaz, migratzaileak egoera honen errudun bilakatu eta beraien herrialdeetara bidaltzeko jarrera 'justifikatzeko'.

"azkenean zirkuluak jarraitzen du, ez? Mugitzea, o sea, edozein arrazoi da ona etorkina kaleratzeko: Zuri lana kentzen dizulako, zuri diru laguntzak kentzen dizkizulako, etxea kentzen dizulako... baina atera behar da, atera behar da! Eta esaten duzu: "Joder, atera behar da?". Duela bi urte atera zen artikulu bat -gainera datuekin-esaten zuena ez dakit zenbat urteko pentsioak bermatuta egongo zirela etorkinen lanari esker! Orduan... zer joku da, ez?" ES_9.1

✓ ESKUBIDE BERDINTASUNA LANA ETA KOTIZAZIOAREN ESKUTIK

Posizio honetan kokatzen diren donostiarrak egoera sozioekonomiko egonkor batean kokatzen dira. Migratzaileekiko begirada batez ere indiferentzia posizioan kokatzen diren pertsonena da. Norberarengan zentratua, ikuspegi kolektibo handirik ez duena.

Ikuspegi honetan kokatzen diren pertsonak ez dute administrazio sistema zalantzan jartzen. Hau da, laguntzak jasotzen dituzten migratzaileak, arauak betetzen dituztelako jasotzen dituztela uste da, eta sistema bera ez da zalantzan jartzen. Arauak betetzearekin adierazi nahi dena da lana eta kotizazio sistema horretan txertatuak daudela.

Hombre, niri iruditzen zait o sea, pertsona horiek lanean baldin badaude, eta kotizatzen baldin badaude, ni bezalako eskubide berdinak izan behar dituztela. O sea, esan nahi dut, nik egiten dudana berdina egiten dute. Orduan zergatik ezin dute babes ofizialeko etxe bat hartu, ez? ES_9.2

Sistemaren arauetan konfiantza horretatik, ez dute uste migratzaileekiko diskriminazio positiborik egiten denik. Edozein kasutan gainontzeko herritarrek eskubide horien erabilera egin nahi ez izatea beraien arazoa dela salatzen da, migratzaileari horren inguruan inolako ardurarik ezarri gabe.

Eta gero gainera jendea kexatzen da laguntzak jasotzen dituztelako. Ba joan zu eskatzera baita ere! Es que jendea ez da joaten eskatzera laguntzak! Jendeari lotsa ematen dio. Ez zaio dirua iristen baina lotsa ematen dio udaletxera joatea diru laguntza bat eskatzera. Baina gero kexatzen da kanpotik datorren pertsona horrek diru laguntza hori jasotzen duelako! O sea! ES_9

Ildo honetatik eta administrazioaren egungo sistema zalantzan jarri gabe, administrazioak berak egoera honen aurrean erantzuteko izan dezakeen gaitasuna da zalantzan jartzen dena. Honela, kontrol diskurtso baten aurrean kokatzen gara posizio honetan. Estatuak datorren jende guztia lagundu ahal izateko duen gaitasun faltan oinarritzen dena.

"Baina bueno nire ustez hona lanera etorri dira eta lana denentzat zegoen garaian ongi etorriak eta erabili ditugu eta orain nire ustez saiatu behar gara banatzen dagoena eta horiek ere... Hemen zeudenak noski, ezta ere ezin dugu, zoritxarrez ezin da atea ireki eta benga etorri denak eta denentzat, zeren eta hori ezinezkoa da. Orduan, baina bueno, hemen zeudenei orain ere ez ditugu baztertu behar. Hemen lanean egon badira

ba saiatu beharko gara horiek hemen mantentzen eta hori. Era irekian baldin badatuz hona, nire ustez hori, saiatu behar gara horiek integratzen." ES_7

Era berean, administrazio lokalak diru laguntzen ildotik egiten duen jarraipena bera ere zalantzan jartzen da, ematen diren laguntzen kontrol eta egikaritzea baten beharra aipatzen delarik.

"hay que revisar mas las ayudas que se les dan, pero como a todos, eh? A los de aquí también, no solo a los de fuera, a los de aquí también hay que revisar, pero me parece bien que se les ayude." ES_6

✓ JATORRIAREN ARABERAKO ESKUBIDE LEHENTASUNAK

Diskurtso mota hau egoera sozioekonomiko ezegonkor edo hauskor batean kokatzen den pertsonen azaltzen dute. Norberaren beharretan zentratuta dauden pertsonak dira, eta behar horien asebetetzea neurri batean kolokan ikusten dutenak gaur egun.

Migratzailea erraztasun handiekin eta egoera eta laguntza sozialei 'probetxu' ateratzen dien pertsona bezala irudikatzen da. Batzuetan lehen pertsonan, bestetan hirugarren pertsonan hitz egiten da (entzun dut inoiz, esan didate ...) eskubide sozialak eta jasotzen duten laguntzei buruz hitz egiten denean.

"mira yo no se. Son comentarios que he oído, que les dan muchas facilidades, aprender euskera gratis, les dan para hacer el carnet de conducir, les dan una parte... Entonces yo ahí lo veo un poco mal. O sea no porque sean de fuera, o sea que a los demás no nos dan las facilidades esas, ¿y por qué se lo tienen que dar a los demás? yo soy emigrante, a mi no me han dicho vete a un euskaltegi o vete... nosotros te lo pagamos. Pues si yo he querido, o mis hijos han querido, yo he tenido que pagar clases particulares, porque eso no es comida, esos ya son unos lujos." ES_13

Diskriminazio positibo bat egiten dela salatzen da, norberaren egoerarekin ere alderatuz. Kolektibo lagundua dela uste da azken batez. Horren aurrean 'bertakoek' lehentasunak izan behar dituztela pentsatzen da. Dagoeneko laguntza jasotzen dutenei ezin zaiela kendu azpimarratzen da, keinu positibo bat izango balitz bezala. Azken batez administrazioaren sistema bera da zalantzan jartzen dena.

"Hay como menos gente ahora con la crisis, ahora con las crisis, claro ya no le dan tanta, tantas facilidades. Es que ahora no hay ni para los de aquí, como para darles a los demás. Hombre tampoco les van a dejar en un... debajo de un puente no, y sin comer y... que son personas humanas igual que somos nosotros." ES_13

A. ESKUBIDE SOZIALEN INGURUAN JASOTAKO DISKURTSOEN ONDORIOAK

Eskubide sozialen aferaren inguruko hautemateari dagokionez, diskurtso ezberdinen artean **jasotako ideien ondorio gisa** honakoa esan genezake:

✓ POSIZIO ARGI BAT IZATEA KOSTATZEN DA.

Eskubide sozialen eremuan posizio argi bat izatea kosta egiten den gaia da. Kezka sortzen duen gaia da batez ere azken urteetan krisi ekonomikoaren egoerarekin. Baina gai delikatuak dela aipatzen da. Norberaren iritziak, aurreiritziak eta 'zuzena' dena nahasten dira. Honen aurrean posizio argi bat izatea ere kosta egiten zaie hiritarrei.

✓ OSASUNA ETA HEZKUNTZA ESKUBIDEAK UNIBERTSALAK. DISKURTSO BAZTERTZAILEAK LANA ETA BABES SOZIALEN EREMUAN.

Hasieran esan bezala, osasun sistema eta hezkuntzaren inguruan eskubide berdintasuna inork zalantzan jartzen ez duen bezala, lana, etxebizitza eta babes sozialen inguruan sortzen da iritzi ezberdintasun nabarmenena.

Sortzen diren diskurtso baztertzaielen zantzuak ildo honetan daudenaren pertzepzioa dago. Aurreiritziak eta diskurtso baztertzaielak harreman estua dute migratzaile berria ikusteko dugun moduarekin. Beraz, ikuspegi utilitarista batetik begiratzen baditugu, sortzen diren diskurtso baztertzaielak lanaren eremuan eta laguntza sozialekin lotuta egongo dira.

✓ HARTU-EMAN LOGIKA BAT DAGO KASU GEHIENETAN ESKUBIDEEN AFERAREN ATZEAN.

Diskurtso nagusian eskubideak eta betebeharrak multzo bateratu batean sartzen dira. Eskubideak eskubide dira, baina betebehar batzuk eskatzen dituzte. Modu sinple batean esanda, inori ez zaio zerbait ematen "besterik gabe".

✓ JARRERA BAZTERTZAILE ESPLIZITUAK GEHIENETAN 3. PERTSONAN

Herritar askoren kasuan eskubide sozialen inguruan hitz egiten denean hirugarren pertsonaren erabilera egiten da. Askok aipatzen dute kasuren bat entzun dutela, "nik entzun dut, esaten dute" erabiltzen da diskurtsoetan. Honek ateak zabalik uzten ditu proiektio maila bat ere egon daitekeela pentsatzeko. Hau da, besteen ahotan jartzea norberaren ideiak.

Proiektio honen atzetik ideiak diren bezala ez azaltzeko beldurra ere egon daiteke. Gizarte honetan zuzenak diren diskurtso batzuk badaude, eta hortik ateratzen denaren diskurtsoaz egin daitekeen epaiaketak kezkatuta hirugarren pertsonan esatean neutralizatu egiten da ideia.

✓ ADMINISTRAZIO LOKALARI PAPER GARRANTZITSUA EGOZTEN ZAIO ESKUBIDEEN EGIKARITZAN.

Eskubide sozialen gaiari lotuta, administrazioari paper garrantzitsua egozten zaio eskubideen egikaritzan. Eskubideen aukera berdintasuna zalantzan jarri ala ez, behin ematen direnean administrazioak duen kontrol sistema eta egikaritzan ikusten da arazoa. Hortik, kontrol diskurtsoak sortzen dira.


3

JATORRI ETA KULTUR ERREFERENTE EZBERDINETAKO DONOSTIARREN ARTEKO ELKAR EZAGUTZA, AITORTZA ETA BIZITZARAKO AUKERAK ETA OZTOPOAK

3.1 DISKURTSOTAN ATZEMAN DAITEZKEEN HARREMAN EREDUAK.

Sarreran aipatu bezala, azterketa hau hiru kapitulu edo bloke nagusitan antolatu da: lehen kapituluaren donostiar migratzaile berrien hautemateak aztertu dira; bigarren kapituluaren Espainiar estatuko jatorria nahiz euskal jatorria duten donostiarrenak. Horren ostean, eta hirugarren kapitulu honetan, harremanetan jarri dira elkarriketatu guztien hautemateak gai zabal baten harira: **jatorri eta erreferentzi kultural ezberdinetako donostiarren elkar ezagutza, aitortza eta bizitzarako aukerak eta oztopoak.**


Orain arte batzuk eta besteen pertzepzioak kontuan hartuta, eta diskurtsoen berregiteari zentzua emanez, 3 eredu ezberdin topatu dira nabarmenki, kulturen arteko harremanak irudikatzeari dagokionez:



1. Aniztasunaren balioaren oinarrian kultur artekotasunaren eredua.
2. Aniztasunarekiko indiferentzian oinarritutako eredua.
3. Ikuspegi asimizailearen eredua.

Hiru eredu horiek ez dira beti modu itxian agertzen, hots, pertsona batek izan dezake batez ere lehenengoak kokapena baina bigarrenetik pixka bat edota alderantziz. Horrez gain, fluxuak gerta daitezke eredu batetik bestera elementu zehatz batzuk eraginda.

A. ANIZTASUNAREN BALIOAREN OINARRIAN KULTUR ARTEKOTASUNA:



Kultura guztiekiko errespetua abiapuntu izanik, **berdintasun batetik** eta inork besteak baino botere gehiago izan gabe kultura ezberdinen arteko **hartu emanean jartzen du** oinarria.

"mugikortasuna da izugarri erraza. Orduan hori errealitate bat da, orduan jendea mugitu egiten da, beraz, horretarako prestatuta egon behar dugu, irekita egon behar dugu, zeren... Bai gu kanpora joateko, bai besteak hona etortzeko etabar. Horrek ditu bere alde onak. Zeren eta garbi dago gauza onak daudela leku guztietan, bai? Eta bere alde txarrak, ba pixka bat gerta daiteke... Nire ustez herri batek bere nortasuna izan behar du eta horri eutsi egin behar dio, orduan hori, arriskua hori galtzekoa. Baina iruditzen zait asmatuz gero horri eusten aberatsa dela jendea kanpotik etortzea. Gurea ere hedatzeko, kanpoko jendeari etortzen denari gurea erakusteko etabar, eta integratzea. O sea, helburuak izan behar du jende hori integratzea. Ez kanpotik etorri eta hemengoa desegitea baizik eta ez, ez, ez. Guk noski beraien gauza onak ere onartuz, baina baita ere pixka bat helburua izan behar du horiek integratzea. Ez, ghetto ezberdinak egitea hemen. O sea, hemen euskaldunak, hemen ekuatoriarak, eta hemen... ez." ES_7

Aniztasuna, gaur egungo errealitate bat dela aitortu eta aberastasun bezala ikusten da. Harreman interkulturaletan **aniztasunarekiko errespetuan eta elkar osagarritu eta aberastean oinarritutako harremanak eraikitzen dira.**

Honek **ez du ekiditen gatazkak** egongo direnik. Baina **hauek errespetuz eta elkarrizketa** bitartez ematen zaie irtenbidea. **Komunikaziorako espazio horizontalak** sortu beharko dira, **sinergiak bilatu** beharko dira.


Ikuspegi honetatik, migratzaileek beraien kultura mantentzeko eskubide osoa dute, bertakoa errespetatzea bidezkoa den bezala. **Ezberdintasunekin berdintasun batean bizitzeko aukera eman behar da.** Ez da beldurrik sentitzen bestearen aurrean, bestea ezagutuz eta konpartituz bertakoa ere hobe zainduko dela uste baita.

Ikuspegi eraikitzailearen oinarritik, bakoitzak berarekin dakarrena kontuan izan beharko litzakete: norberak dakarrena ezagutu, errespetatu, baloratu eta integratu. Horrek ez du esan nahi besteengandik datorren guztia onartu behar denik, ezagutzatik abiatuta **elkarren artean egiteko modu berriak eraikitzea da planteamendua.**

Aniztasuna balorean jarrita kultur artekotasunaren bidean urratsak eman ahal izateko, hasteko, **kultura ezberdinen arteko harremanen konplexutasuna ulertu behar da**. Horretarako, **elkar ezagutza funtsezkoa** da. Eta bestalde, jatorri eta kultura ezberdinetako **pertsonen arteko elkarrizketa sustatu** behar da.

Aniztasunaren balioan oinarritutako kultur artekotasunak, elkar ezagutzarako, aitortzarako eta elkarbizitzarako aukera zabaltzen duen eredia da. Baina ez da elkarbizitzara begira egon daitekeen eredu bakarra. Interakziorik gabeko kultur artekotasuna eta jarrera asimilazionista ere topatzen dira.

B. ANIZTASUNAREKIKO INDIFERENTZIAN OINARRITUTAKO EREDUA: HARREMANIK GABEKO ANIZTASUNA




Kultura, jatorria edo arrazaren arabera **diskriminaziorik ez egitean indarra jarri eta eskubide berdintasuna sustatzen duen eredia da, ezberdintasun kulturala onartuz**. Pluralismo kulturalaren lehen espresioa da, asimilazioaren aurkako filosofiaren barruan.

Ikuspegi edo eredu honetatik, **jatorri eta kultura ezberdinetako pertsonak elkarrekin gizarte batean berdintasun batean biziko dira**. Kultur artekotasunarekin daukan ezberdintasuna, **harremanak eta interakziorik sustatzen ez dela** da. Beraz, berdintasun hori aldarrikatu bai, baina elkarbizitzaren hartu eman horretan sartu gabeko eredia litzateke.

Ikuspegi honetatik ez da aniztasunaren bestelako aberastasunik ikusten. Eredu honen baitan, hiritarrak (jatorri ezberdinetakoak) eroso sentitzen dira. Ez da egiteko modu berrietara egokitu behar, ez du esfortzurik eskatzen. **Interakziorik ezean, gatazkarako ere aukera gutxi** eskaintzen ditu. **Espazioak konpartitzen** dira.

Diskurtso honetatik abiatuta, **elkarbizitzaren osasuna ona dela adieraziko da, gatazkarik ez dagoen bitartean**.

C. KULTURALISMO ASIMITZAILEAREN EREDUA



Kulturalismo asimilatzailearen ereduaren arabera, integrazio prozesuan zehar eta harremanak sortzera begira, **kultura eta etnia ezberdinetako pertsonak beraien balore eta jokaerak alde batera utzi behar dituzte, hartzailea den gizartearenak barneratzeko**. Hartzailea den kultura besteen gaineratik kokatzen da, eta beraz konfrontazio horretan garaile gisa atera behar du.

3.2 KULTUR ARTEKOTASUNAREN EREDURA GERTURATZEKO AUKERA ETA OZTOPOAK

Ereduetan jaso denaren arabera, jatorri ezberdinen arteko elkar ezagutza, elkar aitortza eta elkarbizitzaren bidean aurrera egiteko aniztasuna balioan jartzen duen kultur artekotasunaren ereduak aukerak zabaltzen dituela baieztatu daiteke.

A. ABIAPUNTUA, INTERAKZIO GUTXIKO ELKARBIZITZA

Aurreko ataletan jasotakoa laburki gogora ekarriz, jatorri ezberdineko herritarren arteko harremana irudikatzerako orduan, donostiarrak batez ere kulturartekotasunaren eta kultur aniztasunaren eredu horietan kokatzen direla esan daiteke, nahiz eta asimilazio joera ere antzematen den egoera batzuen aurrean hainbat diskurtsoetan.

Diskurtso nagusian, harremanak interakzio gabeko kultur aniztasunaren eredu horretatik ikusten dira gaur egun. Elkarbizitza on batekin elkarren artean harremanak izatea ulertzen bada, Donostia urrun dago errealitate horretatik.

Oro har donostiarrak bloke ezberdinetan biziko balira bezala daude. Batzuk hor, besteak hemen, baina gehiegi nahastu gabe. Halaber, eredu honek ongi sintonizatzen du hiritar askorekin, migratzaile berriekin eta euskal nahiz espainiar jatorria dutenekin.

- ✓ Erosoa da migratzaile berri askorentzat (batez ere motibazio ekonomikoak bultzatu dituenentzat):
 - Batetik integrazio sozioekonomikoaren bidean jartzen da esfortzua.
 - Bestetik jarrera baztertzailerren bat bizi izan dutenen kasuan interakzio gehiago ekiditeko modu bat ere bada
- ✓ Berdin bertako nahiz espainiar jatorria dutenentzat, berera jarraitzeko aukera da, aldaketarik eman gabe, ez txarrera, ez onera.

Halaber esperientziak erakusten du interakzioa dagoen kasuetan sortzen direla talkak, orduan sortzen baita batak eta besteak elkarri egokitzeko beharra. Gatazkak beharrezkoak dira ikuspegi eraikitzaile batean aurrera egin nahi bada. Baina askotan gatazka horiek eta egunerokotasunean bizi diren esperientziak norberaren jarrera, diskurtso eta posizioetan kontraesanen aurrean jartzen gaituzte, baloreak zalantzan jartzen dira, sentimendu kontrajarriak sentitzen dira. Beraz, hori ekiditeko modu bat distantzia batean bizitzen erabakitzea da, babesteko modu bat bezala.

"Yo tengo sentimientos encontrados en el asunto, no? Por un lado no soy una persona que se considere xenófoba, porque en principio no me considero xenófobo. Pero a mi cuando me mencionan la palabra inmigrante por un lado no tengo ningun problema porque obviamente esta... Cada uno es de donde trabaja, de donde vive y de donde se implica. Pero yo vivo en la parte vieja, vivo en la calle Sarriegi y tengo últimamente los últimos años cuando me dicen inmigrante pam! Me salta lo que tengo debajo de casa. Y no puedo evitarlo, no puedo evitarlo..." ET

Edozein kasutan, Donostian interakzio falta bat nabarmentzen den bezala, esperientzia diskriminatzaile batzuk ere bizi izan dira eta oraindik bizi dira. Modu grafikoan adierazita, elkarbizitzaren argazki bat aterako balitz, ez litzateke Donostia eguzkitsu eta distiratsu baten irudia izango.

Abiapuntua hori izanda, kulturartekotasunaren eredu horretara gerturatzeko aukerak badaude, baina lanketa bat ere egin behar dela argi geratzen da.

B. DONOSTIAN MIGRAZIO FLUXU BERRIEN FENOMENOA NAHIKO BERRIA DA

Harreman eta interakzio falta horretan, donostiar batzuk, migrazio fluxu berriekiko hiriaren 'esperientzia laburra' aipatzen dute aldagai garrantzitsu bezala. Migratzaileek eta donostiar jatorria dutenek bat egiten duten epaia da. Denbora gutxi da Donostiak migratzaile berrien presentzia duela. Datuek ere honela adierazten dute. Garaiko espainiar migratzaileen olatuaz aparte azken 10 urteetan eman da biztanlerian gorakada handia. Batzuen iritziz fenomeno honetarako prestatu gabe zegoen hiria da, nolabait ezustekoan harrapatu duena.

"Es lo que me decía a mí mi vecino. Decía "lo que pasa es que nosotros no estábamos acostumbrados a ver gente de fuera. Entonces llegaron ustedes y nos chocó". Y luego, por ejemplo, si uno mata, si uno mata un perro, ya le dicen a todos mataperros.

G: MATAPERROS (EN CONSONANCIA)

E: Y es así. Entonces comienza la desconfianza, la falta de... Y es eso ¿no? Cuesta. Yo pienso que esta ciu, esta ciudad no estaba preparada para el fenómeno migratorio. Pero poco a poco, estamos metiéndonos yyy algún rato síiii... en unos años tal vez..."

ES_2

Horri gehitzen diote ezberdintasunari oraindik beldurrez begiratzeko joera eta oro har euskaldunen izaera itxia eta hotza (hotza gisa hasierako erreakzioa distantzia eta behatzeko joera bat izatea ulertuta). Aldagai guztiak batuta, 'normaltzat' ikusten da interakzio falta baten aurrean aurkitzea. Migratzaile batzuk jarrera baztertzailak hortik begiratzen dituzte, ez-ezagutzaren sintoma gisa.

"pues por ejemplo en, yo al principio, bueno aquí la gente es como muy cerrada no, pero yo creo que, bueno mucha gente piensa, los inmigrantes, piensan que aquí son racistas no. Pero yo siempre he dicho que aquí no hay racismo, aquí no hay racismo. Es que lo que hay aquí, la gente es un poco cerrada, pero si no te conoce. Pero cuando te conozca, es otra cosa. Te pueden, pues abrir los brazos, o sea, bien venido con los brazos abiertos, pero cuando te conozcan. A mi creo que al principio, si no te conocen es muy complicau que te abran los brazos, te tienen que conocer, quien eres, como eres...sin eso, es muy complicau que entres" ES_3

Edozein kasutan, ez-ezagutza maila handia da, eta ez-ezagutza horrek aurreiritzi eta estereotipoetan oinarritutako harremanak sortzea bideratzen du, hain justuki elkar aitortzarako aukerak murriztuz.

"R1: Muchas veces por ignorancia dejas de considerar persona a esa gente dejas de considerarla persona. Si viene a tu casa a comer, si tratas con ella, para ti ya deja de ser..."

R2: Un desconocido en la calle.

R3: Un desconocido en la calle de otra etnia, y ya es una persona, porque es que joder mi hijo pequeño de tres años ha tenido o tu hija ha tenido un problema y te vas acercando, vas identificándote con esa gente como persona." ET

Bide honetatik, denbora bat eta noski lanketa bat eskatzen duen arloa dela uste da. Alegia, etorkizunean aniztasuna balorean jartzen duen kultur arteko eredu batean oinarritutako elkarbizitza bat irudikatzen bada, lanketa bat eskatuko du.

C. HIRIAREN AUKERAK ETA OZTOPOAK

Hiria bera izateak aukera eta oztopo diren aldagaiak ditu bere gain harremanak sustatzera begira.

✓ AUKERAK

Aukeren artean interakziorako espazio gehiago daudela eta modu ezberdinetako eskaintza topa daitekeela adierazi da. Sozializazio eremuan anitzak dira, kalea bera, elkarteak, tabernak, etab.

Elkarte ezberdinek sustatzen dituzten ekintzak ere hor daude, jarduerak, jardunaldiak tarteko.

✓ OZTOPOAK

Oztopo gisa irudikatzen da dagoen eskaintza askok kostu ekonomikoarekin daukan lotura, eta beraz irisgarritasunari dagokionez suposatzen duen aukera ezberdintasuna. Donostiako aisia garestia da hainbat eremutan, kontsumo kultura batekin lotzen da.

Bestalde, hiriak, askotan bakarrik sentitzeko aukerak ere areagotzen ditu. Jende multzo horren artean norbere lekua aurkitzea ez da erraza izaten eta bestetik harremanak hasteko aukerak murrizten dira.

"Donostian... askotan errealitate bat da, jende asko dagoen tokian bakartiago sentitu zaitezke jende gutxi dagoen tokian baino. Jende pilo bat, eta jo, hemen hainbeste jenderen artean behar bada bakartiago sentituko zara, zeren eta zailagoa da lekua aurkitzea. Jende gutxi dagoen tokian errazago beharbada sartu eta ba bueno... ba horra sartu behar naiz eta saiakera egin eta..." ES_7

✓ ARRISKUAK: HIRIAN DENA 'HANDIAGOA' DA

Arriskuak ere baditu hiri izaera horrek: hiriak eremu guztietan hartzen duen dimentsioa. Hirian dena 'handiagoa' da. Hori kultur arteko harremanetara eramanda hirian jatorri berdinekoen arteko harreman taldeak sortzea ohikoagoa eta errazagoa izan daitekeela ondorioztatu daiteke. Hau da, taldeak beraien artean elkartu eta *getthoak* bilakatzeko arriskua. Batzuk, batez ere migratzaileekiko eta aniztasunarekiko ikuspegi irekia dutenak nahi ez dutena.

Migratzaile batzuen iritziz jatorri berdinekoen arteko taldeak sortzea eta interakzio gabeko fase bat beharrezkoa da, are gehiago Donostian migrazio berriarekiko dagoen ibilbide laburra ikusita. Horren arrazoia: beraien berdinekoekin taldeak osatu eta horrek ematen duen babesa eta pertenezia sentimendutik ziurtasun bat sentituko dela. Eta ziurtasun horretatik besteekin erlazionatzea askoz ere errazagoa egiten zaie. Honela, adibide gisa jartzen dira Londres eta bestelako hiri handietako egoera, non komunitateak sortu diren, baina kultura ezberdinen arteko harremanerako aukerak ere anitzak diren.

D. PERTSONEN ARTEKO HARREMANEN KRISIAREN ERAGINA

Kultur arteko harremanak sustatu nahi badira, pertsonen arteko harremanak hain zuzen, kontuan izan beharreko aldagaia da dudarik gabe honakoa: pertsonen arteko harremanak aldatzen ari dira, estiloan eta edukian ere zenbaitzuen ustez.

▪ **Norbanakoan eta "edukitzean" zentratutako gizarte baten isla**

Migratzaile berriekiko harreman eza eta interakzio maila apala pertsonen arteko harremanen krisiaren egoera bati egozten diote batzuk. Sozializazio esparruak aldatu dira, ohiturak aldatzen ari dira, erlazionatzeko moduak ere. Ez bakarrik Donostian, orokorrean Euskal Herrian eta beste hainbat herrialdeetan ere.

Nolabait, harreman sareak ere 'interesaren' logika horretan sartu dira. Lanaren esparruan harreman sareak izatea funtsezkoa den bezala, esparru pertsonalean harreman sare zabala estutzen ari da. Modu sinplean esateko, harremanak "deshumanizatzen" ari dira, merkatu logika baten barruan funtzionatuz.

Eta hori esparru ezberdinetan proiektatzen da. Auzokideen artean esaterako, donostiar jatorriko pertsona bik nabarmentzen duten bezala. Lehen etxeko ateak zabalik zeuden bezala gaur egun hori erabat desagertu dela aipatzen dute. Migratzaile latinoamerikarrek ere talka nabaritzen duten lehen esparru gisa harreman falta hori irudikatzea ez da kasualitatea.

"Es que si no conocemos a la persona de al lado, no vamos a poder nunca integrarnos. Si yo a veces, es que me admiro, porque mucha gente ni siquiera sabe quien vive al lado de tu piso. Cuando en nuestros países sabemos el vecino... sabemos más nosotros que el propio vecino. Sabemos con quien vive, que vive, que hace... Hay mucha más relación de cordialidad, de amistad, de confraternidad... Yo aquí me admiro cuando sale en las noticias de que muere el vecino de al lado y los demás ni se enteran. ¡Qué raro! Nosotros no, nosotros somos gente más cálida. Estamos, nos enteramos, estamos, sabemos del

vecino... Todavía somos de los que vamos y le golpea en la puerta y le dice "vecino, présteme una tacita de azúcar". Eso aquí se ha perdido mucho." ES_2

Harremanen kalitatea ere aldatu da. Gizarte askoz ere indibidualistago batean bizi gara, "bakoitza berera" doan gizartean. Norberaren beharretan eta egunerokoan zentratua egonik esfortzu gutxi egiten da bestearekiko gerturatzea areagotzeko. Gizarteak horretara bideratzen gaituela da salatzen dena, produkzioa, lana eta egin BEHAR horietara, harremanak landu eta horretarako denbora hartzera baino.

"E2: Que va! Ba hori gu gaude a ver lan ona, diru soldata ona..."

E1: Es que nik uste dut ez dela ezta planteatu egiten, zu zoaz zure bolara, baina azkenean denak oso indibidualizatuak gaude. Nik nirea eta nik lortuko dut nirea eta hau, eta hau nahi dut eta..."

E2: Eta besteak... que no tengo tiempo besteentzat. Ez dago sustatuta elkarbizitza hori. Ez dakit. baina niri iruditzen zait o sea, zer? O sea bizitza honetan zer... gaudela super bideratuak gauzak egitera eta harremanak edukitzera jendearekin... ez da sustatu den gauza bat. Sustatzen dena da produkzio aldean, ez? Lana, ikasketak bukatu, lana, familia, ez dakit zer... Orduan ez dago aukera... O sea, zuk egin behar dituzu gauzak." ES_9

▪ **Mundu globalizatu batean harreman globalizatuak**

Zailtasuna ere harremanak mantentzeko estilo aldaketetan dago. Teknologia berriak eta duten eragina hor dago, eta harremanak izateko moduak ere aldatu dira. Erraz mantentzen ditugu harremanak munduaren beste puntan dagoenarekin, eta ez gara gai albokoarekin luzez hitz egiteko. Migratzaile berriek eta euskal jatorria duten donostiarrek egiten dute faktore honen aipamena.

Wassap-ak aurrez aurreko elkarrizketei bide hartu die. Lehen naturaltasun batez elkarrizketak sortzen ziren esparruetan (trenean, ilaretan zain...) orain norberak bere mugikorrari begiratzen dio.

"R1: Ha cambiado todo, la forma de relacionarse.

R2: Si, todo el mundo esta en el Whatsapp en el movil, es impresionante, ha cambiado.

R3: Justo en el Buen Pastor justo me comuniqué con unas amigas de Ecuador con Internet y estaba yo también... justo se conectaron en el mismo tiempo unos de Ecuador y yo hablando por ahí y la otra, ja, ja! Y ahora esta todo el mundo así..." ET

E. ESKOLAREN PAPER BIKOITZA. INTERAKZIO ESPARRU ETA BANAKETA GUNE

Eskolak paper bikoitza jolasten du jatorri ezberdinetako pertsonen arteko harremanetara begira. Batetik, sozializazio esparru naturala da, jatorri ezberdinetako gurasoak eta umeak elkarrekin egotera bultzatzen duena. Modu batean ala bestean interakzio hori ematen da, edo emateko aukerak zabaltzen dira.

✓ **JATORRI EZBERDINETAKO PERTSONEN TALDEAK ESKOLEN ARABERA**

Berez, eskolaren eremuan interakziorako aukerak zabaltzen direla esan dugu. Baina beste fenomeno bat ere gertatzen da, jatorri ezberdinetako pertsonen arteko

harremanak sustatu baino oztopatzen dituen: eskola ezberdinetan jatorriaren arabeko taldeak sortzea. Hau da, Donostian dauden eskola batzuetan migratzaile berri asko kontzentratzen ari dira, bertakoak eta migratzaile berriak biltzen diren ikastetxeak bereiziz. Horien adibide batzuk jaso dira, Prim kalean dagoen San Jose Ikastetxea eta Egian kokatzen den Maria Auxiliadora ikastetxeak esaterako. Zuhaitzi ikastetxea eta Axular aldiz bertako jatorria duten herritarrek osatua dago batez ere.

Eskola batzuetan pilaketa bat ematen da beraz. Pilaketa horrek arrazoi hauei erantzuten die:

- Migratzaile berri askok bi faktore hartzen dituzte kontutan haurrak eskolaratzerako orduan:
 - Etxetik dagoen gertutasuna. Horri gehitzen badiogu joera gehiago dagoela auzo batzuetan bizitzea besteetan baino, logikaz orduan eskola batzuk populazio migratzaile altuagoa izaten dute. Aieten adibidez gutxi daude, beraz bertako eskoletan ere gutxiago elkartzen dira.
 - Haurrak urteko sasoi guztietan onartzen dira. Hau da urte erdian bada ere haurrak eskolaratzen dituzten ikastetxeak dira. Eskola askok ikasturte hasierarekin funtzionatzen dute, beraz umeak eskolaratzeko aukera ematen duten eskoletara gerturatzen dira.

Beraz, joera bat badago eskola batzuetan gehiago pilatzera.

- Joera horretatik abiatuta eskolaren inguruan oinarririk gabeko epai eta aurreiritzi garbi bat sortzen da donostiar jatorria duten askoren artean: migratzaile kopurua altua duten eskoletako hezkuntza maila baxuagoa izango dela edo dela.
- Ondorioz, zirkularra den egoera bat gertatzen da: migratzaile kopuru altua dagoen eskoletan ez dituzte umeak eskolaratzen, beraz migratzaile kopurua kontzentratzen da. Eta zirkulu hori elikatzen doa uneoro gero eta banaketa argiago bat emanaz. Pertsona ezberdinen aldetik jaso den inpresioa da, eta kezka sortzen duen gaia.

"R1: Entonces yo creo que a veces lo que pasa es que los padres por desconocer las culturas pues quitan los niños de esa clase y los ponen en otra clase y al final pues todos los niños marroquíes se quedan juntos. Eso es culpa de los marroquíes? No, están intentando integrarse. Para ellos es una gozada que esos niños estén bien integrados en la sociedad.

R2: Si pasa si. Si, si, lo que está diciendo es cierto." ET

F. ANIZTASUNAREKIKO PRESTATUA EZ DAGOEN GIZARTEA

Aniztasuna balioan jartzen duen kultur arteko harremanen oinarrian ezberdintasunekin berdintasun batean bizitzeko aukera eman behar dela adierazi dugu. Bestearen aurrean beldurrik sentitu gabe, bestea ezagutuz eta konpartituz norberarena ere hobe zainduko delakoan.

Zentzu horretan, hasieran komentatu den aldagaia birgogoratu behar dugu: Donostian migrazio berriaren fenomenoak urte gutxi batzuetako kontua dela. Eta ildo horretatik jarraituta, donostiar askok aniztasunaren aurrean kokatzeko dagoen prestakuntza eskasa ere nabarmentzen dute zailtasun gisa.

✓ EZBERDINTASUNAREN AURREAN JARRERA ZABAL BATEKIN KOKATZEKO GAITASUN GUTXI

Jatorri aniztasunaren gaiak haratago, ezberdintasunaren aurrean oraindik ere eredu bat dagoela jartzen da mahai gainean. Bultzatzen dela "gurea", guk nolabait onartu duguna. Eremita batzuetan nabarmenagoa da, eskolan ala etxebizitzak eraikitzeke ditugun moduetan (unifamiliarak ala familia eredu bideratuak). Sistema egituratu bat dago, eta beraz, horretatik kanpo geratzen da sistema horretan sartzen ez diren pertsonak. Finean esan nahi dena da oraindik orain aniztasunaren aurrean eta ezberdintasunarekiko elkarbizitzan dugun prestakuntza maila eskasa dela. Ez da jatorri aniztasunaren gaiarekin soilik lotutako zerbait. Euskal jatorria duten eta beste etnia gisa irudikatzen da ijitoen adibidea ere hor dago, eta adibide eta elementu garrantzitsua da.

✓ IJITUEN HAUTEMATEA ANIZTASUN ETNIKOA KUDEATZEKO ZAILTASUNEI BEGIRA

Migratzaile berriek adierazten zituzten zailtasun berdinak aipatzen dituzte ijitoek ere. Erabat estigmatizatu dagoen etnia da, aurreiritzi eta estereotipo asko daude sortuak beraien inguruan. Askotan edozein egoeraren aurrean esfortzu bikoitza egin behar dutela sentitzen dute, demostratuz uneoro ez direla gatazkatsuak etab. Oraindik orain astoa etxera igo eta etxe barruan sua egiten duten etnia gisa irudikatzen dituztela salatzen da. Eta jendeari harridura sortzen zaiola etxebizitza batean bizilagun ijito bat dagoen kasuetan zalapartarik sortzen ez bada.

"yo recuerdo que entramos a vivir allí mi mujer y yo, no éramos más, y a la semana o así de haber entrado a vivir le paro a mi mujer una vecina y le dijo: "Oye, pues no hacéis ruido eh?". Y mi mujer decía: "Pues no sé si hacemos ruido o no, pero sin más". Y seguidamente le dijo: "Pero tu familia no vendrá a comprar más pisos aquí, no? Porque no puede comprar más pisos aquí...". Y tal. Está ahí. Tienes que demostrar el doble no, por veinte lo que tiene que demostrar cualquier otra familia." ES_12

Migratzaile berriek etxebizitzaren arloan atzerritarra izateak zituen ondorioez mintzo baziren, ijitoen kasuan ere ezberdintasun bat markatzen du. Espainiar nazionalitatea izateak horretan ez du erraztasunik ematen etxebizitza lortzerako orduan. Are gehiago, beraien presentziak 'kostu' bat dauka gainontzeko bizilagunengan. Etxebizitzaren balioa ere jaisten duela hautematen da.

O por ejemplo a la hora de acceder a una vivienda un gitano –yo lo digo siempre en tono de broma pero es muy triste–, si yo me voy a vivir a tu bloque de viviendas, tu vivienda pierde dinero, se devalúa. O sea, que viva una familia de gitanos en un bloque de viviendas, la vivienda deja de costar lo que cuesta. Es muy triste y muy fuerte, pero pasa. O sea, nadie quiere vivir al lado de un gitano. A la hora de acceder al alquiler de una vivienda, yo, porque trabajamos con familias gitanas, y llamas a una inmobiliaria y te preguntan si eres español. "Sí, soy español". "Eres gitano?". ES_12

Hezkuntza sistemaren aurrean ere ijitoek beste inork baino zailtasun gehiago dituztela salatzen dute. Epai hau honako arrazoietan oinarritzen dute:

- Eskolaratzeko kupoak dituzte. Ijitoak eskola bakar batzuetan ez kontzentratzeko neurriak dira. Baina askotan familiaren antolakuntzan zailtasun handiak sortzen ditu. Zentzu honetan, beraien egoera eta jatorri ezberdinetako migratzaileena desoreka batean mantentzen dela salatzen da.
- Bestalde, eskola eremuan baztertuak sentitzen dira. Norbere pertzepzio subjektiboaz gain, batzuetan baztertzen dituztenaren adibide garbiak dituzte.

"Yo recuerdo a xxx del colegio, que se llamaba xxxx, yo recuerdo que una vez me pillo hablando con una compañera hablando en clase y xxx se acerco a nosotros, no se dirigió a mí, y a ella le decía: "Tu tienes que aprovechar el tiempo porque este va a ser chatarrero. Este no importa, pero tu tienes que...". Yo eso lo he vivido. Aquí en Donostia." ES_12

✓ ANIZTASUNA BERA, LANDU BEHARREKO GAIA ZALANTZARIK GABE

Jarri diren adibideak kasu, egoera honi aurre egiteko lanketa bat beharrezkoa dela nabarmen geratzen da. Lanketa honetarako elementu garrantzitsua, klabea, hezkuntza lana dela aipatzen da, ezberdintasunaren aurrean kokatzeko gaitasunak eskuratzen lagunduko duela uste baita. Horretaz gain, aniztasunaren gaiari heltzeko beharrezkoa den bultzada politikoa.

▪ ANIZTASUNA, HEZKUNTZA ARLOAN LANDU BEHAR DEN GAIA DA

Argi geratzen da lan pedagogiko baten beharra aniztasunaren gaiari dagokionez. Aniztasunaren gaia bera hezkuntza sisteman txertatua dagoen gaia da. Halaber, gaur egungo sistemaren inguruan iritzi ezberdinak daude. Kritikatzen dira bi gauza:

- Hezkuntza sistema produkziara bideratua dagoela harremanak lantzeraino baino
- Zeharka aniztasuna lantzeak ez du bermatzen horren lanketa, irakasleen eskuetan gelditzen den gaia izanik.

Batetik, hezkuntza sistema ere gaizki bideratua dagoela kritikatu da. Ez da lantzen pertsonen arteko harremana, enpatia lanketa... inteligentzia eta produkziara bideratua dagoen sistema gisa ikusten da. Aniztasunaren gaia, edozein zentzutan, lantzen den zerbait da, baina era transbertsal batean.

*"E1: berez eskolan eta etxean eta leku guztitan berez haur bati erakutsi behar dizkiote bere bizitza emozionalki ondo garatuta egoteko, baina es que ez dizkiote ematen!
E2: Es que hori ez da garatzen. Hori ez dago sartuta... Kurrikulumean transbersalki bakarrik sartuta dagoen gauza bat da. Transbersalki sartzen diren gauzak irakaslearen esku geratzen dira. Orain irakasleari exigitzen zaizkion lehentasunak dira programazioa betetzea azterketa hau gainditzeko, zeren eta azterketa hori ez badute gainditzen ezin izango dute jarraitu. Claro, zuk hor ze egiten duzu 24 ikaslerekin klasean? 24 eta bakoitzak bere jatorria eta bere motxila." ES_9*

Irakasle batzuk jatorri ezberdinetako haurrak integratzera begira, ikasgelan protagonismoa ere ematen zaiela aipatzen dute, beraien herrialdeetako zerbait ikasi behar denean beraien ezagutzaz baliatu, beraien jatorriaz harro egoteko motiboak emateko hori ikustaraziz. Bere jatorria ukatu baino, jatorri ezberdintasun hori balioan jartzen saiatzen dira.

Baina edozein kasutan, zehar lerroa izatean irakaslearen eskutan geratzen da maila handi batean. Honela, horren benetako jarraipen bat egiten den ala ez zalantzan jarriz.

▪ ANIZTASUNA LANTZERAKO ORDUAN BULTZADA POLITIKOAREN BEHARRA ERE BADAGO

Gaiari politikoki heldu behar zaiola ere aipatzen da. Halaber askotan "partxeoak" egin direla kritikatzeko da. Aniztasunaren gaiari heltzeko planteamenduak behar du aniztasunaren gaia modu transbertsal eta sektorialean lantzea. Atal berezi bat horri dagokiona, eta atal ezberdinen artean modu transbertsal batean ere lanketa.

Ildo honetatik, instituzio ezberdinetatik aniztasunaren gaiari begirada zabal batetik heldu nahia baloratzen da. Ikuspegi asistentzialista bat baino, aniztasuna bere osotasunean kontenplatzea eta horren inguruko lanketa burutzeko sail bat sortu izana aurrerapauso bezala baloratzen da. Baina **bi diskurtso ezberdin** jaso dira honi dagokionez:

- Batetik, **aukera bezala bizi da**. Aniztasunaren balioa ikustarazteko modu bat, orain artekoek egin ez duten zerbait bezala. Beraz positiboki baloratzen den zerbait da, fruituak emango dituen lehen urrats bezala. Diskurtso honetan kokatu diren pertsonak dagoeneko lehen 'fruituak' ikusi dituztela aipatzen dute. Ijitoen kasua izanik elkarrizketatuen artean beraien presentzia aurreikustea aurrerapauso bezala ikusten delarik.

"...joder, el que haya un departamento de diversidad cultural a mi me parece ya un paso gigantesco, cosa que no había antes. Entonces yo si creo que se esta apostando por esa convivencia y se esta apostando por ese respeto y se esta apostando por... ya no se si decir igualdad o, ese vivir en armonía, se esta aportando. Entonces yo creo que va a ser mejor que la que hay hoy en día. Yo si lo creo, no se. El solo hecho de que se pare a pensar: Oye que tiene que haber un departamento de diversidad cultural para trabajar esto... A mi me parece un paso importante. No se..." ES_12

- **Bestetik, saila sortzea bera nahikoa ez dela aldarrikatzen da**. Benetako apustua egiten bada baliabideak eskaini eta gaia heldu behar zaiola uste da. Administrazioak horri erantzuteko aukerak mugak dituela pentsatzen da. Beraz, lan hori eragile ezberdinekin egin beharrekoa dela ondorioztatuz.

"Begira niri iruditzen zait beste petatxo bat dela. Berdintasun sailak jartzen diren bezala, direla hiru... Bueno dependen zein herritan dago teknikari bakarra, ez? Edo ez dago berdintasun sailik. Edo dago berdintasun sail bat, teknikari bat hiru herrirentzat, ez? Bueno, ba zer lan egingo duzu hor, ez? Eta etorkin teknikaria ere edo inmigrazio teknikariak ere pues bat edo ez dago, ez bi asko jota... Pertsona batek egin dezakeena da lo que le llega: "Aizu kartel honek begira... bueno igual hobeto sartzen baldin

baduzu...". Es que ez da iristen. Iristen da ekintza batzuk egitera, kanpaina batzuk egitera, formakuntza saio batzuk egitera, baina ez da iristen benetan eraldaketa horretara. Baizik eta bermatzera politika egiten dena instituzioetatik izango dena parekidea, izango dena kultur aniztasuna bermatzen duena. Pertsona batek ezin du hori egin." ES_9

Ildo honetatik, etorkizunera begira ere eszeptiko mantentzen diren pertsona asko aurkitu ditugu diskurtsoen artean. Benetako aldaketa bermatzeko indibidualismotik ateratzeko neurrietan jarri behar da indarra, aniztasunaren gaiari benetan heldu nahi bazaio.

Begira, ez bada aldatzen nik uste dut geroz eta okerragoa izango dela. Zeren eta ekonomia, kapitalismoak ezin du, puskatu beharko da ya, baina jarraitzen badu, geroz eta gehiago jarraitu bere bidea murrizketekin geroz eta okerragoa izango da gure elkarbizitza ere, ez? Ba beharretatik... Es que biziraun beharko dugulako, eta ez dakit... Baina aldatzen bagara eta saiatzen bagara alternatibetatik indarra hartzen edo indibidualismotik koletibotasun horretara joaten... ES_9

G. INTEGRAZIO KONTZEPTUAREN EGOKITZAPEN BEHARRA

Kultur arteko harremanen ereduak kultura guztiekiko errespetua abiapuntu izanik, **berdintasun batetik** eta inork besteak baino botere gehiago izan gabe kultura ezberdinen arteko **hartu emanean jartzen du** oinarria. Zentzu honetan migratzaileek beraien kultura mantentzeko eskubide osoa dute, euskaldunona errespetatzea bidezkoa den bezala.

Honek, integrazioarekin sarritan ulertzen denaren inguruan lanketa bat egin beharra dagoela ondorioztatzen darama. Diskurtso batzuetan **integrazioarekin ulertzen denaren atzean** honakoa aurkitu dezakegu:

- **Integrazioa norabide bakarrekoa da:** iristen direnek dagoen honetan integratu egin behar dute, esfortzua batez ere beraien aldetik egin beharrekoa da.
- **Integrazioa hasiera eta amaiera duen prozesua da:** pertsona bat erabat integratuta dagoela esatera iristen garen momentu bat dago.
- **Argi dago non eta zertan integratu behar den,** zuzena zer den argi izanda.

Aniztasunaren balioan oinarritutako kulturartekotasunaren ikuspegitik eta interakzioa bultzatzen den neurrian **integrazioarekiko ikuspegia ere aldatu behar da.** Ere honetan lanketa berezi bat egiten da.

- **Integrazioa bi norabideetan edo norabide anitzetan ematen da.**
Hau da, aldaketak bai hartzailea den gizarte horretan eta bai iristen denarengan emango dira, guztiok egin beharko dugu esfortzua horretan.
- Integrazioa **prozesu bezala ulertu behar da, ez du amaiera jakin bat, baizik prozesu dinamikoa da, etengabe birsortu eta berritzen doana.**

Pertsona berriak etengabe datoz, beraien balore, ibilbide, egiteko moduekin. Eta norbanakoak ere eraldatzen joaten dira bere bizitza ibilbidean. Beraz, integrazio eta egokitzapena ikuspegi honetatik begiratu behar da, bizia den prozesu bat bezala.

- Horretaz gain, **beste ideia batekin ere apurtu behar da: integratua egoteko zertan integratua egon behar den ere aurrez argi izatea.**

H. EUSKAL KULTURA, KULTUR ARTEKOTASUNERA BEGIRA, AHUL SUMATZEN DA

Kultura guztiekiko errespetua abiapuntu izanik, berdintasun batetik eta inork besteak baino botere gehiago izan gabe kultura ezberdinen arteko hartu emanean oinarria jarri behar dela adierazi dugu ereduaren definizioan.

Kulturartekotasun horretan, euskal kulturak leku berezia du. Leku berezia du eredu hori sustatzen ari diren pertsonak, euskararen zentratuak daudelako eta euskaratik besteei irekiak egon nahi dutelako. Euskaratik besteei irekiak egotea, kultura eta hizkuntza minorizatu batean, ez da batere erraza.

- Batetik, irekiera horren ondorioz bultzatu nahi den hizkuntzak eta kulturak lekua galduko duten beldurra izatea ohikoa da: asimilazioaren beldurra da. Hurrengo urteetan arreta jartzea merezi duen gaia da honakoa, ez bairik gabe.
- Bestetik, euskara berak eta euskal kulturak duen egoera kasu askotan ez delako indartsua.

✓ GAZTE JENDEAREN ARTEAN EUSKAL KULTURA EZ DAGO 'MODAN', EZ DA ERAKARGARRIA ETA BERRITZAILEA.

Euskal kultura harrotasun sentimenduarekin bizi duten pertsona asko aurkitzen ditugu donostiarren artean, kultura horretatik mundura zabaldu nahi dutenak. Baina tamalez, euskal kulturari distantzia eta behatzaile gisa begiratzen dioten asko ere badira, migratzaile askok eta euskal jatorria duten donostiar askok ere. Are gehiago, euskal kulturarekiko identifikazio horretan hezi diren nerabe eta gazte jendearen artean euskal kultura ez dago 'modan'.

"ez dakit, es que nik uste dut euskal kulturaz hitz egiten denean mundu guztiak, bueno mundu guztiak ez baina askok pentsatzen dutela kultura zahar bat bezala, kultura zaharra, modaz pasatutakoa, orduan gazteei, gehienbat gazteei nik uste dut ez zaiela gustatzen, delako zaharra, ez dagoelako modan eta nik euskal kulturarekin ez dut ezer jakin nahi." ES_11

Irudi zahartu bat, modernoa izatetik urrun eta tradizioarekin lotzen dena irudikatzen da askoren buruan euskal kultura hitza aipatzean. Euskal kultura ez da berritzailea, ez da "estiloso". Euskal kultura da trikitixa, Benito Lertxundi eta abesti zaharrak. Kultura baten dituen balio ezberdinak (funtzionala, sinbolikoa eta zeinu balioa) gutxi batzuen artean aurkitu dira, eta adinez nagusiagoak direnen artean batez ere.

Batzuen ustetan, euskal kultura eta 'modernizazioa', berritzailea dena, ez datoz bat. Euskal kulturako elementu gisa tradizionalak eta ukitu folklorikoa duten elementuak identifikatzen dira, adibidez euskal dantzak. Surfa berriz, berritzailea da, modernoa. Honela, ikuspegi honetatik pertsona bati ezin zaizkio surfa eta euskal dantzak gustatu, inkoherentzia bat dela pentsatzen baita.

Edozein kasutan euskal kultura antzinako kultura horri eta adierazpen konkretuekin loturik ez da funtzionala eta erakargarria den zerbait bezala ikusten. Nerabe baten ahotan jasotako aipuan

"O sea, jende askok, niri askotan gertatu izan zait, euskal dantza: "Ah, nik txikitan egiten nuen, jo ba zen guay eta ez dakit zer". Eta galdetzen duzu: "Eta zergatik utzi zenuen?". Pues ez dakit nik uste dut jendeari orain, pues euskal dantza bai tradizionala da eta trajeak denak itxiak, gona ez dakit noraino, manga luzea, hau ere eskoterik gabe eta nik uste dut o sea, horrek ez du erakartzen. Berezia da eta nahi duzu jakin nola den baina gero hori zuk ez duzu praktikatu edo ez duzu biziko." ES_11

✓ NERABEZAROA ARO KRITIKOA EUSKARA ETA EUSKAL KULTURARENTZAT.

Nerabezaroa aro kritikoa da euskara eta euskal kulturarentzat. Nerabezaroa norberak bere identitatea eraikitzen duen garaia da. Erreferentzia ezberdinak kontuan izanik norberaren nortasuna eraikitzen duena. Zentzu honetan, nerabezaroa euskara eta euskal kulturarentzat aro zaila irudikatzen da Donostia mailan. Bi arrazoiengatik:

- Euskararen erabilera mailan ematen diren aldaketak direla medio
- Lehen aipatu den elementuengatik: euskal kulturaren irudi zaharkitu baten ondorioz gazte jendearen artean modan ez dagoelako

Euskararen erabilerari dagokionez, nerabezaroan jaitziera bat ematen dela antzematen da. Eskolako patioetan nabarmentzen den kontua da. Batzuen ustez ziklo bat da, ondoren berriz ere euskarara jotzeko joera hartzen dute askok.

Horren aurrean irakurketa ezberdinak egiten dira:

- Batetik, nerabeen identifikazio erreferente asko gazteleraz dira edo erdaldunak diren kulturetatik datoz (jokoak, ekipoak...). Erakargarria egiten zaiena gazteleraz dator beraz.
- "Errebeldia" puntu bat ere euskararekiko antzematen da. Euskaraz egitea askotan esan bazaie, horrekin puskatzeko modu bat erdarara pasatzea da.
- Azkenik, Donostian harremanetarako hizkuntza gaztelera denaren pertzepzioa dago. Honela, beste eskoletako jendearekin, kirolaren inguruan edo beste zaletasunen eskutik erlazionatzen hastean, aldaketarako joera bat badago.

"Hombre, nik garbi daukat. Gaur egun gizartean beraiantzat erakargarriak diren, adin horretan erakargarriak diren, gauza gehienak gazteleraz datoz. Bai joko aldetik,

telebista aldetik, gero sare sozialetan hor ibiltzen direnean, irekitzen dira ikastolatik kanpoko beste errealitate batetara beste lekuetakoak... gaztelera da hizkuntza eta orduan beraiantzat adin horretan hori da erakargarria, eta beraiantzat inportantea hori da, eta hori gehienbat jasotzen dute gaztelera, eta orduan esaten dute: "Hemen polita den guztia gaztelera dago."

G: EREDUAK EDO NOLABAIT DITUZTE GAZTELERAKOAK EDO? hori da nire ustez arrazoirik nagusienetarikoa. Eta gero ba aldaketa. Baita ere rebeldia bat, ezta? Pixka bat, ez dut esango inposatuta, baina bai ikusten dute hemen ba euskaraz, denok gabiltzala bultzatzen euskara, ia lortzen dugun denak euskaraz egitea, eta esaten dute: "Zergatik?". Adin hori ere bada apur bat rebeldia, rebeldia.

G: BAI, PIXKA BAT EZBERDINTZEKO BEHARRA, EZ? E: Hori da, eta erakargarria bestea da, eta bueno... Badaude arrazoi ezberdinak baita ere. Kanpora ateratzen dira kirolean, bestean, tal... Orduan beste ikastetxeetako jendearekin eta ya hasten dira ateratzen. O sea, ez da ya... Lehen ba dena Axularren, gelakoak, pum, pum, pum. 12 urtera arte edo da hori, ikastolakoak, gelakoak. Baina hor ya kirola ere hasten dira kanpoan egiten, eta ya kanpoan elkartzen dira beste ikastetxeetako jendearekin, beste lekuetako jendearekin, eta Donostian oraindik hizkuntza gaztelera da." ES_7

I. ELKARTEGINTZAREN GARRANTZIA INTERAKZIOA SUSTATZERA BEGIRA

Aurreko lerroetan aipatu dugu gaur egun jatorri ezberdinetako donostiarren artean dagoen harremanen nolakotasuna. Elkartegintza elementu garrantzitsua da harremanak sustatzera begira. Motibazio ezberdinetako pertsonengan eragiten duen aldagaia da.

Pertsonen arteko harremanak sustatzeko helburu eta interes komunak izatea garrantzitsua da. Horrek jatorri ezberdintasunaren gaia alde batera uztea ahalbidetzen du. Zaletasunei lotutako espazioetan (musika, abesbatzak, artea...) gauza bera pasatzen da.

Bide horretatik elkartegintzaren eremuari arreta berezia eskaintzea interesgarria da, jatorri ezberdinetako pertsonak helburu komunen inguruan batzen dituen espazioa baita.

Adibide bat jarrita hobe ulertuko da adierazi nahi den ideia. Elkarrizketatu diren emakume askoren kasuan emakumeen etxearen inguruan harreman asko sortu direla jaso da.

"Bai, hemen bai, emakumeen etxean. Baina emakumeen etxean nik egin ditut lagun asko latinoak, emakume latinoak, ba hemen ibiltzen direlako. Nik inoiz ez nuen eduki hainbesteko aukera. O sea, hemengo espazio honek eman dit kristoren aukera ezagutzeko... Ez dakit, Peru, Salvador, Colombia... pila bat ezagutzen ditut oraintxe." ES_9

Hain zuzen, eremu informalean harreman gehien dituzten pertsonen artean emakume taldeetan daudenak kokatzen dira. Emakumeen eskubideen aldeko borrokak batzen ditu, eta horrek jatorri aniztasunak sortzen dituen edozein muga gainditzen du.

"Bai, eta konpartitzen dugun borroka dela mundu mailakoa, ez? Sistemikoa, mundu mailako emakume borroka. Orduan hor ya pixka bat muga horiek gainditzen dira. O sea, ez dira ezabatzen eh? Hemen bizi dira, beraiek etorri behar izan dute aukera... Ez dakit... batzen gaitu horrek." ES_9

Elkarte gastronomikoen kasua ere hor dago. Eremu informal horretan jatorri ezberdineko pertsonen arteko interakzioa ahalbidetzen dute, eta kontakturako eta ezagutzarako aitzakia interesgarria da. Kirol elkarteak ere izan daitezke beste aukera bat.

Adierazi nahi dena da elkartegintzak ala zaletasunekin loturiko espazioak (kirol taldeak, iraunkortasun bat daukaten ikastaroak, tailerrak...) beti ere harremanak eraikitzeke aukerak ematen dituztela, komunean interes berdinak dituzten jatorri ezberdinetako pertsonak batzen dituztelako. Jakin badakigu partaidetza ez dela momentu honetan indargune bat euskal gizartean. Baina edozein kasutan kontuan hartzeko elementua da.

4 AURRERA BEGIRA EGITEKO GOGOETAK

4.1 AUZO IDENTITATEA, EDOZEIN LANKETARAKO KONTUAN IZAN BEHARREKO ALDAGAIA

✓ **BATZUK DONOSTIA BERE OROKORTASUNEAN IKUSTEN DUTE, BESTE BATZUENTZAT DONOSTIA AUZO EZBERDINEN EMAITZA DA**

Donostia modu ezberdinetan hautematen dute jatorri ezberdinetako pertsonak. Migratzaileek (migratzaile berriak, garaian Espainiatik etorritako migratzaileek eta haien seme alabetako askok ere), Donostia bere orokortasun horretan ikusten dute. Identitateari dagokionez, 'donostiarrak' direla aipatzen dute hiriarri erreferentzia egiten dioten kasuetan.

Baina jatorriz eta urteetan Donostian bizi izan diren askok, auzo independenteez osaturiko hiri gisa irudikatzen dute. Auzo identitateak oso markatuak daude kasu horietan. Asko ez dira 'donostiarrak' sentitzen, auzotarrak baizik: Altxatarrak, Antiguotarrak, alde zaharrekoak etab.

Edozein lan egitera begira kontuan hartu beharreko aldagaia dela iruditzen zaigu.

"R6: para mi Donostia es la suma de todo eso. O sea, los de lo viejo no somos de Donostia, ni los de Amara, ni tal. A ver si que hay identidades particulares. Igeldo tiene su identidad particular, Añorga que son cuatro también tiene su identidad particular... Vamos, que todo eso es Donostia.

R5: ¡Del Bule para fuera provincia! ¡Del Bule para fuera provincia! Eso solía decir mi padre: "¡Del Bule para fuera provincia!"." ET

Auzo bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Auzo batzuetan baliabide aldetik denetarik dago, zerbitzuak, osasun zentroa. Jendeak bizitza bertan egiten du. Adibideak jartzeagatik, antiguokoak oso 'antiguozaleak' dira, eta Altzako askok Donostiarra 'jaisten' direla diote, hirira, hiriaren parte izango ez balira bezala. Igeldok beste izaera bat dauka, etxe gutxi, auzotar gutxi... Aieten bizitza familiarra eta lasaitasuna bilatzen duenarentzat egokia da (dirua ere kontuan izanik), baina bizitza soziala egiteko aukera gutxi dago.

Ezaugarri horiei lotuta identitate aniztasuna dator. Auzo bakoitzak bere auzo identitatea daukala sumatzen dute. Altza, Bidebideta eta Loiola kasu askotan migratzaile askoren bizilekua diren auzoak bezala irudikatzen dira, batez ere espainiar migratzaileak zirenenak. Hasieran arrazoi ekonomikoarekin lotuta batez ere, orain dagoeneko arrazoi kulturala dela aipatzen dutena.

Alde zaharra berriz Donostia barruan herri aparteko bat bezala irudikatu izan da. Denak elkar ezagutzen zutena, bizilagunen arteko harreman estua zegoena, urteetan identitate hori mantendu duena.

✓ **AUZO BATEAN ALA BESTEAN BIZITZEA BALDINTZA BATZUEN BAITAKOA IZATEN DA, EZ DESIO DENAREN ARABERAKOA**

Gaur egun **auzoetan bizitza askotan zorizkoa den zerbait da, 3 aldagaiek baldintzatzen dutena:**

- **Etxebizitzak non egiten diren**, babes ofizialekoei erreferentzia eginaz (adibidez Loiolan azken urteetan etxebizitzak eraiki izanak gazte jende asko bertara bizitzera joatea eragin du)
- **Norberaren egoera sozioekonomikoa eta botere ekonomikoaren maila**
- **Etxebizitzaren estiloak, egiturak** (gela kopurua, espazio antolaketa...)

Honela, Antiguon eta Alde Zaharrean etxe zaharrak nagusitzen direnez, baldintza horietan egotea onartzen duten pertsonak biltzen dira: askotan migratzaile berriak eta ikasleak. Egoera sozioekonomikoa horra egiten duen heinean eta beti ere pertsonaren arabera beste auzoetara bideratuz.

"ni Antiguon bizi naiz eta ni beltzean bizi naiz, pisu zahar bat... eta hori da bilatzen nuena, ez? Eta Antiguon jendeak ditu bigarren etxeak, hirugarren etxeak eta alokatuko dizkie ikasleei, atzerritarrei, eta... bai, baina diru, ekonomikoki baldintzatzen duen zerbait dela esango nuke. Hemengo klase... donostiarrek ez ditu onartu nahi horrelako baldintzatan dauden etxebizitzak." ES_9

Amaran esaterako, etxeak handiagoak dira. Logela gehiago daude, eta konpartitzeko ere aukera gehiago. Populazio zaharragoa bizi da amaran bertan, datuek ere hori adierazten dute. Beraz, aldagai guztiak gurutzatuta, kultura komunitarioagoetatik datozen migratzaileak, migratzaile latinoamerikarrak esaterako, Amaran asko egoteari zentzua hartzen zaio. Batetik, askok oraindik zaintzaren eremuan lan eginda "interna" gisa bertako etxeetan lan egiten dutelako. Bestetik, pisuak ere handiagoak izanik konpartitzeko aukera gehiago ematen duelako.

Garai honetan **etxebizitza 'tokatzen' zaizun lekuan** duzu, ez aukeratzen den lekuan. Beraz horrek ere **integraziorako eta harremanetarako** eragiten duela ikusten dutenik badago. **Aukerak murrizten ditu, auzoarekiko atxikimendu maila baldintzatzen du eta harremanak sortzeko disposizioa eta motibazioa ere.**

"Ba etxebizitza eskubidea ya fartsa bat dela, zeren eta kapitalismoak berak kapitalizatu dituela eskubideak eta azkenean zer egiten duzu? Ba tokatu zaio bati etxea, ba hara goaz! Ez da zure aukera, baizik eta aukeren artean ahal duzuna azkenean... Eta hori da egiten duzuna. Ez da borondatez aukeratu duzula bertan bizitzea eta orduan bertan integratzeko gogoz zaudela. Zuk badaukazu zure inguruan nahi duzuna, gustatu ahal zaizuna, izan daiteke Añorga, Aiete, Antiguoa, ez dakit, baina zuk zure aukera." ES_9

✓ AUZOEN IDENTITATEETAN ALDAKETAK EMATEN ARI DIRA

Aldaketarako erresistentzia askotan lotua dago pertenezkoa sentimendua eta identitatean aldaketak duen eraginarekin. Aipatu dugu auzoetan ematen ari den aldaketa identitateari dagokionez. Horri lotu behar zaio, migratzaile berrien gehiengoak auzoarekiko atxikimendua ere ezberdina duela. Ikuspegiari dagokionez 'donostiarrak' sentitzen dira edozein kasutan 'antiguotarrak' ala 'alde zaharrekoak' baino. Beraz, hori kontuan izateko aldagaia da.

Pertsona batek bere identitatea arriskuan sentitzen duenean datorrena mehatxu gisa sentitzeko arriskua areagotzen da, defentsiba jarrera azaltzen da. Hori ikusi zen garaiko migratzaile espainiarren aurrean euskal herritarren artean egon zen jarreraren, eta gaur egun auzo batzuetan gertatzen ari den gertaera ere bada.

Alde zaharraren kasua izan da aipagai eztabaida taldean eta elkarrizketa batzuetan. Alde zaharra irudikatzen da momentu honetan Donostian elkarbizitzara begira zailtasun gehien dituen auzo gisa (Sarriegi plazan ematen ari den egoera kasu, non batzuen begietara komunitate konkretu batzuetako jendea pilatzen ari den, lehen ematen ez ziren egoera gatazkatsuak etab. sortuz). Eta kasualitatea ala ez, alde zaharra da identitate aldetik aldaketa nabarmena jasaten ari den auzunea. 'Parke tematiko' gisa irudikatzen da, datorrenak nahi duenerako erabili eta alde egiten duela salatuz.

"Yo creo que Alza y la parte vieja no se comportan de la misma manera. No, por el carácter del barrio como bien dices tu, porque Alza tiene un recorrido acogiendo gente, mucha gente de fuera, esta todo como mucho mas trabajado de alguna manera y la parte vieja pues... Pues la parte vieja ha perdido identidad. Cuando yo era pequeño la parte vieja era como un pueblo, igual. O sea, estamos hablando de un pueblo pequeño de provincias. La parte vieja era como un pueblo. Dentro todo el mundo se conocía. Eso es algo que ha desaparecido. La parte vieja ha perdido identidad, se ha diluido. La mitad de las casas se ha ido muriendo gente, así como suena, y ha entrado gente de fuera que lo utiliza como dormitorio y punto. No tiene relación vecinal, no hace... Luego viene todo Donostia allí, todo el mundo se mezcla... Eh... Lo utiliza cada uno como le da la gana." ET

Honek hasieran esandakoa baieztatzeko aukerak ematen ditu. Auzo identitate hori galtzen ari den momentu horretan aldaketa ikustarazten duen eta ikusgarriagoa den ezberdintasun horren aurrean jarrera defentsibo bat hartzen da. Eta ezberdintasun hori sinbolizatzen duena migratzailearen figura da.

Edozein kasutan **azpimarratu nahi dena da auzoak bizi izan duen ibilbideak eragina daukala migratzaile berriengan aurkezterako momentuan, eta auzo bakoitzak elkarbizitzan lagungarriak ala oztopoak izan daitezkeen berezitasunak dituela. Eta era berean, auzoen identitate galdera horrek migratzaileekiko jarreran ere eragina izan dezakeela.**

4.2 LABURTUZ ETA AURRERA BEGIRA

Jatorri ezberdinetako donostiarrek gustura daude Donostian bizitzen. Bizi kalitate ona duen hiri gisa aurkezten dute batzuk eta besteek. Irisgarria, giro atsegina duena, aukera asko eskaintzen dituen hiria. Migratzaile berrietako askok etorkizun hurbila eta luzekoa ere bertan irudikatzen dute, Donostian luze bizitzeko leku atsegina aurkitu dute.

Donostian migratzaile berrien kopuruak azken urteetan goraka egin du eta joera bat mantendu da zentzu horretan. Krisi ekonomikoaren garai honetan mugikortasuna apaldu ahal dela pentsa genezake, baina susmoa besterik ez da. Ondorengo urteetako datuak jasotzera itxaron beharko da susmo hori baieztatzerik badagoen ikusteko.

Beraz, **kultur arteko harremanen aukerari arreta jartzeak merezi du. Erronka bihurtzen da beraz %9,6 hori ikustaraztea, balioan jartzea, eta haiena donostiarren egunerokoan kontuan izatea.**

Jatorri aniztasunaren aurrean eta **pertsonen arteko harremanari dagokionez**, elkarbizitza harremanen osasunarekin lotuz, **balorazio orokorra ez da txarra, oinarrizkoa eta oro har errespetuzkoa** dela aipatuz. **Halaber**, balorazio hori nagusiki **interakzio falta** batean oinarritzen da. **Ez-ezagutza maila handia** da zentzu honetan, eta ez-ezagutza hori aitortzen da. Interakzioarako oinarrizko urratsa informazioa eta ezagutza dela gogoratu behar da.

Ez-ezagutzatik egiten diren eraikuntzak arrisku bat daukate: interpretazioetan eta orokortasunean erortzeko arriskua, eta hortik aurreiritziak sortzekoa. Prozesu zirkularra da, aurreiritzi horiek harremanen osasungarrietarako aukera murrizten dute, ondorioz ez-ezagutza hori areagotzea ahalbidetuz. Migratzaile berriekiko diskurtsoetan jaso dugu oraindik orain ez-ezagutza horretatik abiatuta egiten diren konstrukzioak zuten eragin negatiboa.

Aurreiritzi eta estereotipoak harremanetan duten eragina jatorri ezberdinetako donostiarrek nabarmendu dute. Migratzaile berriek beraien azaletan bizi dituzte, gainontzeko donostiarrek ere horretaz jabetzen dira. Batzuk jarrera zabalago batekin, besteak beraien burua justifikatuz, baina guztiek onartzen dute aurreiritzi asko dagoela oraindik migratzaileekiko.

Dinamika hori puskatzeko modu bakarra errealitatean oinarritutako ideiak eraikitzeak dator. PERTSONA ezagutu, pertsona bera eta ez bere inguruan sortu den irudi soziala. Ezagutza horretatik abiatuta eta elkarrekiko aitortzaren bideak urratsak emanez, elkarbizitzako eta harremanak izateko zubiak sortuko dira.


Bide horretan, **Donostian urrats asko eman dira**, eta aukerak nabarmenak dira. **Elkar ezagutzara eta aniztasuna balorean jartzera bideratzen** dira hainbat proiektu jarri izan dira eta daude abian:

- Kultur aniztasun topaketak
- Gipuzkoa Solidarioa I-II-III edizioak
- 'Alboko familia' proiektua
- 'Bizilagun' proiektua
- Zurrumurruen aurkako lanketa proiektuak
- ...

Hauetariko asko edo gehienak Sos Arrazakeria eta Mugak-ek sustatuak dira. Era berean, ezin genuke aipatu gabe utzi Donostia 2016 egitasmoaren ardatza dela elkarbizitza eta aniztasunaren eremua.

Edozein kasutan, **gaur egungo errealitatean zentratuta**, lehen esan dugun elkar ezagutza eta elkar aitortza eskasia hori da abiapuntua. Beraz, **elkarbizitza osasuntsu baterantz eta kultur artekotasunaren eredu batetik jo nahi bada, urrats batzuk eman beharko dira.**

Euskal eta espainiar jatorria duten donostiarren artean aniztasunarekiko duen jarrera modu grafiko batean irudikatuko ezker muturrean diskurtso zabalena eta pertsonengan zentratua legoke eta eskubiko muturrean jarrera baztertzaileena izango genuke.



Donostiarren gehiengoa erdiguneko posizio horretan kokatzen denaren susmoa dago, diskurtsoetan jaso dena kontuan izanik, baina ezin da ziurtasunez baieztatu. Erdiguneko posizio horietan gehiengoa kokatzen denaren hipotesitik abiatuta, **erronken artean** izango genituzke beraz:

- **Jarrera zabal eta irekian kokatzen direnak posizio horretan mantentzea**
- **Erdigunekoak jarrera zabalera gerturatzeko saiakerak.** Eta edozein kasutan eskuin muturretik gertu daudenak eskuin alde horretara pasatzea ekiditea.
- **Jarrera baztertzailean kokatzen direnak posizio horietatik mugiaraztea.**

Indar gehiena erdiguneko posizio horietan jartzea komeni da beraz. Argi dago diskurtso batzuetara iristea oso zaila izango dela ekintza konkretuen bidez, eskuin aldera oso muturrean daudenak ez baitaude egiten diren ekintzetara begira jarrera oso rezeptibo batean.

Beraz, aurrera begira, erronka ezberdinak aurkitzen dira:

- **Dauden diskurtso baztertzailak baliogabetu eta indargabetzea komeni da.** Datuak emateak horretan lagundu dezakeela egia den arren, esperientziek adierazten dute askotan ez dela nahikoa izaten. Beraz, formulak arakatu behar dira, lagungarriak izango ez diren diskurtso eta iritziek bide luzerik egin ez dezaten.
- Elkar aitortzaren bidean urratsak ematea komeni da: **pertsonen baliagarritasuna balioan jarri, ikustarazi behar da. Norbanako bakoitzarena, zein komunitate zehatzena ere komeni da balioan jartzea.**


Txostenean zehar aipatu dugu gehiengo batek oraindik orain migratzaileekiko ikuspegi utilitarista bat duela. Datorrena ikuspegi utilitarista batetik soilik begiratzen bada, beste gauza askotara sarbide izateko aukera galdu daiteke. Pertsona bakoitzak daukan ezagutza, aberastasuna balioan jartzeak, pertsonetikiko ikuspegia ere aldatzera eramaten du.

- **Integrazioa ulertzeko moduaren eraldaketa egitea komeni da.** Ezberdina dena ikustarazi, ezberdina denari lekua eman, eta ezberdintasuna aitortuz eta baloratuz norberarena ere errespetatuko baita. Aipatu den arriskua eta jarrera ekiditera begira, elkar aitortzarako urratsak emateko integrazioaz ulertzen denaren inguruan ere lanketa kolektiboa egitea komeni da.

Horretarako bide ezberdinak egon daitezke:

- **Ezberdinen arteko elkarrizketarako espazioak sortu.** Aniztasunak beste errealitate batzuen berri izatea, eta gurea bakarra ez dela ikusteko aukera ematen badu, Herrian dagoen aberastasun horri etekina atera dakioke.
- **Integrazio esperientziak balioan jarri, orain arte egiten direnak mantendu eta sustatuz. Eta berriak sortuz.**

Amaitzeko esan, oso konplexua den gizarte batean bizi garela, eta konplexutasun horretan kokatu beharra dagoela, horrela onartuz, formula anitzak beharko direla ere elkar harremanetan eta elkarbizitzan eragiteko.



[a]

aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak

Martin Ugalde Kultur Parkea, Gudarien Etorbidea z/g

20140 ANDOAIN [GIPUZKOA]

943 59 30 06 / 608 018 512

idazkaritza@aztiker.com